

ZUZENBIDE ZIBILA SAILA
DEPARTAMENTO DE DERECHO CIVIL

EUSKAL OINORDETZA ZUZENBIDEARI
BURUZKO AZTERKETA
Araudi berri bat sortzeko oinarriak



ESTUDIO SOBRE DERECHO
SUCESORIO VASCO
Bases para un nuevo régimen

ASUA GONZÁLEZ Clara I.
GALICIA AIZPURUA Gorka
GIL RODRÍGUEZ Jacinto
HUALDE SÁNCHEZ José Javier
IMAZ ZUBIAUR Leire

Euskaratzea

IMAZ ZUBIAUR Leire
KARRERA EGIALDE Mikel Mari



emin ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
Zuzenbide Zibila Saila
Departamento de Derecho Civil

GIPUZKOAKO CAMPUSA
CAMPUS DE GIPIZKOA
Manuel Lardizabal Pasealekua, 2
20018 Donostia-San Sebastián
(Gipuzkoa)
T: +34 943 018077
F: +34 943 015290
www.derechocivil.ehu.es

BIZKAIKO CAMPUSA
CAMPUS DE BIZKAIA
Sarriena auzoa - Ikastegi II
48940 Leioa
(Bizkaia)
T: +34 94 6013210

ÍNDICE

Abreviaturas

Previo

Disposiciones generales

De la Sucesión testamentaria

Capítulo I. Del testamento hil-buruko

Capítulo II. Del testamento mancomunado o de hermandad

De los pactos sucesorios

De la Fiducia sucesoria u ordenación por comisario

De la sucesión forzosa

Capítulo I. Del régimen general

Capítulo II. De la sucesión forzosa en la Tierra Llana de Bizkaia, Llodio y Aramaio

Capítulo III. De la libertad de disposición en Ayala

De la sucesión legal

Capítulo I. Del régimen general

Capítulo II. De la sucesión abintestato en la Tierra Llana de Bizkaia, Llodio y Aramaio

Disposiciones comunes a las distintas formas de suceder

Previsiones complementarias

AURKIBIDEA

Laburdurak

Sarrera

Xedapen orokorrak

Testamentu bidezko oinordetza

I. Kapitulua. Hilburuko testamentua

II. Kapitulua. Testamentu mankomunatu edo ermandadekoa

Oinordetza-itunak

Oinordetza-fiduzia edo komisario bidezko ordenazioa

Nahiatezko oinordetza

I. Kapitulua. Eraentza orokorra

II. Kapitulua. Nahitaezko oinordetza Bizkaiko Lur Lauan, Laudion eta Aramaion

II. Kapitulua. Xedatzeko askatasuna Aiaran

Legezko oinordetza

I. Kapitulua. Eraentza orokorra

II. Kapitulua. Oinordetza abintestato Bizkaiko Lur Lauan, Laudion eta Aramaion

Oinordetzeko modu desberdinei buruzko xedapen komunak

Aurreikuspen osagarriak

ABREVIATURAS

AAVD

Borrador de Antoproyecto de Ley de Derecho Civil Foral de la Academia Vasca de Derecho

CC

Código Civil

CCCat.

Código Civil de Cataluña

CDCB

Compilación de Derecho Civil de Baleares (Texto refundido aprobado mediante Decreto Legislativo 79/1990, de 6 de septiembre)

CE

Constitución española

CS

Código de Sucesiones por causa de muerte en el Derecho Civil de Cataluña (Ley 40/1991, de 30 de diciembre)

EAPV

Estatuto de Autonomía del País Vasco

FN

Compilación del Derecho Civil Foral de Navarra o Fuero Nuevo (Ley 1/1973, de 1 de marzo)

LDCF

Ley 3/1992, de 1 de julio, del Derecho Civil Foral del País Vasco (modificada mediante Ley 3/1999, de 26 de noviembre, en lo relativo al Fuero Civil de Gipuzkoa)

LDCG

Ley 2/2006, de 14 de junio, de Derecho Civil de Galicia

LEC

Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil

LSAr.

Ley 1/1999, de 24 de febrero, de Sucesiones por causa de muerte de Aragón

LABURDURAK

ArOL

1/1999 Legea, otsailaren 24koa, oinordetzari buruzkoa, heriotzagatikoa Aragoi

BZZK

Baleareetako zuzenbide zibilaren konpilazioa (Testu bateratua, 79/1990 Dekretu Legegilez, irailaren 6koz onartua)

EHAE

Euskal erkidegoko autonomia estatutua

EK

Espainiako Konstituzioa

EZAA

Euskal Zuzenbidearen Akademiako foru zuzenbide zibilari buruzko lege-aurreproiektuaren zirriborroa

FZZL

3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, euskal foru zuzenbide zibilari buruzkoa (3/1999 Legez, azaroaren 26koz, aldatua Gipuzkoako foru zibilari dagokionean)

GZZL

2/2006 Legea, ekainaren 14koa, Galiziako zuzenbide zibilari buruzkoa

KZ

Kode Zibila

KatKZ

Kataluniako Kode Zibila

NF

Nafarroako foru zuzenbide zibilaren konpilazioa edo Foru berria (1/1973 Legea, martxoaren 1ekoa)

OK

Oinordetza Kodea, Kataluniako zuzenbide zibilekoa, heriotzagatikoa (40/1991 Legea, abenduaren 30ekoa)

PZL

1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, prozedura zibilari buruzkoa

PREVIO

La exposición de motivos de la Ley 3/1992, de 1 de julio, de Derecho Civil Foral del País Vasco, después de dejar constancia de que no se había propuesto agotar la tarea ya por entonces necesaria, se ocupó de insistir en el aplazamiento momentáneo de la legítima pretensión de “lograr un Derecho Civil moderno y socialmente avanzado” al amparo del actual marco constitucional y estatutario. Por su parte, la Ley 3/1999, de 26 noviembre, de modificación de la LDCF, en lo relativo al Fuero Civil de Gipuzkoa, vino a superar formalmente la tradicional asimetría normativa entre los Territorios Históricos, a la vez que hacía más apremiante el regreso a la fórmula estatutaria (art. 10.5º del EAPV), para, una vez cubierta la etapa de *conservación* del legado peculiar de cada uno de los tres Fueros civiles, extraer “los rasgos comunes del Derecho Civil vasco”, dando satisfacción al requerimiento de la propia Ley 3/1992, para utilizarlos como eje de una moderna regulación autonómica. Quedó así expedita la subsiguiente posibilidad de *modificación y desarrollo*; vale decir que devino ineludible el alumbramiento de un Derecho civil para toda la ciudadanía vasca, en ejercicio de la competencia legislativa estatutariamente asumida y en los términos que la sociedad actual requiere, esto es, utilizando también el Derecho privado propio como un elemento más de identidad colectiva y de cohesión interterritorial.

La extrema dificultad de materializar el referido tránsito de los primigenios Derechos forales a un moderno Derecho civil vasco ha quedado patente, por segunda vez, durante la legislatura pasada. No bastó el respaldo de todos los grupos parlamentarios a la creación de una ponencia especial, ni el grado de coincidencia entre los expertos convocados, para evitar que dicho período de sesiones llegara a su término antes de

SARRERA

Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilarri buruzko uztailearen 1eko 3/1992 legeak argi utzi zuen, zioen adierazpenean, ez zela bere asmoa “Zuzenbide zibil modernoa eta aurrerakoia” lortzeko helburu zilegia testu harekin agortzea. Atzeratu besterik ez zuen egiten legegileak saiakera hura. Beste alde batetik, Gipuzkoako Foru Zibilarri zegokion atalean FZZL aldatzen zuen azaroaren 26ko 3/1999 Legeak, formalki bada ere, hiru lurralde historikoen artean zegoen asimetria gainditu zuen; hiru foru zibilen berezitasunak *kontserbatzeko* lana jada burututa, horiek erabiliz “Euskal Zuzenbide Zibilarren ezaugarri komunak” atera eta, 1992ko Legearen agindua betez, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.5 artikulua formulari jarraiki, erregulazio autonomiko modernoa gauzatzeko erronka urgentea zela agerian utziz. Hala, irekia geratu zen orduan euskal Zuzenbide zibila *aldatzeko* eta *garatzeko* aukera. Eta ezinbestekoa da, gaur, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle guztientzat Zuzenbide zibil bateratua osatzea; estatutuak bere gain hartutako eskumena egikaritzuz Zuzenbide pribatua herri nortasunaren eta euskal lurraldeen arteko kohesioaren elementu gisa erabiltzeko.

Aurreko legealdian argi geratu zen, bigarren aldiz, jatorrizko Foru zuzenbideetatik Euskal Zuzenbide zibil modernoa batera igarotzeko zubia eraikitzea oso lan zaila dela. Ez zen nahikoa izan ponentzia berezi bat eratzeko alderdi politikoen arteko adostasuna. Ezta deitutako adituen arteko kointzidentzia maila ere. Euskal Autonomia Erkidegoko berezko Zuzenbide zibila berritzeko ezinbestekoa den bat-etortzea ez zen lortu

que se obtuviera el preciado consenso sobre las claves de la inaplazable renovación del Derecho civil propio de la Comunidad Autónoma.

Así las cosas, la experiencia acumulada aconseja hacer el camino por tramos, siguiendo el ejemplo de otras Comunidades Autónomas dotadas de pareja competencia y bastante más avanzadas en el desarrollo de sus primitivos Derechos civiles. A la prudencia de planificar serenamente y por etapas el desarrollo ideal del Derecho civil vasco obedece, entonces, la propuesta de empezar por el estatuto sucesorio. Pero fluye asimismo de otros tres indicadores dignos de consideración. El primero, deriva de la exagerada fragmentación que la ciudadanía vasca viene padeciendo en ese particular, hasta el punto de que dentro de la misma Comunidad Autónoma pueden llegar a identificarse cuatro esquemas o estatutos sucesorios diversos, sin contar el que corresponde a los vizcaínos no infanzones. En segundo lugar, debería tomarse en cuenta el significativo desfase del sistema sucesorio del propio Código civil, por lo demás, aún vigente para la inmensa mayoría de alaveses y guipuzcoanos, así como sustancialmente aplicable también a casi la mitad de los vizcaínos (aproximadamente, 1.494.966 habitantes – 68’82 % del padrón vasco). Por último, procedería reiterar que en ese mismo terreno sucesorio converge el ejemplo de otros legisladores autonómicos más entrenados que nosotros en el ejercicio de esa misma competencia y que, por añadidura, se identifican con propuestas cuantitativa y cualitativamente diversas a la hora de pergeñar el Derecho civil propio (Cataluña, CS Ley 40/1991, Aragón, LSAr. 1/1999 y Galicia, LDCG 4/1995).

El nuevo régimen sucesorio propuesto para el conjunto de la Comunidad Autónoma Vasca se ha estructurado

ponentzia haren sesioak bukatzerako.

Gauzak horrela, metatutako esperientziak ibilbidea zatika egitea aholkatzen du, antzeko eskumena duten beste autonomia erkidegoen jatorrizko Zuzenbide zibilen egungo garapen maila eredu hartuz. Euskal Zuzenbide zibilaren garapen ideala, zuhurtziaz eta lasaitasunez, zatika egin beharrak errotzen du lehenengo oinordetzari buruzko estatutua lantzeko proposamena. Beste hiru arrazoik oinarritzen dute erabaki hori. Lehenengoa, euskal biztanleek eremu honetan pairatzen duten gehiegizko zatiketa; Autonomia Erkidego honetan lau oinordetza-estatutu ezberdin bereizi baitaitezke, bizkaitar forugabeei dagokiena kontuan hartu gabe. Bigarrena, Kode zibilak arautzen duen oinordetza sistemaren desfase esanguratsua, arabar eta gipuzkoar gehienei zein bizkaitarren erdiari oraindik ere aplikagarri zaiena (1 494 966 biztanleri guztira, euskal erroldan %68’82). Azkenik, eskumen hau egikaritzen gu baino entrenatuago dauden legegile autonomikoen eredia, euren Zuzenbide zibila garatzerakoan kuantitaboki eta kualitatiboki ezberdinak diren proposamenekin identifikatzen direnak, alegia (Katalunia, OK 40/1991 Legea; Aragoi, ArOL 1/1999 eta Galizia, GZZL 4/1995).

Euskal Autonomia Erkidegorako proposatzen den oinordetza erregimen berria oinarri batzuen bitartez egituratu da.

formalmente a través de una serie de bases. Se ha escogido esta fórmula por ser más flexible y abierta que la enunciación de un texto articulado, tendente, por naturaleza, a presentarse como un sistema definitivo. Esto no significa, sin embargo, que las bases no se traduzcan en preceptos ya configurados; de hecho, la mayor parte de ellas tiene esta consistencia, de modo que no se limitan a ser meras enunciaciones normativas, sino que descienden casi siempre al detalle de la regulación. Con todo, se ha optado por este modelo de exposición por varias razones. En primer lugar, para hacer más accesible la discusión y el debate sobre su contenido y las concretas soluciones adoptadas, discusión y debate que sería deseable protagonizaran los distintos operadores sociales y jurídicos con independencia del que, claro está, competiría ineludiblemente a los integrantes de la Cámara vasca si llegara a darse impulso legislativo a la materia. Pero es que esta forma de estructuración del trabajo presenta, en segundo lugar, otra virtualidad, cual es la de (si tal fuera la pretensión) dejar expedito el recurso a la técnica de la delegación legislativa prevista en el artículo 52 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, del Gobierno Vasco. Como es sabido, esta delegación puede acordarse, cuando tenga por objeto la elaboración de textos articulados, precisamente mediante una *Ley de Bases* (en la que se fije plazo para su ejercicio). No hará falta subrayar que este singular procedimiento de confección de normas se muestra particularmente adecuado respecto de aquéllas en las que deba abordarse la regulación de instituciones y conceptos de naturaleza compleja y de carácter eminentemente técnico, como es el caso. Además, la singularidad de nuestro punto de partida, caracterizado por la coexistencia de cuatro ordenamientos civiles, invita a echar mano del método legislativo más propicio para la concordia, ya que una Ley de Bases facilitaría sobremano el necesario e indispensable

Formula hau aukeratu egin da behin betiko sistema gisa aurkezteko tendentzia duen testu artikulatu bat baino zabalagoa eta malguagoa delako. Horrek ez du esan nahi, ordea, oinarriok ez direla arau bihurtzeko gai. Izatez, oinarri gehienek sendotasun hori dute: ez dira arau-azalpen soilak, erregulazioaren xehetasunera jaisten dira. Esposizio eredu hau hautatu da arrazoi ezberdinengatik. Lehenik, eskuragarriagoa egiteko bere edukari eta onartutako soluzio zehatzei buruzko eztabaida. Debate hau operadore sozial eta juridiko ezberdinek egin beharko lukete, baita Euskal Legebiltzarreko kideek ere gaia bera legeztatzea sustatuko balitz. Bigarrenik, bidea irekita uzteko (helburua hori balitz) 7/1981 Legearen 52. artikulua aurreikusten duen legegintza-delegazioaren teknikari, Eusko Jaurlaritzarena. Jakina denez, teknika hau onartu daiteke, testu artikulatuak egitea helburu duenean, hain zuzen ere *Oinarri Lege* baten bidez (delegazioa egikaritzeko data jasoko duena). Arauak egiteko prozedura berezi hura oso egokia da batez ere instituzio eta kontzeptu konplexuak eta nabarmenki teknikoak landu behar badira, kasu honetan bezala. Gainera, gure abiapuntuak –lau ordenamendu zibilen koexistentzia- adostasuna lortzeko legegintza-metodo egokiena aukeratzera gonbidatzen gaitu; Oinarri Lege batek araudi berriaren zutabeei buruz legebiltzarreko indar guztien arteko ezinbesteko adostasuna lortzea asko erraztuko bailuke. Batez ere, euskal senipartearen existentziari eta sendotasunari edota, hil aurreko ondarezko eszenatokia ordenatzeko, biztanleek erabili ditzaketen tresnei buruz (itunak, testamentu mankomunatu eta komisario-usufruktudun-fiduziarioaren bidezko ordenazioa). Horrela, oinordetza-erakuntza autonomikoaren oinarriko printzipioak Oinarri Legean bertan, sintetikoki, finkatutakoan, bere garapena adituen sentsibilizazio-anitzeko Batzorde tekniko batek burutu beharko luke. Garapena bukatuta, testua (artikulatua

consenso de todas las fuerzas parlamentarias acerca de los principios angulares de la nueva regulación; singularmente, la existencia y consistencia de la legítima sucesoria vasca o los cauces específicos que se ofrecen a la ciudadanía (pactos, testamento mancomunado y ordenación por comisario-usufructuario-fiduciario) para ordenar su escenario patrimonial en previsión de la muerte. De este modo, una vez decantados los principios basilares y las líneas maestras del edificio sucesorio autonómico, en esa síntesis que una Ley de Bases representa, debería encomendarse su vestimenta y desarrollo concretos a una Comisión técnica de expertos asimismo integradora de diversas sensibilidades. Una vez concluido, el texto (ya articulado) que el Gobierno presentase se tramitaría, de acuerdo con lo establecido en el artículo 52.6 de la Ley 7/1981, ante el Pleno del Parlamento por el procedimiento de lectura única (véase artículo 162 del Reglamento del Parlamento vasco de 23 de diciembre de 2008). Por supuesto, el trabajo cuenta con una hechura y una profundidad suficientes como para colmar el requisito impuesto a toda ley de este tipo, a saber, que en ella se delimiten con precisión el objeto y el alcance de la delegación legislativa y de los principios y criterios que han de seguirse en su ejercicio (artículo 52.3).

Aunque cada una de las bases se acompaña de una sucinta explicación justificativa de su contenido –además de una breve relación de las normas que hayan podido servir de inspiración para formularla-, no estará de más hacer un breve bosquejo de cuáles son sus líneas esenciales. Pero, antes de esto, conviene llamar la atención sobre una cuestión en particular.

En las bases, tal y como puede comprobarse por medio de una somera lectura, no se hace prácticamente alusión a los integrantes de parejas no

jada) Jaurlaritzak aurkeztuko luke eta Legebiltzarraren Osoko Bilkuran izapidetuko litzateke 7/1981 Legearen 52.6. artikulua araber, irakurketa bakarreko prozesuari jarraiki (ikus 2008ko abenduaren 23ko Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 162. Artikulua). Jakina, aurkezten dugun lan honek badu mota honetako legeei galda dakizkien sakontasun eta trinkotasun maila; hots, bertan legegintza-delegazioaren objektua eta irismena finkatzea, baita berau egikaritzerakoan jarraitu beharreko printzipio eta irizpideak (52.3. artikulua).

Nahiz eta proposamen hau osatzen duten oinarriak azalpen labur batekin eta beste ordenamenduetako arauetikiko bat-etortzeekin lagundu, komenigarria da euren oinarrizko ildoak zeintzuk diren azaltzea. Lehenago, ordea, gauza zehatz bati buruz jardutea gomendagarria da.

Irakurketa xume batekin konproba daitekeen bezala, oinarrietan ez da izatezko bikotekideen erreferentziarik jasotzen, ezkontideenak besterik ez dituzte

matrimoniales, sino única y exclusivamente a los cónyuges. Sin embargo, esta omisión no debe interpretarse necesariamente como un rechazo a la *asimilación* entre ambas formas de convivencia, sino como *una llamada a la reflexión* sobre el sentido, finalidad y efectos de la misma.

El matrimonio ya no es el único modelo jurídico de pareja. El proceso de institucionalización de la pareja no matrimonial, que comenzó siendo de baja intensidad (a través de la jurisprudencia y algunas normas estatales de carácter sectorial), se ha visto impulsado y acelerado por efecto de la actuación legislativa de las Comunidades Autónomas. En los últimos diez años han visto la luz un importante número de leyes autonómicas sobre parejas *estables* o *de hecho*, aunque ciertamente, de todas ellas, sólo las de las Comunidades Autónomas con competencia civil entran a regular el *estatuto privado de la pareja*, debiéndose limitar el resto a cuestiones de Derecho Público.

La actuación autonómica vino a cubrir una necesidad real y una demanda más que legítima: la de ofrecer un marco institucional para las parejas del mismo sexo que entonces no podían contraer matrimonio. Algunas de estas leyes, además, posibilitaron desde el principio que, vía adopción, la filiación quedara determinada al mismo tiempo respecto de dos personas del mismo sexo; posibilidad que posteriormente incorporaron las que inicialmente no lo habían hecho. Pero lo cierto es que, ofreciéndose un modelo institucional para la pareja con independencia del sexo de sus integrantes, ha resultado que esas leyes fundamentalmente han *afectado a* (o han sido *utilizadas por*, expresión que conviene más a aquellos casos en que su aplicación viene determinada por una declaración de voluntad) parejas heterosexuales. De hecho, la reforma

barnebiltzen. Omisio hau ez da, halabeharrez, bi elkarbiztiza-ereduen arteko *asimilazioaren* kontrako jarrera gisa ulertu behar, haren zentzuari, helburuari eta efektuei buruzko *hausnarketarako dei bat* bezala baizik.

Ezkontza jada ez da bikote-eredu juridiko bakarra. Ezkontzazkoa ez den bikotearen instituzionalizazioa, intentsitate gutxikoa izaten hasi bazen ere (jurisprudentiaren eta estatuko zenbait arau sektorialen kariatz), autonomia erkidegoen legegintza-jarduerak sustatu eta bizkortu egin dute. Azken hamar urteetan makina bat lege autonomiko onartu dira *izatezko bikoteei* buruz; nahiz eta, guzti horien artean, eskumen zibila duten Autonomia Erkidegoak besterik ez diren *sartzen bikotearen estatutu pribatua arautzera*, besteak Zuzenbide publikoaren eremuko arloetara mugatu behar baitira.

Jarduera autonomiko hark behar izan erreala bati eta eskaera zilegi bati erantzun zion: garai hartan oraindik ezkontzea debekatua zuten sexu bereko pertsonen marko instituzional bat eskaintzea, alegia. Lege hauetariko batzuek, gainera, hasieratik ahalbidetu zuten, adopzioaren bitartez, seme-alabatasuna aldi berean finkatua geratzea sexu bereko bi pertsonen alde. Gerora, aukera hura hasieratik jaso ez zuten legeek ere bere egin zuten. Baina, egia esan, kideen sexuaz haratago bikoteari eredu instituzionala eskaintzearekin bat, gertatu da lege horiek *eragin izan dutela* (edo *erabiliak izan dira*, aplikazioa aurretiazko borondate adierazpen batek baldintzatzen duen kasuetan), batez ere bikote heterosexualengan; uztailaren 1eko 13/2005 Legeak Kode zibilean gauzatutako erreformak sexu bereko bikoteek instituzionalizazio bide bezala

operada en el Código civil por la Ley 13/2005, de 1 de julio, ha determinado que las parejas del mismo sexo opten por el matrimonio como vía de institucionalización.

Pero, pudiendo contraer matrimonio las personas del mismo sexo, resultaría ahora oportuno reflexionar, tanto sobre las razones del mantenimiento de otro modelo institucionalizado de pareja, como sobre los requisitos de la misma y, en concreto, sobre si debería exigirse la expresión de un consentimiento al efecto.

En lo que hace a la primera de las cuestiones –las razones que justifican perfilar jurídicamente una pareja no matrimonial-, han sido ideas recurrentes la invocación de la libertad y el libre desarrollo de la personalidad (art. 10 CE) y la oportunidad de ofrecer un modelo distinto del *tradicional*. Sin embargo, si bien la libertad y el libre desarrollo de la personalidad exigen, sin lugar a dudas, que una pareja pueda, amén de autoregularse, elegir entre acomodarse o no a un modelo institucionalizado, en absoluto tienen por corolario que pueda elegirse entre varios modelos tan similares entre sí. Por otra parte, atender a la percepción o sensibilidad que rechaza la institucionalización a través del matrimonio y reclama un *nuevo producto jurídico*, deja traslucir cierto desconocimiento sobre lo que hoy es el matrimonio. Desconocimiento que, en lo que suponga falta de conciencia de los logros de una sociedad democrática y ausencia de pedagogía al respecto, puede resultar especialmente grave en los poderes públicos. Y es que, dando relevancia a esa *sensibilidad*, se está admitiendo implícitamente la existencia de razones objetivas que la justifican, esto es, que el matrimonio es lo que era (basado en la desigualdad, de inspiración religiosa, etc.) y que es un modelo cuyo rechazo ha de ser atendido. Es obvio que la regulación postconstitucional del

ezkontza hautatzea ekarri baitu.

Baina, sexu bereko pertsonak haien artean ezkontzea posible izanik, komenigarria litzateke orain hausnartzea beste bikote-eredu instituzionalizatu hura mantentzeko arrazoiei buruz; baita bere betekizunei zein baimen baten adierazpenaren galdapenari buruz ere.

Lehenengo gaiari dagokionez – ezkontzazkoa ez den bikotea juridikoki marraztea justifikatzen duten arrazoiak-, bi ideia nagusitu dira: askatasuna eta nortasunaren garapen askea (EK 10. art) eta eredu tradizionala ez den beste bat eskaintzeko aukera. Hala ere, askatasunak eta nortasunaren garapen libreak bikote bakoitzak eredu bat edo bestea aukeratu ahal izatea galdatzen badu ere, ez dute helburu bi eredu hain berdinen artean hautatu ahal izatea. Beste alde batetik, ezkontzaren bidezko instituzionalizazioari uko egiten dion eta *produktu juridiko berri bat* eskatzen duen sentsibilitateari men egiteak gaur egun ezkontza zer den ondo ez jakitea adierazten du. Ezagutza falta horrek gizarte demokratiko baten lorpenen kontzientzia falta eta horri buruzko pedagogia falta suposatzen badu, bereziki larria izan daiteke botere publikoei gagozkiola. *Sentsibilitate* horri garrantzia ematen bazaio, inplizituki onartzen da justifikatzen duten arrazoi objektiboak badaudela, hau da, ezkontza iraganean zena dela gaur egun ere (ezberdintasunean oinarritua, erlijioan inspiratua, etab.) eta, horregatik, eredu hura gaitzestea nolabait babestu behar dela. Nabarmena da Konstituzio ondorengo araudiak ez duela eredu harekin zer ikusirik, baina badirudi *izen kontua* dela: ezkontza-estatutua lortu nahi da baina horrela deitu gabe.

matrimonio nada tiene que ver con ese modelo, pero parece tratarse de una *cuestión de nombre*: se quiere lograr un estatuto matrimonial pero que no se llame así.

También la segunda cuestión planteada –si debe o no recaer un consentimiento para la consideración de pareja– revela las paradojas de cualquiera de las opciones. Aplicar el estatus jurídico de pareja por hechos concluyentes, sin expresión de un consentimiento, pone en entredicho la libertad y arroja un resultado de dudosos perfiles constitucionales (el derecho a no casarse que deriva del artículo 32 CE se transformaría aquí en el derecho a no constituir una pareja). Por otra parte, requerir la expresión de un consentimiento resulta respetuoso con la libertad y el libre desarrollo de la personalidad, pero hace todavía más evidente que se trata, también en el acceso, de un remedo del matrimonio que suscitaría igualmente reservas constitucionales (la competencia estatal en tema de relaciones jurídico-civiles relativas a las formas del matrimonio y, de exigirse la constancia en un Registro, de Registros públicos – artículo 149.1.8.ª CE-).

La legislación vasca no puede tampoco escapar de esa suerte de *bucle* de imposible ordenación lógica. En su artículo 3, la Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho, exige la inscripción en un Registro *ad hoc*; por su parte, en la disposición adicional primera se extiende a esas parejas toda la normativa anterior, también la civil, aprobada en la Comunidad Autónoma y aplicable al matrimonio (lo que *supera* la asimilación que en el artículo 9 se realiza a efectos sucesorios). No es difícil ver así una suerte de matrimonio autonómico. Lo que cabe es dudar de su utilidad actual; máxime porque el respeto a la libertad individual necesariamente determina que queden al margen de la regulación todas las parejas auténticamente *de hecho*.

Planteatutako bigarren gaiak ere –bikote kontsideratzeko, baimena beharrezkoa den ala ez– bi ereduak azaleratzen ditu. Bikotearen estatusa egintza eraginkorrenatik aplikatzeak, aurretiazko baimenik adierazi gabe, askatasuna kolokan jartzen du, eta eragindako emaitzak konstituzioaren aldekoak diren zalantza pizten da (EK 32. artikulutik eratortzen den ez ezkontzeko eskubidea hemen bikotea ez sortzeko eskubide bilakatuko litzateke). Beste alde batetik, baimena adierazi beharra askatasunarekin eta nortasunaren garapen librearekin errespetuzkoagoa da, baina are argiago uzten du ezkontzaren kopia bat dela hasieratik eta horrek ere konstituzioaren ikuspuntutik erreserbak eragingo lituzke (ezkontzaren formei dagokien harreman juridiko-zibilei buruzko Estatuaren eskumena eta, erregistro batean inskribatzea galdatuz gero, erregistro publikoen eskumena ere –EK 149.1.8. art.).

Euskal legegintzak ere ezin du ordenazio logikorik eduki ezin dezakeen *bukle* horretatik ihes egin. Izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen 3. artikulua *ad hoc* erregistro batean inskribatzea galdatzen du; beste alde batetik, lehenengo xedapen gehigarrian lege horretan jasotzen den araudia bikote inskribatutako bikoteei zabaltzen zaie, baita zibil arlokoa ere, autonomia erkidegoan onartutakoa eta ezkontzari aplikagarria dena (9. artikuluan oinordetza-efektuekiko egiten den asimilazioa arraz *gainditz*en duena). Horrela, ez da zaila nolabaiteko ezkontza autonomikoa ikustea. Gaur egun erabilgarria den ez dago argi, batez ere, norbanakoen askatasuna errespetatuz gero, benetako *izatezko* bikoteak arauditik

El mantenimiento del *statu quo* actual llevaría, por tanto, a referirse a *cónyuge o pareja de hecho*, y a entender por tal sólo a quien cumpla los requisitos de la Ley 2/2003. Se ha preferido no hacerlo *automáticamente* siquiera como llamada de atención sobre los extremos precedentes. Y es que el resultado final es desconcertante y la situación, contemplada en perspectiva general de institucionalización de pareja, incoherente.

El hecho de que la regulación de las parejas no matrimoniales se haya realizado por parte de Comunidades Autónomas *trufa* el debate de aspectos competenciales y en las líneas precedentes se han destacado algunos. Sin embargo, conviene advertir que la reflexión crítica es de fondo y que, aun siendo de enjundia los temas de competencia, tal reflexión no se conecta en lo sustancial con la diversidad legislativa ligada a la estructura autonómica. Por eso, lo mismo se diría si el Estado legislara sobre las mal llamadas parejas *de hecho* o si (y esto es puramente una hipótesis, dada la interpretación pacífica que se hace de la reserva al Estado en el artículo 149.1.8.^a CE de la competencia sobre *relaciones jurídico-civiles relativas a las formas de matrimonio*) en una Comunidad Autónoma se legislara definiendo los requisitos de constitución de un modelo de pareja matrimonial y otro modelo de pareja paralelo.

Efectuada aquella advertencia, la descripción genérica de las bases debe partir de su división en cuatro grandes grupos, pues son otras tantas las materias que en ellas se contemplan: la sucesión forzosa, los distintos instrumentos de ordenación *mortis causa* (testamento mancomunado o de hermandad, testamento *hil-buruko*, pactos sucesorios), la fiducia sucesoria (u ordenación

kanpo geratzen direla kontuan hartuta.

Egungo *statu quoa* mantentzeak ekarriko luke, beraz, *ezkontideari eta izatezko bikoteari* erreferentzia egitea, eta, bikote gisa, 2/2003 Legeak eskatzen dituen betekizunak betetzen dituen besterik ez hartzea. Hobetsi da *automatikoki* hori ez egitea, esandakoari buruz atentzioa deitzeko bada ere. Izan ere, azken emaitza nahasgarria da eta, egoera, bikotearen instituzionalizazioaren ikuspuntutik begiratuta, koherentziarik gabekoa.

Ezkontzazkoak ez diren bikoteen erregulazioa autonomia erkidegoek egin izanak *engainatzen* du eskumenei buruzko aspektuen debatea eta aurreko lerroetan azpimarratu dira horietariko batzuk. Hala ere, ohartarazi behar da hausnarketa kritikoa sakonekoa dela eta, eskumenei lotutako kontuek garrantzia duten arren, hausnarketa hori ez dela, muinean, egitura autonomikoari atxikitako legegintza-dibertsitatearekin konektatzen. Horregatik, gauza bera esango genuke Estatuak gaizki deitutako *izatezko bikoteei* buruz legezkatuko balu edo (eta hau hipotesia besterik ez da, EK 149.1.8. artikuluan Estatuari erreserbatzen zaion ezkontzaren formei dagokien harreman juridiko-zibilei buruzko eskumenari buruz egiten den interpretazio baketsua dela eta) autonomia erkidego batek legezkatuko balu ezkontzazko bikote eredu bat eta beste bikote eredu paralelo bat sortzeko betekizunak definituz.

Ohartarazpen hura egin ostean, oinarriak lau talde handitan banatzen direla esan beharra dago, lau baitira haietan barnebiltzen diren materiak: derrigorrezko oinordetza, *mortis causa* ordenazio-tresna ezberdinak (testamentu mankomunatu, *hil-buruko* testamentua, oinordetza itunak), oinordetza-fiduzia (edo komisario bidezko ordenazioa), eta, bukatzeko, legezko oinordetza. Gainera, oinordetzari

mediante comisario) y, en fin, la sucesión legal. Tales materias se completan, además, con una serie de previsiones adicionales que abordan ciertas cuestiones de ineludible tratamiento si la nueva normativa sucesoria entrara finalmente en vigor.

En lo que específicamente atañe al primero de aquellos ámbitos, esto es, el de la sucesión forzosa, se ha procurado perfeccionar un régimen uniforme para todo el territorio de la Comunidad Autónoma que, con apoyo en nuestra tradición jurídica, dé respuesta a las necesidades de nuestra sociedad y se adapte a su realidad actual. Más concretamente, la nueva disciplina de sucesión forzosa se erige sobre dos líneas fundamentales: 1.^a Son sujetos con derecho a una cuota de legítima a satisfacer en bienes en plena propiedad tanto los hijos y demás descendientes como los padres y demás ascendientes, si bien se ha adjudicado a aquélla, en ambos casos, una extensión sensiblemente más reducida que la de cualquiera de las hoy conocidas en la CAV (Código civil, Fuero de Bizkaia). La razón para esta merma la aportan datos sociológicos tan evidentes como el de la elevada esperanza de vida de que disfruta la ciudadanía vasca, la cual elimina la función asistencial que el instituto de la legítima colmaba en el pasado respecto de la prole; o sea, comoquiera que los descendientes, cuando heredan, lo hacen en plena madurez y, por tanto, con su vida ya resuelta, no necesitan de aquel recurso para labrarse un futuro, a diferencia de lo que (se convendrá) acontecía hace tan sólo unos años. Pero algo parecido puede aseverarse igualmente respecto de los ascendientes, puesto que, en los raros casos en que sobreviven a su posteridad, sus necesidades vitales ya vienen cubiertas a través de sistemas de previsión pública o privada. Por el contrario, no se ha advertido inconveniente alguno para el establecimiento de una legítima en usufructo en favor del cónyuge viudo con

buruzko araudi-proposamen hau indarrean sartuko bada, lau materia haiek beste ezinbesteko gai batzuk jorratzen dituzten aurreikuspen gehigarriekin osatzen dira.

Lehenengo eremuari dagokionez, derrigorrezko oinordetza, autonomia erkidego osorako erregimen bateratua osatzea izan da helburu; gure tradizio juridikoaren sostenguarekin, gure gizartearen behar izanei erantzun diezaion eta egungo errealitatera egokitu dadin. Zehazki, derrigorrezko oinordetzari buruzko diziplina berria bi zutaberen gainean eraikitzen da: 1. Seme-alabak eta beste ondorengoak zein gurasoak eta beste aurre-ahaideak dira, jabetza osoan, seniparte kuota bat jasotzeko eskubidea duten subjektuak; nahiz eta kuota horiek egun EAEn ezagutzen direnak (Kode zibila, Bizkaiko Forua) baino murriztagoak diren proposamen honetan. Murrizketa horren arrazoia datu soziologiko batek ematen digu: euskal biztanleek bizi-itxaropen altua dute eta horrek iraganean seniparteak ondorengoekiko asetzen zuen asistentzia funtzioa ezabatu egiten du. Ondorengo gehienek heldutasunera heltzean jaraunsten dutenez, bizitza jada konponduta dutenean, ez dute errekurtsio hura behar euren etorkizuna lantzeko, duela urte batzuk gertatzen zen bezala. Antzeko zerbait esan daiteke aurre-ahaideei buruz. Oso kasu gutxitan hiltzen dira euren ondorengoan atzetik eta, hala gertatuz gero, euren beharrak aseak egoten dira aurreikuspen sistema publiko edo pribatuen bitartez. Ordea, ez da arazorik antzeman ezkontide alargunaren alde gozamen-seniparte ezartzeko, egun Bizkaiko foruak jasota daukanaren berdina. Halaber, berau zabaltzea baimentzen da kausatzaileak hala nahi badu -FZZL 61. artikulua onartzen duen bezala-, lerro zuzeneko ahaideen seniparte kargatuz bada ere. Ohikoa da,

idéntica extensión a la prevista en el Fuero vizcaíno, permitiéndose incluso –como hace el último: art. 61 LDCF- su ampliación a voluntad del causante y aun gravando la legítima de los parientes en línea recta. Y es que resulta harto frecuente aquella previsión testamentaria por la que el testador adjudica al supérstite, a título de legado, el usufructo universal de toda la herencia. 2.^a La legítima prevista en favor de los descendientes y ascendientes del causante tiene, al modo de la vizcaína, un carácter *global*, de suerte que el *de cuius* puede distribuirla entre el grupo de parientes según su leal saber y entender; no hay, pues, porciones mínimas intangibles para cada uno de los legitimarios. Se ha adoptado esta solución con la idea de soslayar, ante todo, los graves inconvenientes que un sistema de legítimas individuales plantearía en orden a la transmisión indivisa de las pequeñas y medianas empresas (muy especialmente, las de corte familiar), inconvenientes sobradamente conocidos en Gipuzkoa, en Álava y en la parte no aforada de Bizkaia a causa de la vigencia del Código civil. Recuérdese que ahí radica, precisamente, la génesis de la Ley vasca 3/1999, de 26 de noviembre, de modificación de la Ley 3/1992 en lo relativo al Fuero civil de Gipuzkoa. Ahora bien, sin perjuicio de tal carácter global o colectivo, se ha previsto asimismo, a fin de preservar el principio de solidaridad intergeneracional en el seno de la familia, un eventual derecho de alimentos sucesorios en beneficio de los legitimarios que, a raíz del reparto, incurran en situación de necesidad (directamente inspirado en el ordenamiento vizcaíno), así como unos alimentos reforzados para la persona discapacitada a la que no se hayan dejado bienes suficientes para cubrir las atenciones especiales que pudiera requerir.

La disciplina común que a grandes rasgos se acaba de describir se introduce sin desplazamiento de las especialidades

berez, testamentugileak ezkontide alargunari, testamentu bidez eta legatu tituluz, jaraunspen osoaren gozamen unibertsa esleitzea. 2. Ondorengoen eta aurre-ahaideen alde aurreikusten den seniparteak izaera *orokorra* dauka, eredu bizkaitarrari jarraiki. Kausatzaileak nahi bezala banatu dezake kuota ahaide-taldea osatzen dutenen artean: ez dago, ba, senipartedun bakoitzarentzat gutxieneko zati bat. Erabaki hau hartu da bakarkako seniparteen sistema batek enpresa txiki eta ertainen (batez ere familiakoen) eskualdaketa zatietzinarri begira dakartzan arazoak ekiditeko. Arazo horiek arraz ezagunak dira Gipuzkoan eta Araban, baita Bizkaiko eremu forugabeen ere, Kode zibila bertan aplikatzen delako. Gogora dezagun arazo horrekin lotu behar dela, hain zuzen, azaroaren 26ko 3/1999 euskal Legea, Gipuzkoako Foruari dagokionez 3/1992 Legea aldatu zuena. Senipartearen izaera orokor edo global horrek ez du kentzen, belaunaldien arteko elkartasun printzipioa mantentzearen, oinordetza-mantenu eskubidea (ordenamendu bizkaitarrean inspiratzen dena), banaketaren ondorioz behar izan egoera pairatzen duten senipartedunen alde. Zentzu berean, indartutako mantenu eskubidea aurreikusten da minusbaliatutako pertsonarentzat, bere behar izanak asetzeko ondasun nahiko utzi ez bazaizkio.

Orain arte orokorki deskribatu den diziplina komunak ez ditu Bizkaiko Lur Lauaren eta Aiarako Foruaren berezko

propias de la Tierra Llana vizcaína y del Fuero ayalés, cuyo régimen, contenido en los artículos 53 a 66 y 134 a 139 de la Ley 3/1992, se preserva tal cual a salvo ciertas modificaciones consideradas imprescindibles. Así pues, la entrada en vigor del nuevo régimen vasco de sucesión forzosa no supondría la pérdida de vigencia de aquellos preceptos, ni de instituciones tan arraigadas como la troncalidad vizcaína o la absoluta libertad de disposición ayalesa, que, con las convenientes adaptaciones, pueden aún subsistir a la espera de una ley general de Derecho civil para todo el País Vasco. Nótese, además, que, por lo que hace al singular caso del principio troncal, la sucesión forzosa no constituye sino uno más de los múltiples ámbitos en los que se halla presente, ya que su influjo se extiende igualmente a otras instituciones a las que, sin embargo, no podrían llegar, por definición, estas bases: la saca foral, los derechos familiares de preferente adquisición o el régimen económico matrimonial de comunicación foral. La eliminación, por tanto, de la disciplina vizcaína de sucesión forzosa contenida en la LDCF comportaría una alteración e incluso una quiebra del entero sistema privado de la Tierra Llana, cuya reforma, aun estimándose inaplazable, debe ser, por esto mismo, calibrada y abordada globalmente. Eso sí, se ha procurado al menos redimensionar el aspecto objetivo de la troncalidad constriñéndolo al caserío, constricción que se ha aplicado tanto a la materia de la que ahora se habla como al resto de instituciones forales.

Las presentes bases reivindican el lugar que modernamente corresponde al testamento mancomunado en la delación voluntaria de la sucesión vasca, decantando en su régimen así las exigencias del principio de libertad civil, de honda raigambre foral, como las condiciones para una utilización eficiente de la figura, habida cuenta de las

berezitasunak baztertzen, 3/1992 Legearen 53-66 eta 134-139 artikuluetan jasotzen direnak, hurrenez hurren. Egun arautuak dauden bezala mantentzen dira, ezinbestekoak kontsideratzen diren aldaketa batzuk sartuz. Hala, euskal oinordetza sistema berria indarrean sartzeak ez lituzke araudi berezi haiek kaltetuko, ezta Bizkaiko tronkalitatea edota Aiarako xedatzeko askatasun osoa bezalako errotutako instituzioak ere. Beharrezkoak diren egokitzapenak egin eta gero indarrean jarrai dezakete, Euskal Autonomia Erkidego osorako Zuzenbide zibilari buruzko lege orokorra noiz aterako zain. Ohar gaitzen, gainera, tronkalitateari dagokionez, derrigorrezko oinordetza hura ukitzen duen eremu bat besterik ez dela. Tronkalitatearen eragina oinarri hauek ukitzen ez dituzten beste hainbat instituzioetara zabaltzen da: forusaka, lehentasunez eskuratzeko familia eskubideak edo foru-komunikazioko ezkontza erregimen ekonomikoa. Hala, Bizkaiko Foruak arautzen duen derrigorrezko oinordetzari buruzko erregimena FZZLtik ezabatzeak Lur Lauaren sistema osoaren apurketa ekarriko luke; horregatik, lege haren erreformak, luzaezina izan arren, orekatua eta era globalean landua behar du izan. Hori bai, tronkalitatearen eremu objektiboa birkalibratzeko saiakera egin da eta baserrira mugatzeko erabakia hartu da; muga hori orain jorratzen ari garen materian zein beste foru zuzenbideetan aplikatuko delarik.

Oinarri hauek, testamentu mankomunatuarentzat, euskal oinordetzaren borondatezko delazioan hark garai modernoan merezi duen tokia errebindikatzen dute, bere erregimenean azpimarratuz, bai askatasun zibilaren printzipioaren exigentziak, foruetan oso errotua, bai figura eraginkortasunez erabiltzeko baldintzak, beste formulazio

formulaciones autonómicas más acreditadas. El primer corolario resultante de ambos indicadores coincide en la necesidad de rebasar el estrecho círculo dibujado por el vínculo matrimonial o la inscripción de una convivencia equivalente para poner ese cauce testamentario a disposición de toda la ciudadanía vasca, incluida la que vive al margen de dichas fórmulas. Otra decisión fundamental, perfectamente compatible con dicho principio y aunque no encuentre concordancia foránea, concierne al convencimiento de que la testamentifacción mancomunada debe identificarse con la emancipación, toda vez que no resultan atendibles los argumentos que se esgrimen a favor de habilitar una menor edad para testar en instrumento unipersonal y que la elevación para hacerlo en compañía concuerda con las secuelas de su eventual contenido correspectivo.

Tampoco ha de reputarse desatendido el principio de autonomía por el hecho de tener que encauzarse la propia voluntad sucesoria francamente ante notario, exigencia que, sobre reproducir el correspondiente precepto del Fuero Civil de Gipuzkoa, atiende congruentemente al principio de seguridad jurídica y viabiliza el consejo del experto autorizante.

Enseguida se advertirá que la propuesta identifica el núcleo de la institución con el concepto específico de la correspectividad. Es en las cláusulas correspectivas donde reside, no el concepto de testamento mancomunado, que requiere ser dilatado hasta los confines de la unidad instrumental, sino el contenido natural y más característico del otorgamiento en común; y son ellas las que obstan a la revocación unilateral tras la muerte del cotestador o la dosifican, en cuanto a forma y efectos, durante la vida de ambos. Por eso y en aras al cardinal principio de libertad civil, era ineludible optar por una inteligencia estricta de dicha

autonomikotatik sendoenak eredutzat hartuz. Bi irizpide hauek uztartuz lehenengo ondorio batera iristen gara: tresnaren erabiltzailearen ikuspuntutik, ezkontza loturak edo inskribatutako bikote loturak marrazten duen zirkulu estua gaintzeko beharra dago, testamentu mankomunatua euskal biztanle guztien eskura uzteko, baita lotura-eredu haietatik kanpo bizi direnen eskura ere. Beste oinarrizko erabaki bat, testamentu mankomunatua egiteko gutxieneko gaitasuna emantzipazioarekin lotzea da, beste ordenamendu autonomikoetan hala jasotzen ez bada ere. Ez gatoz bat adingabeei ere testamentu mankomunatua erabiltzeko gaitasuna ematea hobesten dutenekin; izan ere, tresna honek, elkarrekiko xedapenak izan ditzakeen neurrian, gutxieneko adina igotzea komenigarria suertatzen da.

Bestalde, oinordetza-borondatea notario aurrean bideratu beharrak ez du autonomia printzipioa urratzen: Gipuzkoako Foru Zibilean jasotzen den arauari jarraiki, exigentzia hark segurtasun juridikoaren printzipioari so egiten dio eta adituari aholkua emateko aukera eskaintzen dio.

Berehala antzemango da proposamen honek instituzioaren muina elkarrekikotasunarekin identifikatzen duela. Testamentu mankomunatuaren kontzeptua instrumentu-batasunera zabaldu behar bada ere, elkarrekiko xedapenetan dago komunean esleitutakoaren eduki natural eta ezaugarritzkoena. Xedapenok dira testamentugile bat hil ondoren bestearen aldebakarreko errebokazioa galarazten dutenak, baita biak bizi direnean posibilitate hura, formari eta efektuei dagokienez, dosifikatzen dutenak. Horregatik, askatasun zibilaren printzipioaren oinarrian, beharrezkoa zen

correspectividad, refiriéndola en exclusiva al contenido netamente patrimonial de las últimas voluntades concurrentes y renunciando a la “correspectividad por defecto” que realmente se aloja en las recurridas presunciones. En nuestro caso, el signo de las que puedan afectar al testamento mancomunado vierte siempre del lado de la libertad, naturalmente excluyente de que la interconexión haya de ser ritual o explícitamente formulada.

En lo que hace al régimen ideado para la sucesión contractual, éste se construye sobre dos pilares fundamentales. En primer lugar, la adecuación de la normativa a las necesidades de la sociedad actual. Más concretamente, se ha apostado por una modernización del instrumento, propiciando su desapego respecto de ciertas reminiscencias que, si bien justificaban su presencia en el texto de los Fueros, de la Compilación, e incluso – aunque en menor medida-, de la vigente Ley 3/1992, por su arraigo o evocación a un sistema socio-económico bien diverso al que impera hoy en el territorio vasco, resultan prescindibles en las actuales coordenadas de política legislativa, tal y como lo demuestran otras regulaciones civiles de corte autonómico. De ahí que se hayan dejado al arbitrio de los contratantes y carentes de previsión normativa, cuestiones tales como la comunidad de vida entre instituyentes e instituidos, el otorgamiento del pacto en capitulaciones matrimoniales, la operatividad ilimitada del derecho de transmisión cuando premuere el instituido sin dejar descendencia, la posibilidad de que el instituido en virtud de un pacto con transmisión patrimonial diferida disponga de su derecho a título gratuito a favor de sus hijos y descendientes, la incidencia de las crisis matrimoniales en la revocabilidad de la designación efectuada y, en definitiva, la connotación estrictamente familiar y la base eminentemente matrimonial que hasta ahora presidía su otorgamiento. El

elkarrekikotasunaren zentzu hertsia go baten aldeko apustua egitea: soilik izango dute elkarrekiko izaera bat datozen eta ondarezko edukia duten azken borondateek. Presuntzioek eragiten duten sasi elkarrekikotasuna baztertu egiten da. Gure kasuan, testamentu mankomunatuari eragin diezaioketenen izaera askatasunaren aldean erortzen da eta ez du interkonexioa errituala edo esplizituki formulatua izatea galdatzen.

Oinordetza itunaren erregimenari gagozkiola, bi zutaberen gainean eraikitzen dela esan daiteke. Lehenik, araudia egungo gizartearen behar izanetara egokitzea. Zehazki, tresnaren modernizazioaren aldeko apustua egiten da: iraganeko sistema sozio-ekonomiko batean errotuta egoteagatik foruetan, konpilazioan eta, neurri apalago batean, 3/1992 Legean agertzea justifikatua zuten hondar batzuk behin betiko gainditzea, egungo legegintza politikako koordinadetan soberan daudelako, beste erregulazio autonomiko batzuek islatzen duten bezala. Horregatik, itungileen esku eta araudi zehatzik gabe utzi dira zenbait arlo: izendatzaileen eta izendatuen arteko bizitza-komunitatea, ituna ezkontza-kapitulazioetan egitea, izendatua ondorengorik utzi gabe hiltzen den kasuetan transmisio eskubidearen eragin mugagabea, geroratutako transmisioarekin egindako itunean izendatuak bere eskubidea doako tituluz bere seme-alaba eta ondorengoen alde xedatzeko duen aukera, ezkontza krisien eragina izendapena errebokatzeko orduan eta, oro har, ituna orain arte argitzen zuen familia-kutsu zorrotza eta ezkontzazko oinarri nabarmena. Bigarren zutabeak aplikagarria den araudiaren garbiketa teknikoarekin bat egiten du. Aurreko hausnarketarekin sintonian, idazkera argiago, zuzenago eta zehatzago baten aldeko apustua egiteko beharra antzematen da, lege-erreforma batean inplikaturako agente juridikoei eska lekiekeena. Zentzu honetan, oinordetza

segundo cimiento consiste en la depuración técnica de la normativa aplicable. En consonancia con la reflexión anterior, se advierte la necesidad de apostar por una redacción más clara, más directa y más ajustada a la precisión técnica que se demanda de los agentes jurídicos implicados en toda remoción legislativa. En este sentido, se ha optado por prescindir de las presunciones que tratan de acercar, innecesariamente, la ordenación sucesoria contractual a la figura de la donación, así como de la incorrecta equiparación sustantiva entre los capítulos maritales (o la escritura de donación) y el pacto sucesorio. Asimismo, la propuesta se completa con previsiones – hoy inexistentes- en torno a la capacidad de las partes, al carácter personalísimo del otorgamiento, a la modalidad renunciativa y dispositiva del contrato, a la posibilidad de institución recíproca y a la efectuada a favor de tercero, a los efectos de la aceptación del instituido tras la muerte del instituyente, al posible uso del beneficio de inventario, a las consecuencias jurídicas de la falta de consentimiento dual cuando éste es requerido para disponer de los bienes objeto de institución –diferenciando, en el pacto con transmisión patrimonial diferida, entre el integrado por cosas concretas o por una cuota de la herencia del causante-, a los pormenores de la revocación unilateral de la ordenación contractual y, en fin, a la interrelación de las disposiciones contractuales conectadas. Todo ello sumado a la apuesta por el uso de recursos terminológicos más acordes a la precisión técnica que demanda la regulación de este instrumento, y a la coherencia que necesariamente debe latir entre la regulación del pacto sucesorio y la normativa aplicable al resto de instituciones contempladas en este trabajo.

Por su parte, la propuesta de regulación de la ordenación por comisario o fiducia sucesoria viene inspirada tanto por la necesidad de llenar las lagunas y limar

ituna eta dohaintza, beharrezkoa izan gabe, hurbiltzen dituzten presuntzioak alde batera utzi dira; hala nola, oinordetza kontratua eta ezkontza kapitulazioak (edo dohaintza eskritura) funtsean identifikatzea. Halaber, proposamena egun araudian ez dauden beste aurreikuspenekin osatzen da, itungileen gaitasunari buruz, ituna sinatzearen izaera txit pertsonalari buruz, kontratuaren modalitate negatiboari eta xedatzaileari buruz, elkarrekiko izendapenari eta hirugarren alde egindakoari buruz, izendatuaren onarpenak izendatzailea hil ostean eragiten dituen efektuei buruz, inbentario onura erabiltzeko aukerari buruz, izendapenaren objektu diren gauzak xedatzeko bien baimena beharrezkoa izanik batena faltatzearen eraginari buruz –bereiziz, geroratutako transmisiodun itunean gauza zehatzen eta kausatzailearen jaraunspenaren kuota baten artean-, kontratu bidezko ordenazioaren aldebakarreko errebokazioari buruz eta, finean, konektatutako kontratu bidezko xedapenen arteko erlazioari buruz. Hori guztiari gehitu behar zaio, tresna honen erregulazioak eskatzen duen zehaztasun teknikoarekin bat datozen euskarri terminologikoak erabiltzeko apustua, eta oinordetza itunaren eta lan honetan jasotzen diren beste instituzioen artean halabeharrez egon behar duen koherentzia.

Bere aldetik, komisario bidezko ordenazioari edo oinordetza-fiduziari buruzko erregulazio- proposamena arrazoi hauek inspiratzen dute: egun indarrean

ciertas deficiencias técnicas de los vigentes regímenes como por la incorporación de algunas sugerencias doctrinales formuladas a colación de los actuales testamento por comisario (Bizkaia), ordenación por comisario (Gipuzkoa) y usufructo poderoso (Ayala). Ello supone un enriquecimiento y una racionalización de la figura sin que en absoluto se obstaculice o limite ninguna de las finalidades a las que históricamente ha atendido.

En lo que dice a los aspectos subjetivos, dos novedades importantes son la exigencia de que quede circunscrito el ámbito subjetivo al que el comisario debe ceñir su actuación y la interdicción de que pueda designarse como tal a quien pertenezca al grupo de posibles sucesores. En el primer caso se trata de incorporar al diseño legal lo que viene aconteciendo en la práctica y es lógica consecuencia de la responsabilidad que al causante compete en la ordenación de su sucesión; en el segundo lo que se pretende es excluir un conflicto de intereses difícilmente compatible con los fines que alientan y justifican la institución. En este mismo plano subjetivo, se precisa igualmente la capacidad exigible tanto al causante como al comisario, y se fija en la delación el momento relevante a efectos de determinar la aptitud para suceder.

En tema de cauces negociales e instrumentos, se recoge la posibilidad de formalizar el encargo en *simple* escritura pública, proporcionándose así al causante el modo más adecuado para el establecimiento de la fiducia en caso de que no realice otras disposiciones relativas a su sucesión. Por otra parte, la simple escritura pública –o, lo que es igual, la declaración unilateral plasmada en escritura pública– se erige en el modo prototípico de ejecución del encargo, con lo que se supera el tradicional –pero jurídica y técnicamente incorrecto– recurso a la donación.

dauden erregimenek dituzten hutsuneak betetzea eta urritasun teknikoak zuzentzea, eta egungo komisario bidezko testamentuari buruz (Bizkaia), komisario bidezko ordenazioari buruz (Gipuzkoa) eta usufructu ahalmendunari buruz (Aiara) formulatu diren zenbait doktrina-iradokizun gehitzea. Horrek figura aberastea eta arrazionalizatzea dakar, historikoki ase izan dituen helburuak oztopatu edo mugatu gabe.

Aspektu subjektiboei buruz, bi berrikuntza garrantzitsu: komisarioak, bere jarduera, eremu subjektibo mugatu batean aurrera eramateko exigentzia eta oinordeko posibleak komisario izendatzeko debekua. Lehenengo kasua, praktikan gertatzen dena lege-diseinura eramatean datza eta kausatzaileak bere oinordetza ordenatzerakoan duen erantzukizunaren ondorio logikoa da. Bigarren kasuan, instituzioa justifikatzen eta sustatzen duten helburuekin bateratzea zaila den interes gatazka bat baztertzen da. Plano subjektibo honetan bertan, halaber, kausatzaileari zein komisarioari galdatzen zaien gaitasuna zehazten da, eta, delazioan, oinordetzeko gaitasuna finkatzeko momentu egokia ezartzen da.

Komisarioari eginiko enkargua eskritura *sinplean* jasotzeko aukera eskaintzen da. Horrela, kausatzaileari, fiduzia ezartzeko modu egokiena ematen zaio oinordetzari buruzko beste xedapenik egingo ez badu. Beste alde batetik, eskritura publiko sinplea –hau da, eskritura publikoan jasotako aldebakarreko borondate adierazpena– enkargua exekutatzeko modu prototipiko bilakatzen da eta, hala, ez da horretarako dohaintza erabili behar, tradizionalki egin den bezala, nahiz eta juridikoki zein teknikoki aukera ezegokia izan.

Especial atención ha recibido el plazo para la ordenación por parte del comisario. En coherencia con la finalidad de la figura, y tal y como establece el Fuero de Gipuzkoa, se ha limitado la posibilidad de concesión de plazo indefinido a los casos en los que el comisario sea usufructuario vitalicio del caudal a que se refiere su encargo. Además, se ha fijado en dos años el plazo legal y, como medio para la resolución de posibles contingencias y evitación de abusos, se establece tanto la posibilidad de prórroga como de limitación judicial del plazo.

Destacable es también la introducción de la exigencia de liquidación de la sociedad conyugal disuelta para que puedan atribuirse bienes o derechos concretos pertenecientes a la misma. Pues ello –o sea, la determinación del caudal– no es sino un *prius* lógico tanto del cumplimiento de la obligación de realizar inventario como de la ejecución misma del encargo.

El aspecto más llamativo de la regulación propuesta para la sucesión legal (o intestada) consiste en la mejora de la posición del cónyuge viudo, que, frente a lo establecido en el Código civil y el Fuero de Bizkaia, pasa a suceder con preferencia a los ascendientes. Es ésta una tendencia apreciable en las más recientes reformas legislativas de nuestro entorno (así, por ejemplo, en Cataluña –Ley 10/2008, de 10 de julio, del libro cuarto del Código civil de Cataluña, relativo a las sucesiones–) que viene justificada ante todo por la reducción del grupo convivencial desde una familia extensa a otra estrictamente nuclear y por ser una solución netamente ajustada a los deseos de un causante tipo (a salvo, obviamente, situaciones de crisis familiar). Esta novedosa preferencia queda suavizada, en cualquier caso, por la confluencia de varios factores, entre los que destaca especialmente la legítima de un tercio que,

Atentzio berezia jaso du komisarioak burutu beharreko ordenazioa exekutatzeko epeak. Figurak duen helburuarekin koherentzia mantenduz, eta Gipuzkoako Foruak ezartzen duen bezala, komisarioari, mugarik gabeko epea emateko aukera, hura bere enkarguaren oinarrian dagoen jaraunspenaren bizi-artekeo usufruktuduna den kasuetara murriztu da. Halaber, bi urteko legezko epea ezarri da eta, arazo posibleak konpontzeko zein abusuak ekiditeko tresna gisa, epaileak epea luzatzeko edo mugatzeko ahalmena aurreikusi da.

Azpimarratzeko da ere disolbatutako ezkontza-sozietatea likidatzeko exigentzia ezarri izana hari dagozkion ondasun edo eskubide zehatzak esleitu ahal izateko. Jaraunspen-ondarea zein den finkatzea inbentarioa egiteko betebeharraren eta enkargua exekutatzearen *prius* logikoa baita.

Legezko oinordetzaren eremuan proposatzen den araudiaren aspektu deigarriena ezkontide alargunaren posizioaren hobekuntza da: Bizkaiko Foruak eta Kode zibilak diotenaren kontra, hark aurre-ahaideek baino lehen oinordetzen du. Honako hau, gure inguruan eman diren azken legegintza-erreformetan ikus daitekeen tendentzia bat da (hala, adibidez, Katalunian, 10/2008 Legea, uztailaren 10ekoa, Kataluniako Kode Zibilaren laugarren liburuari dagokiona), eta justifikatuta dago elkarbizitza-taldeak jasan duen murrizketagatik, familia zabal batetik hertsiki nuklearra den batera igarotzean, eta baita kausatzaile medioaren desireri hobeto egokitzen den irtenbidea izateagatik. Hala ere, lehenatasun berri hau hainbat faktorek leundu egiten dute. Horien artean honako hau azpimarra daiteke: derrigorrezko oinordetza-eskubide gisa, aurre-ahaideei dagokien

en calidad de derecho sucesorio necesario, compete a todo trance a los ascendientes, legítima que, claro está, también podrán reclamar para sí cuando la sucesión legal se defiera en favor del viudo. El nuevo régimen de sucesión legal se hace extensivo a la Tierra Llana vizcaína, sin perjuicio de la plena operatividad del principio troncal en este territorio.

En fin, las bases se ocupan en delimitar el ámbito subjetivo o personal que correspondería al nuevo régimen sucesorio vasco y el alcance derogatorio y modificativo que tendría respecto de la Ley 3/1992, de 1 de julio, del Derecho Civil Foral del País Vasco, a la par que resuelven ciertas cuestiones de Derecho intertemporal o transitorio.

DISPOSICIONES GENERALES

BASE 1.^a Formas de ordenar la sucesión

La sucesión se defiere por voluntad del causante, expresada en testamento o pacto sucesorio, o por la ley.

En el caso de ordenación por comisario, la ejecución del encargo podrá realizarse, además de en testamento o pacto sucesorio, en simple escritura pública. Los distintos modos de delación son compatibles entre sí.

Concordancias: art. 27 LDCF; art. 658 CC; art. 2 LSAr.; art. 181 LDCG; arts. 6, 7 y 69 CDCB; art. 18 AAVD.

Observaciones: La posibilidad de encargar a otra persona la ordenación de la propia sucesión, determina que ésta no sólo se defiera por voluntad del causante o por la ley. Ésa es ciertamente la referencia conceptual clásica, que parte de que la ordenación voluntaria implica sólo a la voluntad del causante; pero debe ser

hereneko senipartea legezko oinordetza ezkontide alargunaren alde ematen den kasuetan ere erreklamatu ahal izango dutena. Legezko oinordetzaren erregimen berria zabaltzen da Bizkaiko Lur Laura, lurralde honetan tronkalitateak duen eragina baztertu gabe.

Azkenik, oinarriek euskal oinordetza erregimen berriari legokiokeen eremu subjektiboa finkatzen dute, baita hark uztailaren 1eko 3/1992 Euskal Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Legearekiko izango lukeen derogazio eragina ere. Halaber, oinarriek denbora-arteko zuzenbideari eta zuzenbide iragankorrari dagozkien hainbat aspektu erresolbitzen dituzte.

XEDAPEN OROKORRAK

1. OINARRIA. Oinordetza ordenatzeko moduak

Oinordetza gauzatzen da, kausatzailearen borondatearen bidez, testamentuan edo oinordetza itunean adierazia, edota legearen bidez.

Komisarioaren bidezko ordenazioan, enkargua exekutatu ahal izango da testamentuan, oinordetza itunean edo eskritura publiko sinplean.

Delazio modu ezberdinak haien artean bateragarriak dira.

Bat datoz: FZZL 27. art; KZ 658. art; ArOL 2. art; GZZL 181. art; BZZK 6, 7 eta 69. art; EZAA 18. art.

Oharrak: Norberaren oinordetza diseinatzeko enkargua beste pertsona bati egiteko posibilitateak zehazten du oinordetza ez dela soilik kausatzailearen borondatearen bidez edota legearen bidez gauzatzen. Hau da, egian, erreferentzia kontzeptual klasikoa, borondatearen bidezko ordenazioan soilik

completada con la perspectiva que añade la fiducia sucesoria u ordenación por comisario. Esa perspectiva requiere incidir no sólo en que la voluntad ordenadora puede ser la del comisario, sino también en que, en ese caso, la ordenación puede realizarse por un cauce negocial distinto de los típicos actos *mortis causa* que son el testamento y el contrato sucesorio.

DE LA SUCESIÓN TESTAMENTARIA

Capítulo I –Del testamento hil-buruko

BASE 2.ª Régimen

El que, por enfermedad grave u otra causa, se halle en peligro inminente de muerte, podrá otorgar testamento ante tres testigos idóneos sin intervención de Notario y sin necesidad de justificar su ausencia.

No será necesario redactar por escrito el testamento y leerlo al testador cuando no lo permita la urgencia del caso, pero, una vez haya declarado con palabras dispositivas su última voluntad, se escribirá lo antes posible.

Este testamento quedará ineficaz si pasasen dos meses desde que el testador haya salido del peligro de muerte. Si el testador falleciese en dicho plazo, quedará también ineficaz el testamento si no se presenta para su adveración y elevación a escritura pública en la forma prevenida en las leyes procesales dentro de los tres meses siguientes al fallecimiento.

En caso de que, habiendo salido el testador del peligro de muerte, quede incapacitado para otorgar un nuevo testamento, el plazo para la adveración y la elevación a escritura pública será de tres meses contados desde aquel primer instante.

kausatzailearen borondatea barnebiltzen duena, baina oinordetza-fiduziak edo komisario bidezko ordenazioak gehitzen duen ikuspuntuarekin osatu egin behar dena. Ikuspuntu horrek dakar, komisarioaren borondateak oinordetza ordenatu dezakeela azpimarratzea, eta, baita ere, kasu horretan, ordenazioa testamentua eta oinordetza ituna bezalako *mortis causa* tresna tipikoak ez eta beste bide bat erabili daitekeela.

TESTAMENDU BIDEZKO OINORDETZA

I Kapitulua –Hilburuko testamentua

2. OINARRIA. Erregimena

Gaixotasun larria edo beste kausa bat dela eta berehalako heriotza-arriskuan dagoenak testamentua egiletsi ahal izango du, hiru lekuko egokiren aurrean, notarioaren parte hartzerik gabe eta honen absentsia justifikatzeko beharrik gabe.

Ez da derrigorrezkoa izango testamentua idaztea, ezta testamentugileari irakurtzea ere kasuaren urgentziak ahalbidetzen ez duenean, baina, bere azken borondatea hitz xedagarriekin adierazitakoan, lehenbailehen idatziko da.

Testamentu hau eraginik gabe geratuko da testamentugilea heriotza-arriskutik irteten denetik bi hilabete igarotzen badira.

Testamentugilea denbora tarte horretan hilko balitz testamentua eraginik gabe geratuko da testamentu hori ez bada egiaztatzen, prozedurazko legeek agindutako moduan, heriotzaren ondorengo hiru hilabeteetan.

Testamentugilea heriotza-arriskutik atera arren, beste testamentu bat egilesteko ezgaituta geratzen bada, egiaztatze-epea hiru hilabetekoa izango da, testatzailea heriotza-arriskutik atera zenetik zenbatuta.

Concordancias: art. 31 LDCF; leyes 190 y 191 FN; art. 23 AAVD.

Observaciones: Esta base propone generalizar a todo el País Vasco una modalidad testamentaria propia del Derecho vizcaíno, cual es el testamento *hil-buruko*. Como su propio nombre indica, es una forma especial de testar que se caracteriza, en esencia, por el dato de no ser necesaria la intervención de Notario en el acto de su otorgamiento al hallarse el testador en *peligro inminente de muerte*: “Es palabra compuesta de *il*, que significa morir, y de *buruco*, *burucoa*, que significa almohada, cabecera de cama; expresa, pues, la proximidad de la muerte” (JADO Y VENTADES, 1923, p. 264).

Conviene recordar, no obstante, que el Derecho vizcaíno no es el único ordenamiento en el que se regula un testamento de esta clase: una figura prácticamente idéntica al *hil-buruko* es el testamento en peligro de muerte previsto en el artículo 700 del Código civil español, si bien este precepto exige, para su válido otorgamiento, la concurrencia de un mayor número de testigos; en concreto, cinco. De modo que también es conocido en los Territorios Históricos guipuzcoano y alavés, así como en la parte no aforada de Bizkaia.

Precisamente por ello, parece conveniente una regulación *ad hoc* de esta modalidad testamentaria que se extienda al conjunto de la Comunidad Autónoma y que, fusionándolos, tome lo mejor de ambos regímenes y aclare algunos de sus puntos más oscuros. Uno de ellos tiene que ver con uno de los cruciales presupuestos para su otorgamiento, cual es el de si, para hacer uso de él, es necesario probar la imposibilidad de obtener a tiempo la presencia de un Notario, es decir, si ha de acreditarse o no la existencia de un riesgo fundado de que el testador fallezca o pierda sus facultades antes de que aquél acuda. Aunque no se trate de un requisito expresamente exigido por el artículo 700 CC, la jurisprudencia del Tribunal Supremo

Bat datoz: FZZL 31. art; NF 190 eta 191 legeak; EZAA 23. art.

Oharrak: Oinarri honek Bizkaiko zuzenbidearen berezko testamentu mota bat Euskal Autonomia Erkidego osora zabaltzea du helburu: *hilburuko testamentua*. Bere izenak dion bezala, testamentu forma hau berezia da, testamentugilea *berehalako heriotza-arriskuan* egonik, egilesteko egintzan notarioaren parte hartzea beharrezkoa ez delako: “Hitz elkartua da. *Il*, heriotza esan nahi duena, eta *buruco* edo *burucoa*, burkoa esan nahi duena, oheburua, heriotzaren hurbiltasuna adierazten duena” (JADO Y VENTADES, 1923, 264. or).

Komenigarria da gogoratzea, hala ere, Bizkaiko zuzenbidea ez dela mota honetako testamentu bat arautzen duen bakarra: *hilburuko* testamentuaren ia berdina da Espainiako Kode zibilaren 700. artikuluan aurreikusten den heriotza-arriskuan eginiko testamentua; nahiz eta, arau honek, testamentua baliozkotasunez egilesteko, bost lekuko exijitzen dituen. Horrela, ezaguna da ere Gipuzkoako eta Arabako Lurralde Historikoetan, baita Bizkaiko eremu infantzoian ere.

Horregatik, hain zuzen ere, komenigarria suertatzen da testamentu mota honen *ad hoc* erregulazioa Autonomia Erkidego osora zabaltzea eta, bi araudiak fusionatuz, bakoitzetik onena har dezala eta euren puntu ilunetako batzuk argitu ditzala. Horietako batek testamentu mota hau egilesteko ezinbesteko betekizun batekin zer ikusia du, hots, hura erabiltzeko beharrezkoa den frogatzea notario baten parte hartzea garaiz lortzeko ezintasuna. Betekizun hori ez du, espresuki, Kode Zibilaren 700. artikulua exijitzen, baina Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ordenamendu horretan inposatu du: erregela orokorra notarioaren aurrean egilesteko testamentua izanik, *hilburukoa* ezohiko eta aparteko

ha terminado por imponerlo en este ordenamiento con base en la idea de que, siendo la regla general el testamento notarial, éste otro no es sino una modalidad de carácter extraordinario o excepcional. En consecuencia, el testamento otorgado en peligro de muerte ante cinco testigos regulado en el CC sólo puede considerarse perfecto, válido y eficaz, cuando se pruebe que resultó imposible contar con la asistencia de Notario o cuando se pruebe, al menos, que no se prescindió de ella de una manera discrecional o voluntaria, sino en función de la premura del tiempo disponible, de las circunstancias de alejamiento, de la dificultad en las comunicaciones, o de la no localización inmediata. Mas nótese que, a través de este razonamiento, se convierte a este acto *mortis causa*, en contra de lo que parece deseable, en un remedio simplemente subsidiario frente al testamento abierto notarial, cuando lo que se persigue por medio de su regulación es precisamente conceder, atendida la concurrencia de circunstancias excepcionales (peligro inminente de muerte), mayores facilidades ante la dificultad de otorgar testamento en forma ordinaria. De ahí que nuestra base se preocupe de explicitar que no será necesario justificar la ausencia de Notario. Únicamente cabe hablar de negocio jurídico testamentario si concurre, por parte del otorgante, un propósito serio y deliberado de otorgar su última disposición, lo que significa que aquél no ha de limitarse a emitir meras manifestaciones previas o simples previsiones acerca de cómo testará en un futuro, sino que ha de expresar una voluntad *inequívocamente* testamentaria o, lo que es igual, rectamente dirigida a ordenar su sucesión; en definitiva, ha de poner en evidencia su resolución de testar. Esto es lo que quiere significar la base cuando establece que el testamento deberá redactarse por escrito una vez el testador haya declarado con palabras *dispositivas* su última voluntad.

Aunque a tenor del artículo 31 LDCF el

modalitatea da. Ondorioz, Kode zibilean arautzen den eta bost lekukoren aurrean egiletsi behar den heriotza-arriskuan eginiko testamentua bakarrik kontsidera daiteke perfektua, baliozkoa eta eraginkorra notario baten asistentzia lortzea ezinezkoa izan dela frogatuz gero, edota, behintzat, ez dela haren parte hartzea borondatez ukatu baizik eta denbora urritasunagatik, komunikatzeko zailtasunengatik edo urruntasunagatik. Nabarmena da, beraz, hausnarketa hura dela medio, *mortis causa* egintza hau notario aurrean egilesten den testamentu irekiaren ordezkotresna soil gisa konfiguratzeko dela. Eta ez dirudi hori denik helburua. Ezohiko inguruabarrak ematen diren kasuetarako (berehalako heriotza arriskua), testamentua era arruntean egilesteko zailtasunen aurrean testamentugileari erraztasun gehiago ematea da instituzio honen helmuga. Horregatik, gure oinarria arduratzen da notarioaren parte hartze eza justifikatu behar ez dela esteaz. Bakarrik hitz egin daiteke testamentuaz egilesten duenak bere azken xedapena emateko desio serioa eta hausnartua baldin badago. Hala, ez da nahikoa izango egilesten duenak etorkizun batean testamentua nola egingo duen esatea. Ezinbestekoa da, modalitate hau aintzat har dadin, hark bere oinordetza ordenatzeko erabiltzea, *zalantzarik gabe* adieraziz testamentua egin nahi duela. Hori esan nahi du oinarriak azpimarratzen duenean testamentua idatziz jaso beharko dela testamentugileak bere azken borondatea hitz *xedagarriekin* adierazi ondoren.

FZZL 31. artikulua *hilburuko* testamentu

testamento *hil-buruko* vizcaíno puede otorgarse tanto por escrito como de palabra, en este caso se ha decidido descartar la forma verbal a fin de evitar que el contenido de la disposición testamentaria quede confiado única y exclusivamente a la memoria de los testigos, sobre todo, atendida la amplitud de los plazos prescritos para su adveración, elevación a escritura pública y protocolización. Los trámites procesales que habrán de seguirse en relación a estas cuestiones vienen regulados en los artículos 1943 a 1955 de la Ley de Enjuiciamiento Civil de 1881.

Capítulo II –Del testamento mancomunado o de hermandad

BASE 3.ª Concepto

Se considerará mancomunado el testamento siempre que dos personas, tengan o no relación de convivencia o parentesco, dispongan en un solo instrumento y para después de su muerte de todos o parte de sus bienes.

Se reputa igualmente mancomunado el testamento conjunto en el que uno o los dos testadores designan comisario a la misma o distinta persona, para que, tras su muerte, ordene la sucesión correspondiente.

Concordancias: arts. 49.I y 172 LDCF; art. 669 CC; ley 199.I FN; art. 91.3 LSAr.; art. 187.1 LDCG; art. 24.1 AAVD.

Observaciones: A la hora de fijar cuál sea el concepto de testamento mancomunado, las opiniones doctrinales, incluidas las expresadas en el contexto vasco, no terminan de desprenderse del prejuicio de una cierta excepcionalidad de este cauce sucesorio. Más bien, tratan de contrarrestarlo a base de sublimar la interna trabazón de las disposiciones que habitualmente encierra este tipo de testamento y de procurar dejar en la penumbra el clausulado restante del que

bizkaitarra idatziz zein ahoz egiletsi daitekeela badio ere, kasu honetan ahozko forma alde batera uztea erabaki da, testamentuzko xedapenaren edukia lekuko en oroimen soilaren esku ez uztearren, batez ere egiaztarazterako aurreikusten diren epeak zein zabalak diren ikusita. Gai hauetan jarraitu beharreko prozedurazko izapidetzeak 1881ko PZL 1943-1955 artikuluetan jasotzen dira.

II Kapitulua –Testamentu mankomunatua edo ermandadekoa

3. OINARRIA. Kontzeptua

Mankomunatua izango da testamentua betiere bi pertsonak, ahaidetasun edo bizikidetasun harremana dela medio lotuak egon ala ez, hil osterako, haien ondasun guztiak edo ondarearen zati bat soilik, instrumentu bakar batean xedatzen badute. Mankomunatua izango da ere, elkarrekin emandako testamentua, bertan, bi testamentugileek, pertsona bera edo ezberdina komisario izendatuz gero, haien hil ondoren euren oinordetza ordena dezan

Bat datoz: FZZL 49.I eta 172. art; KZ 669. art; NF 199.I legea; ArOL 91.3 art; GZZL 187.1. art; EZAA 24.1 art.

Oharrak: Testamentu mankomunatuaren kontzeptua finkatzeko orduan, doktrina-iritziak, baita euskal testuinguruan adierazitakoak ere, testamentu honen ezohiko izaerari lotuak agertzen dira oraindik. Testamentu mankomunatuak normalean barnebiltzen dituen elkarrekiko klausulak goraiatzen dira, elkarrekikotasunik erakusten ez duten xedapenak gutxietsiz. Hala ere, testamentu forma honek askatasun zibilaren printzipioarekin bat egiten duela

no pueda certificarse la apariencia de correspectividad, cuando no la de recíproco beneficio. Sin embargo, tan pronto como se concede que este peculiar cauce dispositivo entronca directamente con el principio de libertad civil –como así lo proclama la propia Exposición de Motivos de la Ley 3/1992- y con el valor intrínseco en el ofrecimiento de una pluralidad de alternativas instrumentales (que cada vez gana más adeptos incluso en el terreno del Código civil), nada impide reconocer abiertamente que es la conjunción formal el carácter definitorio del testamento mancomunado, o sea, la expresión *mere simultanea* de dos voluntades en un mismo instrumento. El testamento mancomunado o de hermandad deberá acotarse sobre la nota, ineludible y suficiente, de la sobredicha unidad instrumental. Para expresar dicha conjunción formal de voluntades se ha seleccionado el mismo giro que actualmente exhiben los Fueros vizcaíno y guipuzcoano, pues con ello basta para descartar la figura del testamento por adhesión o testamento unipersonalmente otorgado y suscrito por el otro que antaño adicionara la Ley 1ª, del Título XXI del Fuero Nuevo de Bizkaia (“*o el testamento que hiciera el uno, el otro lo loare y aprobar por bueno, o ratificare en vida del testador que muere*”). En efecto, para ser mancomunado, el testamento plural no precisa ningún contenido específico; y para justificar su regulación o su otorgamiento, es ya inútil insistir en que el testamento *verdaderamente* mancomunado es el que se integra por liberalidades recíprocas u otro tipo de disposiciones expresivas de la comunión entre los otorgantes, hasta ahora necesariamente cónyuges o miembros de una pareja inscrita como tal. Una vez normalizada la institución y abierta a testadores exentos de vínculo, convivencia o parentesco, la testamentifacción mancomunada aparece sencillamente como desarrollo natural del principio de libertad civil en el ámbito de la

nabarmenezan -3/1992 Legeak bere zioen adierazpenean onartzen duen bezala-, eta tresna aniztasuna eskaintzeak daukan barne balioaz jabetzean (gero eta aldeko iritzi gehiago jasotzen dituen, baita Kode zibilaren eremuan ere), ezerk ez du eragozten onartzea testamentuaren ezaugarri esanguratsuen formazko bateratzea dela, hau da, bi borondate *mere simultanea* instrumentu berean adieraztea. Testamentu mankomunatua edo ermandadezkoa, beraz, instrumentu-batasun haren inguruan eraiki beharko da. Formazko bateratze hori adierazteko egun Bizkaiko eta Gipuzkoako foruek erabiltzen duten esamolde bera aukeratu da; harekin nahikoa baita Bizkaiko Foru Berriaren XXI Tituluaren 1. Legeak aurreikusitako atxikimendu bidezko testamentua baztertzeko, hots, pertsona bakar batek egiletsitako testamentua eta beste batek onartutakoa. Horrela, mankomunatua izateko, testamentu pluralak ez du behar eduki espezifikorik; eta bere erregulazioa edo egilestea justifikatzeko, jada ez da beharrezkoa azpimarratzea benetan mankomunatua izateko testamentuak elkarrekiko xedapenak barnebildu behar dituela edo, nolabait, egilesten dutenen arteko bateratzea adierazten duten xedapenak gordetzea, orain arte, halabeharrez, ezkontideak edo inskribatutako bikotekideak besterik izan ez daitezkeenak. Behin instituzioa normalizatua eta haien arteko bizikidetasunik edo ahaidetasunik gabeko testamentugileei irekia, testamentu mankomunatua *mortis causa* oinordetzaren eremuan askatasun zibilaren printzipioaren garapen natural gisa agertzen da.

ordenación *mortis causa*.

La segunda parte de la base se propone dar cobertura a la hipótesis en que uno o los dos otorgantes del testamento conjunto deseen utilizarlo, en exclusiva o no, como vehículo para la designación de comisario o para la concreción de las instrucciones a que el designado como tal haya de atenerse en la ejecución de la correspondiente fiducia. Se evitará de este modo el trasvase a este terreno de las vacilaciones que acostumbran a formularse frente al negocio testamentario unipersonal carente de un auténtico acto dispositivo de bienes, supuesto, claro está, que la escueta designación de comisario resulte ajena a la disposición patrimonial *mortis causa* que, sin embargo, habilita y condiciona. Precisamente, esa teórica naturaleza extraña a la disposición patrimonial propiamente dicha, es la que reaparece en estas mismas bases a propósito de la delimitación del carácter correspondiente del contenido testamentario y la que facilita la libérrima revocación individual que naturalmente se asocia a la designación de comisario. Por todo ello, no se pone reparo a que la fiducia pueda traer causa de un testamento conjuntamente otorgado, contenga o no otras disposiciones patrimoniales, por cuanto lo que la institución de la fiducia precisa es de la *forma testamentaria*, y no del testamento en sentido material.

BASE 4.^a Capacidad

Para que el testamento de hermandad sea válido, ambos testadores tienen que hallarse emancipados en el momento del otorgamiento.

Concordancias: no las hay.

Observaciones: Faltan precedentes especificadores de la exigencia de una edad determinada para el otorgamiento de testamento mancomunado, de manera que la ausencia de especificación presenta como suficiente para dicha

Oinarriaren bigarren parteak beste hipotesi bati erantzuten nahi dio; testamentua egilesten dutenek, eksklusiboki edo ez, komisarioa izendatzeko erabili nahi izatea edota jada izendatutakoari argibideak emateko. Horrela, helburu hura betetzeko xedapenezko egintzarik jasotzen ez duen pertsona bakarreko testamentuaren egokitzapen falta adierazi duten zalantzak eremu honetara zabaltzea ekidin nahi izan da, beti ere suposatuta komisarioaren izendapena ondarezko *mortis causa* xedapenetik urrun dagoela, benetan hark hori ahalbidetzen eta baldintzatzen duela jakinik. Hain zuzen, ondarezko xedapenarekin zer ikusirik ez duen izaera teoriko hura oinarri hauetan berriz agertzen da testamentuaren elkarrekiko edukia zein den finkatzeko eta erraztuko du, gainera, komisarioaren izendapenarekin lotzen den aldebakarreko errelokazio ahalmena. Hori guztiagatik, ez zaio trabarik jartzen fiduzia batera egiletsitako testamentu batetik sortzeari, nahiz eta testamentu horrek beste ondorezko xedapenik izan ez. Fiduziak behar duena testamenduzko forma da, ez testamentua bera adiera materialean.

4. OINARRIA. Gaitasuna

Ermandadezko testamentua baliozkoa izateko, testamentugile biek emantzipatuak egon behar dute egilesteko momentuan.

Bat datoz: ez dago bat-etortzerik

Oharrak: Ez dago aurrekaririk testamentu mankomunatua egilesteko adin zehatza adierazten duenik. Gabezia honek nahikoa egiten du, beraz, KZ 663.1. artikulua testamentua egilesteko ezartzen duen beharrezko gaitasun orokorra, sexu bateko

testamentifacción la misma capacidad general exigida para testar, que el artículo 663.1º CC reconoce a los menores de catorce años de uno y otro sexo.

Procede, empero, recordar, ante todo, la sincronización que pudiera verse entre dicho límite de edad y el que posibilita la celebración de matrimonio válido, previa dispensa (art. 48.II CC), conexión apreciable en un ordenamiento que –como el hasta ahora vigente en el País Vasco– sólo reconoce testamentifacción mancomunada a quienes se hallaren unidos en matrimonio (o bajo la fórmula de pareja inscrita). De ahí que, desconectado el testamento conjunto del vínculo que eventualmente uniera a los testadores, no se precisa observar aquel añejo paralelismo en materia de capacidad.

Por otra parte, no ha de olvidarse que es y permanece ajena al testamento mancomunado la mayor parte de las razones que la doctrina ofrece en apoyo de la rebaja de la edad general para testar. No cuenta desde luego el argumento concerniente a la inexistencia de alternativa para la ordenación voluntaria de la propia sucesión, pues, siendo irrefutable que nadie podrá testar por quien no alcance el *plus* de capacidad que para hacerlo mancomunadamente se requiere, es asimismo obvio que, cumplidos los catorce años de edad, podrá hacerlo él mismo por el cauce del testamento unipersonal. Otro tanto ocurre con las consideraciones que inciden en el carácter inocuo y en la libre revocabilidad de las disposiciones testamentarias otorgadas por quien careciere de la teórica madurez.

Por lo que al mancomunado respecta, se ha ponderado el hecho de que, sin desconocer su carácter naturalmente revocable, la revocación será más dificultosa que en el testamento individual, amén de que pueda considerarse excluida en el ámbito de la correspectividad tras el fallecimiento del cotestador. De ahí que se haya venido al

zein besteko hamalau urtekoei onartzen diena, alegia.

Hala ere, gogoratu behar da adin muga haren eta aurretiazko dispentsapean baliozko ezkontza ospatzea ahalbidetzen duenaren arteko sinkronizazioa (KZ 48.II. art); konexio nabarmena Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen ordenamenduarentzat, testamentu mankomunatua egitea ezkontideei edo inskribatutako bikotekideei besterik baimentzen ez diena. Beraz, testamentu bateratua deskonektatu egiten bada testamentugileen arteko loturatik, ez da beharrezkoa gaitasunari buruzko paralelismo zahar hura egun jarraitzea.

Beste alde batetik, ezin daiteke ahaztu ez datozela bat testamentu mankomunatuarekin testamentua egilesteke adin muga orokorra jaistearen aldeko doktrina arrazoiak. Ez du balio argudiatzeak norbere oinordetza ordenatzeko beste aukerarik ez dagoela: dudarik gabe, inork ezingo du testamentu mankomunatua egilesteke exijitzen den gaitasun gehigarria ez duenaren ordeztamenturik egin baina, nabaria denez, norberak egin ahal izango du, pertsona bakarreko testamentuaren bidez, hamalau urte bete baditu. Beste horrenbeste gertatzen da, heldutasun teoriko hura ez duenak egilestekeko testamentuzko xedapenen izaera ez-kaltegarrian eta errebokagarritasun librean eragiten duten hausnarketekin.

Testamentu mankomunatuari dagokionez, bere izaera naturalki errebokagarria ezagututa, nabarmendu da errebokazioa pertsona bakarreko testamentuan baino zailagoa izango dela eta baztertua geratuko dela, elkarrekikotasunaren eremuan, testamentugilekidea hil ondoren. Horregatik, errebokatzeko ahalmena murriztua duen borondatea arduratsuki

convencimiento de que, para emitir responsablemente esa voluntad con mengua de su revocabilidad, no ha de bastar con la capacidad testamentaria general y ha parecido razonable exigir siquiera la emancipación de los otorgantes en cualquiera de sus modalidades. Con todo, es evidente que la referencia a la emancipación –igualmente exigida para el acceso a la ordenación de la propia sucesión a través de fiduciario- deja la exigencia por debajo aún de la capacidad que requiere el otorgamiento de pacto sucesorio en el que la irrevocabilidad aparece como proverbial.

BASE 5.ª Condición personal

Quienes ostenten vecindad civil en el País Vasco pueden testar de mancomún aun fuera de esta Comunidad Autónoma. También podrán testar mancomunadamente, dentro o fuera de su Comunidad autónoma, en unión con otro causante cuya ley personal no le prohíba hacerlo en mancomún.

Concordancias: ley 200 FN; art. 102 LSAr.; art. 188 LDCG; art. 24.2 *in fine* AAVD.

Observaciones: La extraterritorialidad es consecuencia necesaria de tratarse de una actuación regida por la ley personal del testador; y la complementariedad de otro estatuto personal asimismo habilitante, obsequio a la igual consideración de los demás ordenamientos, autonómicos o estatales, españoles o no. La primera de las concreciones es común a todos los ordenamientos autonómicos reguladores del testamento en mancomún; la especificación de la eventual concurrencia de testadores sujetos a diversas leyes personales es previsión que se encuentra únicamente en la regulación aragonesa (art. 102.2 LSAr).

Testar, de manera individual o

adierazteko, ez du nahikoa izan behar testamentua egiteko gaitasun orokorrak. Bi testamentugileen emantzipazioa exijitzea arrazoizkoa dela estimatu da, testamentu mankomunatuaren edozein modalitatetan. Hala ere, nabarmena da emantzipazioari egiten zaion erreferentzia –fiduziario bidezko ordenazioa enkargatzeko ere beharrezkoa dena- oinordetza ituna egilesteke exijitzen denaren azpitik kokatzen dela, honetan errebokatzeko ezintasuna funtsezko elementua baita.

5. OINARRIA. Egoera pertsonala

Euskal auzotasun zibila dutenek testamentu mankomunatua egiletsi ahal izango dute, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo badaude ere. Testamentu mankomunatua egin ahal izango dute ere, haien autonomia erkidegoan edo hartatik kanpo, beste kausatzaile batekin batera, baldin eta honen lege pertsonalak debekatzen ez badio.

Bat datoz: NF 200. legea; ArOL 102. art; GZZL 188. art; EZAA 24.2 *in fine* art.

Oharrak: Lurralde kanpokotasuna honako hau testatzailearen lege pertsonalak araututako jarduera izatearen beharrezko ondorioa da eta baimena ematen duen beste estatutu pertsonal batekiko osagarritasuna, beste ordenamenduekiko berdintasuna, autonomikoak zein estatukoak izan, espainiarrak edo ez. Lehenengo zehaztapena komuna da testamentu mankomunatua arautzen duten ordenamendu autonomikoetan; lege pertsonal ezberdinetara lotuta dauden testamentugileen bateratzea, aldiz, Aragoiko araudiak besterik ez du aurreikusten (ArOL 102.2. art). Testamentua egitea, bakarrik edo

mancomunadamente, no es una simple cuestión de forma, sino que corresponde realmente al fondo de la disposición *mortis causa*. La mayoría de los pareceres doctrinales se encamina a reconocer su pertenencia al terreno sustantivo, sea como tocante a la capacidad del testador, sea como atinente a los cauces o modos de ordenar la propia sucesión, con predominio de la última de estas orientaciones, debido a la imposibilidad de circunscribir la indicada testamentifacción a un tema de capacidad. Afianzada la premisa (cuestión de fondo o elemento sustancial), dicha ubicación conduce inevitablemente a la elección de la ley personal de los intervinientes para solventar los planteamientos conflictivos que la concurrencia ocasiona y a la necesidad de guiarse, en esto, por la ley nacional y por la vecindad civil correspondiente a los testadores (arts. 9.8 y 16.1 CC), condicionantes, por lo pronto, de los ‘emparejamientos’ que habilitan o vetan la pretensión de testar mancomunadamente con quien se hallare sujeto a un estatuto sucesorio diverso. Conforme a la nueva regulación autonómica, quien tuviere vecindad en el País Vasco podrá concurrir testamentariamente con (nacionales o) vecinos de territorios donde se goce igualmente de testamentifacción mancomunada. La posibilidad de otorgamiento, empero, no prejuzga ni resuelve otras cuestiones determinantes de la validez, de la forma o del contenido de ese testamento. Así y por quedarnos en las proximidades, ni en esta ni en otra de las presentes bases se alcanza a precisar –ni acaso podría constitucionalmente hacerse– si el testamento en compañía de quien ostente vecindad civil navarra, aragonesa o gallega, ha de observar necesariamente la forma testamentaria prescrita para el País Vasco –testamento notarial abierto–, resultando insustituible por la habilitada en la regulación navarra o aragonesa (supuesto que la gallega coincide); y tampoco existe preocupación por

mankomunatuki, ez da formazko kontu soila, *mortis causa* xedapenaren muinari baitagokio. Doktrina-iritzien gehiengoak eremu substantiboan kokatzen dute, bai testamentugilearen gaitasunari eragiten diolako, bai norbere oinordetza ordenatzeko tresnei dagokiolako. Azken ildo hau gailentzen da, ez baita posible testamentua egitea bera gaitasun kontu batera mugatzea. Abiapuntua finkatua (sakoneko kontua edo elementu substantiboa), kokapen horrek nahitaez garamatza parte hartzaileen lege pertsonala aukeratzera, bien bateratzeak sorrarazten dituen planteamendu gatazkatsuak konpontzeko eta, gai honetan, testamentugileen lege nazionala eta auzotasun zibila kontuan hartzeko beharrera (KZ 9.8 eta 16.1 art), oinordetza estatutu ezberdin baten pean dagoen norbaitekin testamentu mankomunatua egitea ahalbidetu edo debekatzen duten elementu baldintzatzaileak, alegia. Erregulazio autonomiko berriaren arabera, euskal auzotasun zibila duenak testamentu mankomunatua egin ahal izango du aukera hau jasotzen duten lurraldeetako auzokideekin (nazionalak edo ez). Egilesteko aukerak ez ditu baliozkotasuna finkatzen duten beste hainbat kontu konpontzen, testamentu haren formari edo edukiari buruz. Hala, eta hurbiletik begiratur, oinarri hauetan ez da finkatzen –eta ziur asko ezingo litzateke egin Konstituzioa errespetatuz– testamentu mankomunatua Nafarroako, Aragoiko edo Galiziako auzotasun zibila duen batekin eginez gero Euskal Autonomia Erkidegorako aurreikusten den testamentu forma derrigorrez jarraitu behar den – notario aurreko testamentu irekia-, Nafarroako eta Aragoiko araudiek ezartzen dutenarekin ordezkatu ezin delarik (Galiziakoak bat egiten du). Lurralde-arteko aldibereko testamentu hura zein araudiren arabera errebokatu ahal izango den ere zehazteko kezkarik ez da agertzen.

especificar conforme a qué normativa se podrá revocar ese testamento simultáneo y subjetivamente interregional.

Concordancias: arts. 35 y 166 LDCF; art. 126 LSAr.; art. 33 AAVD.

Observaciones: Tal y como se indica en la base, la prohibición de revocar las disposiciones testamentarias del causante, solo tiene sentido referirla a las realizadas para el caso de que el comisario no ejecutara total o parcialmente el encargo. Y es que si el causante hubiera dispuesto testamentariamente de una parte del caudal sin ese carácter preventivo, tales disposiciones desplegarían efecto al momento de apertura de la sucesión y ya, por principio, serían irrevocables.

BASE 47.^a Ejecución del encargo

Salvo previsión en contrario del causante, el comisario podrá ejecutar el encargo en uno o varios actos y realizar una nueva ordenación si la anterior deviene ineficaz. Si el comisario fuera usufructuario vitalicio del caudal, podrá llevar a cabo la ordenación en testamento abierto notarial o contrato sucesorio. En cualquier otro caso, deberá realizarse en simple escritura pública. La ordenación llevada a cabo en testamento sólo surtirá efectos al fallecimiento del comisario, por lo que será libremente revocable. El comisario deberá expresar si efectúa la designación de sucesor a título universal o particular.

46. OINARRIA. Komisarioaren ahalmenak

Komisarioak bere kargua baliatuko du kausatzaileak ezarritakoaren arabera. Bestela, komisarioari berez dagozkion ahalmen guztiak izango ditu, arauketa honetatik eratorritako salbuespenekin. Aipatze bidezko baimenik izan ezean, komisarioak ezin izango du errebotatu kausatzaileak prebentziozko erabakiak ezarritz emandako testamentua, ez osorik ez zati batean bakarrik.

Bat datoz: FZZL 35 eta 166. artk.; ArOL 126. art.; EZAA 33. art.

Oharrak: Oinarrian bertan adierazten denez, kausatzaileak emandako testamentu-xedapenak errebotatzeko debekuak zentzua du kasu honentzat soilik: komisarioak bere enkargua guztiz edo zati batean exekututzen ez duenean. Izan ere, kausatzaileak bere ondarearen zatiz batez xedatu badu testamentuan prebentziozko erabakia izan gabe, xedapen horiek eraginak sortuko dituzte oinordetza irekitzen den momentutik eta, orduan, berez dira errebotaezinak.

47. OINARRIA. Enkargua exekutatzea

Kausatzaileak kontrakorik esan ezean, komisarioak enkargua exekuta dezake egintza bat edo gehiagotan, eta egindakoa ez-efikaza suertatuz gero, beste ordenazio berria egin. Ondarearen usufruktuduna balitz hil arte, ordenazioa egin ahal izango du notarioaren aurreko testamentu irekian edo oinordetza-kontratuan. Beste kasu guztietan, eskritura publiko soilean egin beharko da. Testamentuan egindako ordenazioak, komisarioa hiltzen denetik aurrera bakarrik izango ditu eraginak, beraz errebotatzeko askatasuna badago. Komisarioak aipatze bidez adierazi behar du oinordekoa izendatzea titulu unibertsalez edo partikularrez den.

Concordancias: arts. 45, 46 y 170 LDCF; art. 831.1.II CC; art. 141 LSAr.; leyes 285.II y 286 FN; arts. 424-2 y 424-7.1 CCCat.; arts. 19 y 71.II CDCB; arts. 42 y 43.1 y 2 AAVD.

Observaciones: El comisario ordena la sucesión del causante, de manera que, aunque gráfica, no resulte apropiada la tradicional referencia a la posibilidad de ejecutar el encargo mediante actos *inter vivos* o *mortis causa*. Por ello, en lugar de actos *inter vivos*, se ha preferido hablar de ordenación en *simple* escritura pública. Podrá de esta manera realizarse la designación mediante acto unilateral, que es lo que resulta razonable tratándose de ordenación sucesoria y obviar el tradicional y cuestionable recurso a la donación: como acto bilateral, la donación requiere para su validez el concurso de dos consentimientos; pero tratándose, como se trata, de una ordenación sucesoria, el consentimiento del sucesor no debe erigirse en requisito de validez del acto ordenador sino de adquisición de su derecho sucesorio.

La circunscripción de la posibilidad del recurso al testamento a los supuestos en los que el comisario es usufructuario vitalicio, se explica porque sólo en este caso tiene sentido que la ordenación no produzca efectos hasta el fallecimiento del comisario. Y es que el testamento del comisario, aunque en el mismo se ejecute el encargo, es siempre un acto revocable. En la ordenación por comisario no hay, no puede haberla porque no cabe representar a un fallecido, representación *post mortem*. Por eso debe superarse la tradicional, e incompatible con el actual estadio de las ideas jurídicas, concepción del Derecho vizcaíno de entender que el testamento en el que el comisario ordena la sucesión del causante es el testamento de éste y que, como regla general, produce efectos desde su otorgamiento.

Bat datoz: FZZL 45, 46 eta 170. artk.; KZ 831.1II art.; ArOL 141. art.; NF 285.II eta 286. legeak; KatKZ 424-2 eta 424.7.1 artk.; BZZK 19 eta 71.II artk.; EZAA 42 eta 43.1 eta 2 artk.

Oharrak: Komisarioak, kausatzailearen oinordetza ordenatzen du, baina, grafikoa izan arren, enkargua exekutatzeko ohiko modua, hau da *inter vivos* edo *mortis causa* diren egintzen bidez egiteko aukera aipatzea egokia izan gabe. Horregatik, *inter vivos* den egintzaz hitz egin ordez, eskritura publiko soilean ordenatzeaz hitz egiten da. Horrela, izendapena egin daiteke aldebakarreko egintza bidez, hori baita arrazoizkoena oinordetza ordenatzeaz aritzean, eta ohikoa baina zalantzazkoa den dohaintzaren bidea alde batera utzi: dohaintzak, aldebiko egintza denez, baliozkoa izateko bi adostasun batera etortzea eskatzen du; baina, kontua bada oinordetza ordenatzea, eta hala da, oinordekoaren adostasuna ezin bihur daiteke egintza ordenatzailea baliozkoa izateko betekizun, bai ordea oinordetza-eskubidea eskuratzeko ukanbehar. Izendapena testamentuaren bidez egiteko aukera, hil arteko usufruktuduna den komisarioari bakarrik ematen zaio, eta horrek badu bere azalpena: komisarioa hiltzen den momentu arte ordenazioak eraginik ez izatea kasu horretan bakarrik du zentzua. Izan ere, komisarioaren testamentua, enkargua bertan betetzen bada ere, deseman baitaiteke beti. Komisario bidez ordenatutako oinordetzan, *post mortem* den ordezkariarik ez dago, hildako norbaitek ordezkariarik ez baitu. Bizkaiko zuzenbidearen tradizioan egon arren egungo ideia juridikoekin bat ez datorren ikuskera hau gainditu behar da: komisarioaren testamentua, kausatzailearen oinordetza ordenatzen duena, beronena dela ulertzea, eta oro har eman denetik sortu dituela eraginak.

BASE 48.^a Extinción y falta de eficacia del encargo

El encargo se extinguirá o no alcanzará eficacia: 1.- Por las causas previstas por el causante. 2.- Por revocación. 3.- Por expiración del plazo. 4.- Por muerte, declaración de fallecimiento, imposibilidad o incapacidad del comisario. 5.- En el caso del cónyuge comisario, y a salvo otra disposición por parte del causante, por la presentación, con posterioridad a su nombramiento, de la demanda de separación, divorcio o nulidad. 6.- Si el comisario es el cónyuge superviviente, por contraer nuevo matrimonio o mantener una relación análoga a la conyugal, a no ser que otra cosa hubiera establecido el causante. 7.- Por renuncia del comisario. 8.- Por incurrir en causa de desheredación o indignidad para con el causante o sus descendientes.

La extinción del encargo no afectará a los actos de ordenación del comisario realizados en simple escritura pública o en contrato sucesorio. Sin embargo, no alcanzará eficacia la ordenación realizada en testamento.

Si el encargo no alcanza eficacia o se extingue, los destinatarios del caudal serán las personas entre las que había de realizarse la ordenación. En caso de extinción, su capacidad se determinará cuando la misma se produzca.

Concordancias: arts. 48 y 171 LDCF; art. 831.5 CC; arts. 147 y 148 LSAr.; leyes 284 I-II y 288 FN; art. 202 LDCG; art. 22 CDCB; art. 45 AAVD.

Observaciones: Ha sido tradicional referirse en el Derecho vasco a causas de *extinción* del poder ordenador. Pero no todas las circunstancias enumeradas en los arts. 48 y 171 LDCF lo son propiamente de extinción, pues para ello sería necesario que el nombramiento hubiera sido eficaz. Así, mientras algunas causas impedirán que el nombramiento surta

48. OINARRIA. Enkargua iraungitzea eta eraginik ez izatea

Enkargua iraungiko da edo hark eraginik ez du sortuko: 1.- Kausatzaileak aurreikusitako kausengatik. 2.- Errebokazioz. 3.- Epea amaitzeagatik. 4.- Komisarioa hiltzen bada, hiltzat edo ezgai deklaritzen bada, edo hari ezinezkoa bazaio enkargua betetzea. 5.- Komisario ezkontidea baldin bada, eta kausatzaileak bestelakorik xedatu ez badu, banantzeko, dibortziatzeko edo deuseztatzeko demanda aurkezten bada izendapen hori egin ostean. 6.- Komisarioa, bizirik dirauen ezkontidea baldin bada, berriz ezkontzeagatik edo ezkontza-erlazioaren antzekoa baldin badu hark, kausatzaileak bestelakorik adierazi ezean. 7.- Komisario beraren errenuntziatzeaz. 8.- Oinorde gabetzeko edo ezduintasuneko kausan erortzeagatik, kausatzailea edo horren ondorengoekiko.

Komisarioak eskritura publiko soilean edo oinordetza-kontratuan egindako ordenatze-egintzak ez ditu ukituko enkargua iraungitzeak. Hala ere, testamentuan egindako ordenazioak ez du efikaziari lortuko.

Enkarguak ez badu efikaziarik lortzen edo hura iraungitzen bada, ondasuntzaren jasotzaile izango dira ordenazioan parte izan behar zuten pertsonak. Iraungi egin den kasuan, horien gaitasun hura gertatu den momentuan zehaztuko da.

Bat datoz: FZLL 48 eta 171 artk.; KZ 831.5 art.; ArOL 147 eta 148 artk.; NF 284 I-II eta 288 legeak; GZZL 202 art.; BZZK 22 art.; EZAA 45 art.

Oharrak: Euskal zuzenbidearen tradizioan ohikoa izan da botere ordenatzailea *iraungitzeko* kausak aipatzea. Baina, FZZL 48 eta 171 artikuluetan jasotako inguruabar guztiak ez dira, izaeraz, iraungitzekoak, horretarako beharrezkoa bailitzateke egindako izendapena efikaziaduna izatea. Hala, kausa batzuk, egindako izendapenak

efecto, otras determinarán efectivamente la extinción del encargo. Ciertas causas, empero, podrán producir un efecto u otro en función del momento en el que acaezcan.

Lógicamente, la extinción del poder no afectará a las disposiciones que ya han desplegado su eficacia. Tampoco a aquellas que, como los contratos sucesorios, generan una vinculación y no son libremente revocables. Pero sí habrá de hacerlo a las designaciones o atribuciones que sólo desplegarían efectos a la muerte del comisario y que hasta entonces podrían ser revocadas.

Aunque a menudo se señala que la ineficacia o extinción de la fiducia daría lugar a la apertura de la sucesión legal para el caudal pendiente de asignación, más razonable es respetar el criterio del causante y entender que las personas entre las que había de realizarse la ordenación serán las destinatarias del caudal.

DE LA SUCESIÓN FORZOSA

BASE 49.^a Régimen general y especialidades

A salvo las singularidades que establece la Ley 3/1992, de 1 de julio, del Derecho Civil Foral del País Vasco, para la Tierra Llana en Bizkaia y para Llodio, Aramaio y la Tierra de Ayala en el Territorio Histórico de Álava, regirá en todo el territorio de la Comunidad Autónoma Vasca un régimen único de sucesión forzosa.

Concordancias: no las hay.

Observaciones: Los inconvenientes de la fragmentación legislativa que en el ámbito del Derecho civil padece, hoy, el País Vasco se hacen sentir especialmente en sede de sucesión forzosa, pues concurren en su territorio hasta cuatro regímenes legitimarios diversos; a saber, los propios del Fuero civil de Bizkaia, del Fuero de

eraginik ez izatea ekartzen duten bezala, beste batzuk enkargua iraungitzea sortuko dute. Zenbait kausek, dena den, efektu bat edo bestea eragingo dute gertatzen diren komentuaeren arabera.

Boterea iraungitzeak, noski, efikaziarik izan duten xedapenen gain ez du eraginik izango. Hark, lotura bat sorrarazi eta libreki deseman ezin diren haien gain ere ez du eraginik izango, hala nola oinordetza-kontratuen gain. Aldiz, komisarioa hiltzen den momentuan efektuak sortzen dituzten izendapenak edo esleipenak, ordura arte errebokatu zintezkeenak, ukituko ditu. Fiduziak eraginik ez izateak edo iraungitzeak, esleitzeko geratzen den ondasuntzarentzat legeko oinordetza irekiaraziko lukeela askotan adierazten bada ere, zentzuzkoagoa da kausatzailearen iritzia errespetatzea eta, ulertzea, ondasuntzaren jasotzaile izango direla, ordenazioan parte izan behar zuten pertsonak.

NAHITAEZKO OINORDETZA

49. OINARRIA. Eraentza orokorra eta berezitasunak

Euskal herriko Foru Zuzenbide Zibilarri buruzko 3/1992 Legeak, uztailaren lekoak, Bizkaian Lur Lauarentzat eta Arabako Lurralde Historikoan Laudio, Aramaio eta Aiarako Lurraldearentzat ezarritako berezitasunak salbu utziz, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan nahitaezko oinordetzari buruzko eraentza bakarra izango da indarrean.

Bat datoz: ezerekin ez.

Oharrak: Zuzenbide zibilaren esparruan Euskal Herriak, egun, jasaten duen legezaketak sortutako arazoek, bereziki alor honetan dute indar berezia: nahitaezko oinordetzan. Izan ere, autonomia-lurraldean seniparteei buruzko lau eraentza desberdin daude; hain zuzen, Bizkaiko Foru zibilekoa, Aiarako

Ayala, del Fuero de Gipuzkoa y del Código civil. Resulta, por tanto, imprescindible e insoslayable el establecimiento en esta materia de un régimen uniforme que se adecue y responda a las necesidades actuales de la sociedad vasca y que permita superar en la medida de lo posible aquella irracional y costosísima división. Sin embargo, ello no impide la preservación, en forma de especialidades, de ciertas instituciones – debidamente actualizadas y remozadas– con singular arraigo en algunos de nuestros territorios y, así, la troncalidad en el caso de Bizkaia o la irrestricta libertad de testar existente en la Tierra de Ayala.

Forukoa, Gipuzkoako Forukoa eta Kode Zibilekoa. Ezinbestekoa eta geroratu ezineko erabakia suertatzen da, beraz, gai horri buruz eraentza bateratu bat ezartzea, gaur egun euskal gizarteak dauzkan beharrei erantzuteko eta, batik bat, zentzurik gabeko eta kostu handiko zatiketa hori, ahal den heinean behintzat, gainditzeko. Hala eta guztiz ere, horrek ez du eragozten, berezitasun modura, hainbat erakunderi bizirik eustea –behar bezala eguneratu eta egokitu ostean–, gure lurralde batzuetan sendo txertaturik daudelako, hala nola oinetxekotasuna Bizkaian edo testamentua mugarik gabe askatasunez egiteko aukera Aiaran.

Capítulo I – Del régimen general

BASE 50.^a Sujetos

Serán sucesores forzosos o legitimarios los hijos y demás descendientes y, a falta de ellos, los padres y demás ascendientes. Asimismo el cónyuge viudo disfrutará, con independencia de si concurren o no a la sucesión parientes en línea recta, de una legítima en usufructo, siempre que, al instante de la apertura de la sucesión, no se halle separado de su consorte judicialmente o de hecho.

Ostentarán la condición de legitimarios todos los sujetos comprendidos dentro del grupo de descendientes o, en su caso, de ascendientes. Sin embargo, aquellos que sean más próximos en grado al causante merecerán la consideración de sucesores forzosos preferentes o inmediatos frente a los más lejanos o mediatos.

Los descendientes de un descendiente que sea sucesor forzoso preferente le representarán por estirpes en su condición de tal cuando aquél haya premuerto al causante, haya sido desheredado con causa legal o declarado indigno de suceder.

Concordancias: arts. 53 y 134.2 LDCF; arts. 807 y 834 CC; art. 47 AAVD.

I. Kapitulua – Eraentza orokorra

50. OINARRIA. Subjektuak

Nahitaezko oinordeko edo senipartedun izango dira umeak eta ondorengoak eta, horien ezean, gurasoak eta aurrekoak. Halaber, ezkontide alargunak, lerro zuzeneko ahaideek oinordetzan parte hartzen duten edo ez kontuan izan gabe, seniparterik izango du usufruktuan, beti ere, oinordetza irekitzeko momentuan, bere ezkontidearengandik judizioz edo egitatez bananduta ez badago.

Senipartedun kondizioa izango du ondorengoan edo, bere kasuan, aurreahaideen talde barruan aurkitzen den subjektu orok. Hala ere, kausatzailearekiko graduan hurbilago daudenek, nahitaezko oinordeko izango dira lehentasunez edo berehala, urrunagokoak direnen aurretik.

Lehentasunez nahitaezko oinordeko den ondorengo baten ondorengoek, hura ordezkaturiko dute haren kondizioan kausatzailea baino lehenago hil izan balitz, legezko kausarik badelako desheredatua izan bada edo oinorde izateko ez duin deklaraturia izan bada.

Bat datoz: FZZL 53 eta 134.2 artk.: KZ 807 eta 834 artk.; EZAA 47 art.

Observaciones: En las más recientes reformas legislativas en materia de sucesiones se aprecia una tendencia a la supresión de la legítima de los ascendientes; así ha ocurrido, por ejemplo, en Francia (Ley n.º 2006-728 de 23 de junio de 2006 –antiguos arts. 914 y 916 del *Code-*) o, más próximamente, en Galicia (Ley 2/2006, de 14 de junio, de Derecho civil –art. 146.2 de la derogada Ley 4/1995, de 24 de mayo-). Dicho fenómeno se explica, ante todo, por la elevada expectativa de vida de la que disfrutan hoy día los ciudadanos en las sociedades desarrolladas. Piénsese, en efecto, que semejante circunstancia convierte a la legítima de los ascendientes en una figura excepcional y de extrañísima aplicación, puesto que, a la muerte del causante, sus ascendientes normalmente habrán fallecido ya. Esa idea, sumada al dato de la existencia de sistemas de previsión pública (pensiones de jubilación) y privada (fondos y planes de pensiones), que permiten a los ascendientes cubrir sus necesidades vitales, convierten a este derecho legitimario en una figura relativamente superflua. Sin embargo, el principio de solidaridad intergeneracional y la conveniencia de suavizar la onerosa carga a la que han de hacer frente las distintas Administraciones Públicas para atender las necesidades de una población cada vez más envejecida podrían aconsejar su mantenimiento en unas dimensiones más reducidas de las hasta el momento conocidas.

La discriminación entre sucesores forzosos preferentes o inmediatos y otros más relegados o mediatos se explica por el carácter global que se asigna a su expectativa sucesoria y la consiguiente conveniencia de diferenciar los respectivos derechos que ostentan en cuanto a ella, más consistentes en el primero de los casos y más débiles en el segundo. Dicho de otro modo: aunque todos los descendientes o, en su caso, todos los ascendientes sean sucesores

Oharrak: Oinordetza gaietan azken aldian izan diren lege-erreformetan, joera hau agertzen da: aurre-ahaideak seniparteaz gabetzen dira; hori gertatu da, esate baterako, Frantzia (Lege 2006-728, 2006ko ekainaren 23koa –*Code delakoaren* lehengo 914 eta 916 artikulak-) edo, gertuago, Galizian (Lege 2/2006, ekainaren 14koa, zuzenbide zibilar buruzkoa –derogatutako Lege 4/1995, maiatzaren 24koaren 146.2 art.). Joera horren arrazoia da, bereziki, egungo gizarte garatuenetan hiritarrek daukaten urte luzez bizitzeko itxaropena. Ikusi besterik ez da, halaber, inguruabar horretan aurre-ahaideek senipartedun izateko aukera urria izan eta salbuespenezko kasuetan bakarrik gertatu eta aplikatu ohi dela, gehienetan kausatzailea hiltzean horrek bere aurre-ahaideak hilik baitaizka. Ideia horrek eta, horrekin batera, aurreikuspen sistema publikoak (erretiro-pentsioak) eta pribatuak (pentsio-fondo eta planak) hedatuta egoteak, aurre-ahaideek beren beharrak aseta izatea bideratzen dute, eta hartara seniparterako eskubidearen beharrik ez izatea suertatzen zaie aurre-ahaideei. Hala ere, belaunaldien arteko solidaritatek batetik, eta geroz eta zaharkituagoa den biztanleriaren premi garestiei aurre egiteko Administrazio publiko desberdinek daukaten diru-behar larriak arintzen laguntzeko bestetik, eskatzen dute seniparte horri eustea, bere garrantzia egokitu eta oraindaino izan dituen maila eta eduki urriagoarekin bada ere.

Nahitaezko oinordekoetan bereiztea lehentasunezkoak edo berehalakoak eta atzeratuak edo urrunagokoak badu bere zioa: haiek oinordetza jasotzeko duten itxaropena orokorra da eta, ondorioz, komeni da bereiztea haren bakoitzak daukan eskubidea, sendoagoa dena lehenengo haien kasuan eta, noski, ahulagoa bigarren haien kasuan. Beste modu batera esanda: ondorengo guztiguztiak edo, bere kasuan, aurre-ahaide guztiak nahitaezko oinordekoak badira

forzosos, no todos ostentan la misma posición frente a la legítima. Tal discriminación –que, por otra parte, resulta perfectamente lógica en cualquier supuesto legal de concurrencia parental para ordenar los derechos y expectativas de que se trate (así ocurre, verbigracia, en la sucesión intestada)- es imprescindible para determinar el régimen de la preterición no intencional.

BASE 51.^a Cuantía

Constituirá la legítima de los descendientes la mitad del caudal fijado conforme a las directrices de la base 52.^a, salvo cuando exista uno solo, en cuyo caso será de una cuarta parte.

Constituirá la legítima de los ascendientes la tercera parte del caudal fijado conforme a las directrices de la base 52.^a, salvo cuando exista uno solo, en cuyo caso será de un cuarto.

La legítima del cónyuge viudo estará constituida por el usufructo de la mitad del caudal fijado conforme a las directrices de la base 52.^a cuando concorra a la sucesión con descendientes o ascendientes. Si no concurriesen parientes en línea recta, su usufructo se extenderá a dos tercios de ese mismo caudal.

Concordancias: arts. 55, 56 y 58 LDCF; arts. 808 y 809 CC; arts. 42 y 79 CDCB; arts. 49 y 52 AAVD.

Observaciones: Esta base propugna el establecimiento de una legítima común de dimensiones más reducidas que las previstas por el Código civil (dos tercios para los descendientes y la mitad para los ascendientes) o por el Fuero de Bizkaia (cuatro quintos para los descendientes y la mitad, también, para los ascendientes). La reducción se justifica en la medida en que unas legítimas tan vastas como las hoy vigentes en el País Vasco han perdido totalmente su razón de ser: en primer lugar, porque responden a las necesidades

ere, guztiek ez daukate posizio berdin-berdina senipartearen aurrean. Bereizketa hori –bestalde, erabat logikoa bereizketa dena ezein eskubide eta itxaropen antolatze eta ordenatzeko hainbat ahaideek parte hartzen duten legezko suposamendu orotan (esate baterako, testamenturik gabeko oinordetzan)- behar-beharrezkoa da intentziorik gabeko preterizioaren eraentza zehazteko.

51. OINARRIA. Zenbatekoa

Ondorengo seniparte, 52. oinarriko irizpideen arabera zehaztutako ondasuntzaren erdia izango da, baldin eta ondorengoa bakarra ez bada, orduan haren laurdena izango baita.

Aurre-ahaideen seniparte, 52. oinarriko irizpideen arabera zehaztutako ondasuntzaren herena izango da, baldin eta aurrekoa bakarra ez bada, orduan haren laurdena izango baita.

Ezkontide alargunaren seniparte, 52. oinarriko irizpideen arabera zehaztutako ondasuntzaren erdiaren gaineko usufruktua izango da, beti ere ondorengoekin edo aurre-ahaideekin batera aurkitzen bada oinordetzan. Lerro zuzeneko ahaiderik ez badago, ondasuntza horren heren biren gain izango da usufruktua.

Bat dato: FZZL 55, 56 eta 58 artk.; KZ 808 eta 809 artk.; BZZK 42 eta 79 artk.; EZAA 49 eta 52 artk.

Oharrak: Oinarri honek proposatzen duenez, seniparte komun bat ezartzen da, baina neurritz txikiagoa Kode zibilean (heren bi ondorengoentzat eta erdia aurre-ahaideentzat) edo Bizkaiko Foruan (bosten lau ondorengoentzat eta hemen ere erdia aurre-ahaideentzat) aurreikusten denarekin alderatuz. Murrizketa horren arrazoia da, hain zuzen ere, gaur egun euskal erkidegoan indarrean diren seniparteek, oso zabalak, hasieran zuten zentzua erabat galdu dutela: alde batetik, bizi-itxaropena oso txikia den gizarte

de una sociedad en la que la expectativa de vida es muy baja (la del siglo XIX, en el caso del Código, y la del siglo XVI en el caso de Bizkaia –Fuero Nuevo de 1526-), ya que sólo en esa tesitura la legítima amplia colma una función real, a saber, proporcionar el sustento imprescindible a unos hijos que todavía se hallan en la minoría de edad cuando mueren sus padres; sin embargo, en una sociedad como la actual, en la que la esperanza de vida es elevadísima, los hijos heredan a sus progenitores en una etapa muy avanzada de su madurez, lo que significa que los primeros tienen ya, en ese instante, resuelta y enderezada su vida. En segundo lugar, porque, como ya se ha apuntado, la legítima de los ascendientes es, por idéntica razón (altísimas expectativas de vida), una figura de muy rara aplicación, lo que le dota de un carácter residual; aparte de que tampoco cabe asignarle una misión asistencial en tanto en cuanto los mayores ya subvienen a sus propias necesidades a través de sistemas de previsión pública (pensiones de jubilación) y privada (fondos y planes de pensiones). En fin, se aboga por aquella reducción porque la correlativa ampliación que de este modo se obtendría de la parte de libre disposición permitiría satisfacer una reivindicación muy generalizada en los ambientes urbanos: otorgar al causante mayores posibilidades en orden al favorecimiento del cónyuge viudo.

Se propone, además, una legítima de cuantía variable, que menguará cuando exista un único descendiente o ascendiente. La solución encuentra explicación en la pérdida de la libertad distributiva que en estas hipótesis sufre el causante. En efecto, comoquiera que en ellas no podrá apartar al legitimario que, sin incurrir en causa de indignidad o desheredación, se haya conducido mal con él mismo o su familia, se ha entendido oportuno ampliar preventivamente su libertad de disposición en favor de extraños, de la que, como prudente árbitro

baten beharrei erantzuten dietelako (Kode zibilaren kasuan, XIX. Mendeko gizarteari, eta Bizkaiko kasuan XVI. Mendekoari –Foru Berria, 1526koa-), seniparteak testuinguru horretan bakarrik betetzen baitu benetako funtzioa, hau da, gurasoen heriotza suertatu eta, haien umeak oraindik adingabeak izanik, horiek mantenua izateko ondasunak eman beharra; gaur egungo gizartean, ordea, bizi-itxaropena asko luzatu denez, gehienetan umeak beren gurasoen oinorde bihurtzen dira jadanik oso helduak direnean, hain zuzen ere dagoeneko beren bizitza erabat bideratua eta sendotua daukaten momentuan. Beste alde batetik, jadanik adierazi denez, aurre-ahaideen seniparteak, arrazoi berberengatik (bizi-itxaropena oso altua delako), arras gutxitan aplikatzen den figura delako, hau da, izaeraz hondar kutsua duen zerbait bihurtu da; gainera, ezin da esan ere laguntza-funtziorik betetzen duenik, kontuan izanda, pertsona zaharrek, beren beharrak asetzeko baliabideak badauzkatela aurreikuspen-sistema publikotik (erretiro-pentsioak) edo pribatutik (pentsio-fondo eta planak). Azken batean, seniparteak murriztearen alde egiten da, horren ondorioz askatasunez xedatzeko zatia areagotzeko, hori baita hiriko testuingurutik behin eta berriz eskatzen den zerbait, hain zuzen ere kausatzaileak aukera zabalgoak izatea bere ezkontide alargunari ondasunak utzi ahal izateko.

Bestalde, finkoa ez baina aldagarria den seniparteak proposatzen da, ondorengo edo aurreko bakarra dagoen kasutan urrituko dena. Irtenbide hori ulertzeko kontuan izan behar da hipotesi horietan kausatzaileak gauzak banatzeko askatasuna galtzen duela. Hala, seniparteduna baztertu ezin duenez, eta ezduintasun edo desheredatzeko kausarik egon ezean, hura gaizki etorri bada kausatzailea edo bere familiarekin, egokia dirudi, prebentzio modura, xedatzeko askatasuna areagotzea beste kanpokoen alde egiteko; hartara, bere edo bere

de su interés y del de su familia, podrá hacer uso o no.

En cuanto a la legítima que en usufructo corresponde al viudo o viuda, se preservan las razonables proporciones que guarda en el Fuero vizcaíno, aunque, como se verá después, se permite su ampliación a voluntad del causante incluso en presencia de legitimarios.

BASE 52.^a Caudal computable

Para fijar la legítima se atenderá al valor de los bienes que queden a la muerte del causante, con deducción de las deudas y los gastos de última enfermedad y entierro o incineración. Al valor líquido de los bienes hereditarios se agregará el de los bienes donados o enajenados por cualquier título gratuito por el causante durante los veinte años precedentes a su muerte, excluidas las liberalidades de uso. Como excepción, el valor de los bienes que hayan sido objeto de atribuciones gratuitas imputables a la legítima deberá computarse con independencia de la fecha de su realización.

El valor de los bienes de la herencia que se tendrá en cuenta para el cálculo de la legítima será el que ostenten en el momento de liquidarse esta última. En cuanto a los enajenados por título gratuito, se atenderá al valor que tenían al instante en que se efectuó la enajenación, pero actualizado su importe al tiempo de liquidarse la legítima.

Concordancias: art. 62 LDCF; art. 818 CC; art. 174 LSAr.; art. 451-5 CCCat.; arts. 58, 59 y 60 AAVD.

Observaciones: La razón por la cual se propone limitar temporalmente las donaciones susceptibles de cómputo reside en que, de esta forma, aparte de simplificarse el cálculo de la legítima, se evitan engorrosos problemas de prueba y valoración de actos realizados mucho tiempo atrás. Además, tal y como indica la Exposición de Motivos de la Ley 10/2008,

familiaren interesa babesteko, askatasun hori balia dezake edo ez.

Bere aldetik alargunari dagokion seniparteari buruz, berriz, Bizkaiko foruan ezarritako proportzioak errespetatzen dira, arrazoizkoak direlako, baina, orain azalduko denez, seniparte hori zabaltzeko aukera ematen zaio kausatzaileari senipartedunak egon arren.

52. OINARRIA. Ondasuntza zenbatzea

Senipartea finkatzeko, kausatzailea hiltzen denean geratu diren ondasunen balioa ikusiko da, zorrak eta azken gaixotasunaren nahiz ehorzketa edo errausketaren gastuak kenduta.

Herentziako ondasunen balio likidoari batuko zaio kausatzaileak berau hil aurreko hogeitun barruan dohaintzan eman edo ezein doako tituluz besterendutako ondasunen balioa, ohiko opariak kenduta. Salbuespen gisa, senipartera egotzi beharreko esleipenen objektu diren ondasunen balioa zehazteko, esleipen hura egin zen data ez da kontuan izango.

Senipartea kalkulatzeko kontuan izango diren herentziako ondasunen balioa zehaztuko da senipartea kitatzeko momentuan haiek dutena kontuan izanda. Doako tituluz besterendu diren ondasunei dagokienez, horiek besterendu ziren momentuan zeukatena balioa hartuko da kontuan, baina senipartea kitatzeko garaira eguneratuz zenbatekoa.

Bat datoz: FZZL 62 art.; KZ 818 art.; ArOL 174 art.; KatKZ 451-5 art.; EZAA 58, 59 eta 60 artk.

Oharrak: Senipartea zenbatzeko kontuan izan behar diren dohaintzak denboraldi batera murrizteak badu arrazoi bat: horrela egiten bada, senipartea kalkulatzeko gauzak asko errazteaz gain, aspaldi egindako egintzak eta horien balioa frogatzeko arazo neketsuak saihesten dira. Horretaz gain, 10/2008 Legeak, uztailaren 8koak, zeinak berrikuntza berbera

de 8 de julio, del Libro IV del Código civil de Cataluña, que acoge también esta innovación, es un modo de propiciar “una reducción de los derechos de los legitimarios ajustada a la realidad de la sociedad contemporánea, en que prevalece el interés en procurar formación a los hijos sobre el interés en garantizarles un valor patrimonial cuando faltan los progenitores”. El límite de los veinte años –frente a los diez que prevé el ordenamiento catalán- no se ha adoptado de forma caprichosa: se explica por la avanzada edad a la que suelen fallecer los ciudadanos y ciudadanas vascas. Las donaciones realizadas en esos veinte años –anteriores a la apertura de la sucesión- se computarán con independencia de quién sea el favorecido. Idéntico trato al de las donaciones recibirán los restantes actos a título gratuito efectuados por el *de cuius*, como, por ejemplo, los realizados mediante pacto sucesorio con transmisión de presente, la dotación de una fundación, la condonación de una deuda, etc. La excepción relativa a las atribuciones gratuitas imputables a la legítima se explica porque, de no traerse su valor a la masa de cálculo, la expectativa de los sucesores forzosos sufriría una mengua excesiva.

En lo que se refiere al criterio de valoración, se ha adoptado uno que sirva no sólo para los casos en que la sucesión haya sido ordenada por el mismo causante, sino también para las hipótesis en que haya confiado esa misión a un tercero o fiduciario. Comoquiera que en estos últimos supuestos puede transcurrir un amplio lapso temporal entre la muerte del *de cuius* y la satisfacción de la cuota legitimaria, siendo empero procedente que los sucesores forzosos participen en la fluctuación del valor de los bienes relictos, se ha establecido como instante para la valoración el que resulte más cercano a su pago (el del día de la liquidación). En cuanto al *donatum*, se altera el criterio previsto para Bizkaia por el artículo 62 LDCF, de forma que se

jasotzen baitu, bere Zioen Adierazpenean hau esaten du: denboraz horrela mugatzeak eragiten duena da “senipartedunen eskubideak murriztea eta egokitzea gaur egungo gizartearen errealitatera, balio nagusiagoa ematen baitzaio umeei heziketa osatua emateko interesari, gurasoek faltatzen direnean ondarearen balioan parte hartzea bermatzeko interesari baino”. Hogei urteko muga –Katalunian aurreikusitako hamarrek alderratz- ez da aukeratu eta ezarri kapritxoz: esplikatzeko da hain zuzen ere euskal hiritarrak edadean oso aurrera joanda hiltzen direlako. Hogei urte –oinordetza ireki aurreko- horietan egindako dohaintzak, onuraduna nor izan den kontuan hartu gabe konputatuko dira. Dohaintzei emandako trataera berbera izango dute *de cuius* delakoak doako tituluz egindako gainerako egintzek ere, esate betarako oinordetza-itun bidez eta uneko eskualdatzearekin egindakoen, fundazio bati egindako hornidurak, zor bat barkatzeak, eta abar. Seniparteari egozgarri diren doako esleipenei buruzko salbuespenak badu azalpena, izan ere ondarea kalkulatzeko haien balioa ez bada kontuan hartzen, nahitaezko oinordekoak daukaten itxaropenak neurritz gain urrituko bailitzateke.

Balioa zehazteko irizpideari dagokionez, berriz, hautatu da bat balio duena, kausatzaileak berak oinordetza ordenatu duen kasuetarako bakarrik ez, oinordetza ordenatzeko zeregina hirugarren edo fiduziario baten esku utzi duen kasuetarako ere bai. Azken suposamendu horietan *de cuius* delakoa hiltzearen eta seniparte-kuota asetzearen artean denboraldi luzea iragan daitekeen heinean, eta hil ostean utzitako ondasunen balioaren gorabeheretan nahitaezko oinordekoek parte hartzea egokia bada ere, balio hori zehazteko momentu gisa jarri da ordainketa egin behar den unera gehien hurbiltzen dena (kitatzeko eguna). *Donatum* delakoari dagokionez, FZZL 62 artikulua Bizkairako aurreikusitako irizpidea aldatzen da eta, ondorioz,

computará el valor que el bien dado tenía al momento de cederse y no el que hubiera podido tener al momento de morir el causante; la razón para este cambio reside en que aquel primer valor mide con exactitud el enriquecimiento que obtuvo el donatario y el empobrecimiento que padeció el donante, mientras que con la adopción del segundo se persigue, un tanto ficticiamente, reconstruir el patrimonio del *de cuius* con unos bienes que salieron ya de él acaso mucho tiempo atrás y que desde entonces pertenecen legítimamente a un tercero. Eso sí, se tendrán en cuenta las variaciones del valor de la moneda, con lo que el valor de *antaño* se adecuará siempre a unidades monetarias *actuales* o, más exactamente, a las unidades monetarias del instante en que se liquide la legítima.

BASE 53.^a Legítima global y títulos de atribución

El disponente podrá distribuir libremente la legítima entre todo el grupo de descendientes o, en su caso, de ascendientes, o elegir a uno solo de ellos, e incluso preferir al de grado más remoto frente al de grado más próximo.

La legítima podrá atribuirse por cualquier título lucrativo y, en consecuencia, a título de institución hereditaria, legado, atribución particular o donación, o de cualquier otra forma. La existencia de sucesores forzosos no impedirá al disponente instituir como heredero a un extraño.

Concordancias: art. 54 LDCF; arts. 171 y 172 LSAr.; arts. 48 y 51 AAVD.

Observaciones: Una legítima de carácter colectivo o global, libremente distribuible por el causante al modo de la vizcaína, permite evitar algunos de los serios inconvenientes que plantean los sistemas que reservan porciones individuales intangibles para cada uno de los sucesores forzosos, como el del Código. En

ondasuna emateko garaian hark zeukan balioa konputatuko da, ez ordea kausatzailea hiltzeko garaian ondasunak izan zezakeena. Aldaketa horren arrazoia da lehen balio hark zehaztasunez neurtzen duela dohaintza-hartzaileak lortutako aberastea eta dohaintza-emaileak jasandako pobretzea; aldiz, bigarren balio hura hartzearekin lortu nahi dena da, itxuraz bederen, *de cuius* delakoaren ondarea berrosatzea hortik akaso aspaldian atera ziren ondasun batzuekin, noski, legitimoki orain hirugarren batenak direnekin. Hori bai, diruaren balioak izandako aldaketak kontuan izango dira, hau da, *antzinako* balio hura beti egokituko da *egungo* moneta-unitateetako baliora edo, zehatzago esanez, senipartea kitzatzen den momentuko moneta-unitateetara.

53. OINARRIA. Seniparte globala eta esleitzeko tituluak

Xedatzaileak senipartea askatasunez bana dezake ondorengoen edo, bere kasuan, aurre-ahaideen taldean daudenen artean, edo horietatik bat bakarra aukera dezake, eta nahi balu gradu urrunagoko norbait aukeratu gertuagoko beste norbait baino.

Ezein irabazizko tituluz esleitu daiteke senipartea eta, ondorioz, heredero izendatzeko tituluz, legatuz, esleitze partikularrez edo dohaintzaz, edo beste edozein modutara.

Nahitaezko oinordekoak egon arren, xedatzaileak izenda dezake arrotz bat heredero gisa.

Bat dato: FZZL 54 art.; ArOL 171 eta 172 artk.; EZAA 48 eta 51 artk.

Oharrak: Izaeraz kolektiboa edo globala den seniparteak, Bizkaiko erara kausatzaileak askatasunez bana dezakeelarik, nahitaezko oinordeko bakoitzarentzat zati indibidual eta ukiezinak erreserbatzen dituen sistemak, Kodekoak esaterako, azaleratutako eragozpenak saihesten ditu. Seniparteari

particular, son muy severas las trabas que el esquema legitimario del Código civil plantea (y que tradicionalmente ha planteado en el País Vasco) en orden a la transmisión indivisa de las pequeñas y medianas empresas (muy especialmente, las de corte familiar), pues aunque su titular pueda, ciertamente, valerse del tercio de mejora e incluso del de libre disposición para dejársela íntegra a aquel de los hijos que estime más capacitado para continuar la explotación, la porción de legítima estricta que ineludiblemente han de recibir sus hermanos conduce, a falta de otros bienes suficientes en la herencia, a la división (o gravamen) del negocio. De este problema se ha hecho eco el propio legislador estatal, quien ha tratado de solventarlo a través de reformas parciales, mas siempre insuficientes, como, por ejemplo, la materializada mediante la Ley 7/2003, de 1 de abril, de la Sociedad Limitada Nueva Empresa que modificó el artículo 1056.2º CC. No será impertinente recordar que fue esta onerosa traba la que, tradicionalmente, afectó a las explotaciones agrarias guipuzcoanas y la que condujo de forma directa a la promulgación de la Ley vasca 3/1999, de 26 de noviembre, de modificación de la LDCF en lo relativo al Fuero civil de Gipuzkoa. Nótese, sin embargo, cómo el resto de guipuzcoanos, titulares de empresas operantes en otros sectores económicos, así como los alaveses que ostenten vecindad civil común y los vizcaínos no aforados –sometidos al Código en materia de legítimas- continúan sufriendo hoy los descritos inconvenientes. Pero además, y fuera de esta hipótesis, el tercio de legítima estricta constituye también un grave obstáculo para alcanzar otras finalidades igualmente deseables y absolutamente lícitas, como la del causante que, teniendo un modesto peculio, desee atender en modo preferente a las necesidades vitales de su hijo judicialmente incapacitado o que padezca algún tipo de discapacidad. Nuevamente, el legislador estatal ha tratado de paliar

buruzko eskemak Kode zibilean jartzen dituen oztopoak (euskal erkidegoan agerian jarri izan direnak aspalditik) oso zorrotzak eta latzak dira, bereziki enpresa txikiak eta ertainak (nagusiki familiari oso lotuta daudenak) zatitu gabe eskuz aldatzeko garaian, izan ere, titularrak, egia da, hobekuntzako herena eta askatasunez xedatzeko zatia erabil baditzake ere osorik emateko ustiategiarekin jarraitzeko gaitasun gehien erakusten duen bere umeetako bati, gainerako horren senideek ezinbestean jaso behar duten seniparte hertsia zatia eman beharrak ekar lezake, herentzian bestelako nahiko ondasunik egon ezean, negozioa zatitu (edo zamatu) behar izatea. Arazo horretaz jabetu da estatuko legegilea ere, eta erreforma partzialen bidez konpontzen ere saiatu da, baina beti eskas geratuz; hala egin zuen esate baterako 7/2003 Legean, apirilaren 1ekoan, Enpresa Berri sozietate mugatuari buruzkoan, zeinak KZ 1056.2 artikulua aldatu zuen. Gune hau egokia da gogorarazteko, hain zuzen, eragozpen hori izan zela aspalditik Gipuzkoako nekazaritza-ustiategiak jota utzi eta euskal 3/1999 Legea, azaroaren 26koa, FZZLa Gipuzkoako Foru zibilari dagokionez aldatu zuena aldarrikatzeko arrazoi nagusia zuzen-zuzenean. Konturazati behar da, hala ere, gainerako gipuzkoarrak, beste sektore ekonomikoetan ari diren enpresen titular gisa, eta auzokotasun zibil komuna daukaten arabarrak eta bizkaitar forugabeak –Kodera meneratuak seniparteei dagokienez-, azaldutako eragozpen horiek jasaten jarraitzen dutela oraindik ere. Hala eta guzti ere, gainera, eta hipotesi horretatik kanpo, seniparte hertsia den herena ere bada oztopo larria erabat desiragarriak eta lizitoak diren beste helburu batzuk lortzeko bidean, hala nola kausatzaileak, judizialki ezgaitua dagoen edo beste urritasunen bat daukan ume bat edukita, horri bizitzeko behar dituen baliabideak emateko asmoari eman nahi badio lehentasuna. Estatuko legegilea oztopo hori arintzen saiatu da, baina,

este obstáculo mediante el retoque puntual de algunos preceptos del Código –véase, sobre todo, la nueva redacción dada al párrafo tercero del art. 808 por la Ley 41/2003, de 18 de noviembre, de protección patrimonial de las personas con discapacidad-. Empero el retoque se ha mostrado, también en esta ocasión, completamente insuficiente.

BASE 54.^a Apartamiento y preterición intencional

Los sucesores forzosos preferentes no favorecidos por el disponente deberán ser apartados, individual o colectivamente, en el pacto o testamento o en el acto de ejecución de la fiducia. No obstante, la preterición intencional de un sucesor forzoso inmediato equivaldrá a su apartamiento. En caso de duda, la preterición, cuando acaezca, se entenderá intencional.

El apartamiento de un descendiente que sea sucesor forzoso preferente comportará, salvo previsión distinta del disponente, el de toda su estirpe, aunque aquél premuera a éste.

Si el disponente hubiese expresado el motivo en el que se funda el apartamiento y éste resultara ser erróneo, se producirán en favor del legitimario inmediato apartado las consecuencias de la preterición no intencional, a no ser que del título sucesorio resulte que el disponente habría realizado el apartamiento aunque hubiese conocido la falsedad del motivo.

Concordancias: arts. 54 y 135 LDCF; arts. 190 y 199 LSAr.; art. 48 AAVD.

Observaciones: El apartamiento de los sucesores forzosos no favorecidos en la distribución de los bienes que integran la legítima constituye una garantía de que la voluntad del causante se ha formado con plena consciencia acerca de la existencia de todos sus descendientes o ascendientes o, dicho con mayor exactitud, de aquellos

berriro ere, Kode zibileko hainbat arauri ukitu leun bat emanetz, besterik gabe - ikusi, bereziki, 808. artikuluari emandako idazkera berria, 41/2003 Legeak, azaroaren 18koak, urritasunak dituzten pertsonen ondarea babesteari buruzkoak ezarria-. Hala eta guztiz ere, ukitu leun hori, oraingo honetan ere, ez da behar bezain bestekoa izan.

54. OINARRIA. Baztertzea eta nahita egindako preterizioa

Xedatzaileak onurarik utzi gabe lehentasuna duten nahitaezko oinordekoak baztertu egin behar dira, banaka edo taldeka, itunean edo testamentuan edo fiduzia exekutatzeko egintzan. Dena den, berehalako nahitaezko oinordeko bat apropos preteritza, hura baztertzea da. Zalantzarik balego, preterizioa, ematen bada, apropos dela ulertuko da.

Lehentasunezko nahitaezko oinordeko den ondorengo bat baztertzeak, xedatzaileak besterik esaten ez badu, haren leinu osoa ere baztertzea eragingo du, hura xedatzailea baino lehen hiltzen bada ere. Xedatzaileak norbait zergatik baztertzen duen aipatze bidez adierazi eta arrazoi hori okerra izango balitz, baztertu den berehalako senipartedunaren alde nahigabeko preterizioak dituen ondorioak aplikatuko dira, beti ere oinordetza-titulutik ez bada ondorioztatzen xedatzaileak gezurrekoa arrazoa jakin izan balu ere berdin-berdin baztertuko zukeela.

Bat dato: FZZL 54 eta 135 artk.; ArOL 190 eta 199 artk.; EZAA 48. art.

Oharrak: Senipartea osatzen duten ondasunak banatzeko garaian onurarik jaso ez duten nahitaezko oinordekoak baztertzeak, berez, hau bermatzen du: kausatzaileak bere borondatea osatu duenean, jakitun dela bere ondorengo edo aurreko guztiak zeintzuk diren, zehaztasun gehiagorekin esanez, berehalako ahaideak

que lo sean con carácter inmediato. Mas no parece pertinente obligarle a separar nominalmente a cada pariente no favorecido –de forma que ha de poder realizar la exclusión en modo conjunto-, ni, por supuesto, imponerle la absurda carga de utilizar fórmulas rituales o solemnes. Incluso la preterición de propósito de cualquiera de los sucesores forzosos inmediatos ha de servir como apartamiento, ya que ésta solución es plenamente coherente con la naturaleza global de la legítima que se propone: en efecto, en un sistema de este tipo la atención se concentra, no tanto en cada legitimario individualmente considerado, sino, sobre todo, en el respeto por el disponente a los límites que se le imponen respecto del grupo de sucesores forzosos; es decir, una vez satisfecha la legítima colectiva y repartida entre quienes desee, gravarle, además, con el deber de mencionar en el acto de ordenación sucesoria al legitimario que quiera separar se aparece como un rito inútil, vacío de contenido y significado. Antes bien, en un sistema sucesorio de esta clase, en el que existe absoluta libertad de exclusión, resulta lógico que la preterición deliberada no produzca ningún efecto y que, por contra, sólo se tengan en cuenta aquellas omisiones que se produzcan por causas ajenas a la voluntad del disponente, de suerte que la preterición ostente como única “función propia” evitar que un sucesor forzoso “quede excluido de la herencia sin haberlo querido así el causante”. Esto es lo que ocurre, por ejemplo, en Aragón, territorio en el que la Ley 1/1999, de 24 de febrero, de Sucesiones por causa de muerte (a cuya Exposición de Motivos pertenecen las frases entrecomilladas) establece, asimismo, un sistema de legítima global. Pues bien, su artículo 192 prescribe que ningún derecho o acción específicos nacen para el preterido intencionalmente, “salvo el que pueda corresponderle a reclamar la legítima colectiva frente a terceros, cuando exista lesión de la misma”.

diren horiek zeintzuk diren. Baina, ekimen horretan, ez dirudi egokiena denik kausatzailea obligatzea ahaide bakoitza izenez baztertzer ahaideak taldeka baztertzeko aukera eman behar zaio beraz, ez eta, noski, formula erritual edo solemneak erabiltzera, erabat zentzugabea bailitzateke. Berehalakoak diren nahitaezko oinordekoak apropos preteritzea ere, baztertzeko modutzat jo behar da, konponbide hori, zehazki, guztiz koherentea baita proposatzen den seniparteak duen izaerarekin: hain zuzen, mota honetako sistema batean, begirada jarri behar da, ez hainbeste senipartedun bakoitzaren gain banan-banan, bai ordea, bereziki, xedatzaileak izan behar duen mugen errespetuan, nahitaezko oinordekoen taldearen gain ezarri zaiona; hau da, behin seniparte kolektiboa asetu eta gura duenen artean banatu ostean, gehiegizkoa dirudi, horretaz gain, baztertu nahi duen seniparteduna oinordetza ordenatzeko egintzan esanbidez aipatu behar izatea, edukiz eta esanahiaren aldetik hutsa delako. Beste modu batera esanda, baztertzeko askatasuna ezartzen duen oinordetza sistema honetan, erabat zentzuzkoa da nahita egindako preterizioak eraginik ez izatea eta, alderantziz, xedatzailearen borondatez kanpoko arrazoiengatik gertatu direnak kontuan hartzea. Hartara, preterizioak badu “berezko funtzio” bat, baina bakarra: nahitaezko oinordeko bat, “kausatzaileak hala nahi izan gabe, herentziatik kanpo geratzeko parada” ez suertatzeko baliabidea jartzea. Hori bera gertatzen da, esaterako, Aragoin, bertako 1/1999 Legeak, otsailaren 24koak, heriotzagatik Oinordetzari buruzkoak (horren zio adierazpenetik jaso dira kakotx arteko esaldi haiek), seniparte globala duen sistema jasotzen baitu ere. Hain zuzen ere, lege horren 192. artikulua dioenez, nahita preteritua izan denaren alde ez da inolako eskubide edo akziorik sortuko, “hirugarrenei seniparte kolektiboa erreklamatzekoa izan ezik, seniparte hori urratu izan bada”.

BASE 55.^a Consecuencias del apartamiento y de la preterición intencional

El apartamiento o, en su caso, la preterición intencional no privarán al sucesor forzoso preferente de su condición de tal. Tampoco le privarán de los derechos que pudieran corresponderle en la sucesión legal de su causante, salvo voluntad en contrario del disponente. Si el disponente hubiese apartado a todos los sucesores forzosos preferentes o hubiesen sido totalmente preteridos por él de propósito, y tampoco hubiese realizado cualesquiera atribuciones patrimoniales en favor de los sucesores mediatos, aquéllos podrán reclamar la legítima global instando la reducción de las disposiciones que la lesionen.

Concordancias: arts. 191 y 197 LSAr.

Observaciones: El apartamiento no comporta sanción civil alguna para el sucesor forzoso excluido –aún menos la preterición intencional-: la libertad distributiva o posibilidad de “apartar” se concede al causante únicamente en tanto que instrumento hábil para propiciar un reparto *post mortem* de su patrimonio acorde con sus intereses y los de su entorno familiar, pero no para convertir en extraño al separado. Sólo la desheredación comporta la salida del afectado del círculo de sucesores forzosos y la irremisible pérdida de su calidad de tal. También pierde el desheredado todo derecho a la sucesión intestada, pues quien ha sido válidamente excluido de la sucesión forzosa, tanto más ha de entenderse privado de la porción que la ley sólo atribuye con carácter meramente subsidiario y de la que el disponente puede excluir sin necesidad de razón justificativa alguna. Sin embargo, por lo antes dicho, no ocurre lo mismo, a menos que el causante disponga lo contrario, respecto del apartado: así, por ejemplo, podrá concurrir a la sucesión legal cuando

55. OINARRIA. Baztertzearen eta nahita egindako preterizioaren ondorioak

Baztertzeak edo, kasuan, nahita egindako preterizioak ez diote bere kondizioa kenduko lehentasunezkoa den nahitaezko oinordekoari. Kausatzailearen legezko oinordetzan izan ditzakeen eskubideak ere ez zaizkio kenduko, beti ere xedatzaileak bestelakorik adierazten ez badu. Lehentasuna duten nahitaezko oinordeko guztiak baztertu balitu xedatzaileak, edo nahita preteritu izan balitu ere, eta gero oinordeko mediatuak direnen aldeko inolako ondare-esleipenik egin ez balu xedatzaileak berak, haiek seniparte globala erreklamatu dezakete, berau urratzen duten xedapen guztiak murriztea eskatuz.

Bat datoz: ArOL 191 eta 197 artk.

Oharrak: Oinordetatik baztertzea, kanporatua izan den nahitaezko oinordearentzat ez da santzio zibila -are gutxiago nahita egindako preterizioa-: banatzeko askatasuna edo “baztertzeo” aukera ematen zaio kausatzaileari baliabide erabilgarria duelako, zertarako eta bere ondarea *post mortem* banatzeko bere interesen eta bere inguruko familiakoen interesen arabera, baina ez baztertua arrotz bihurtzeko. Desheredatze bidez bakarrik kanporatu daiteke nahitaezko oinordekoa talde horretatik, hartara kondizio hori galtzen baitu; testamenturik gabeko oinordetzan parte hartzeko aukera ere galtzen du, nahitaezko oinordetatik zuzen kanporatua izan denak aukera hori ere galtzen duelako, legeak modu subsidiarioan bakarrik ezartzen duelako testamenturik gabeko oinordetza eta, gainera, kausatzaileak inolako arrazoirik gabe kanporatu dezakeelako oinordetza horretatik. Hala eta guztiz ere, lehen esandakoarekin bat, ez da hori gertatzen, kausatzaileak kontraktorik xedatu ezean, baztertua izan denarekiko: hala, esaterako, legezko oinordetzan parte

todos los sucesores forzosos beneficiados testamentariamente fallen. Además, la desheredación justa priva también del derecho de alimentos al que se aludirá después, el cual está especialmente pensado para subvenir a las situaciones de necesidad en que pudieran caer los apartados.

BASE 56.ª Consecuencias de la preterición no intencional

El sucesor forzoso preferente que haya sido preterido no intencionalmente tendrá derecho, salvo previsión distinta del disponente, a reclamar una porción de cuantía igual a la del legitimario que haya resultado menos favorecido por aquél, incluidas las atribuciones entre vivos. Esa porción se formará reduciendo proporcionalmente las participaciones de los restantes sucesores forzosos, si bien éstos podrán pagar al preterido su parte en metálico.

No obstante, los descendientes que sean sucesores forzosos preferentes en representación de un descendiente premuerto al causante y favorecido en el título sucesorio, podrán reclamar para sí, cuando hubiesen sido omitidos no intencionalmente, las atribuciones patrimoniales hechas en favor del representado.

Si todos o el único sucesor forzoso preferente hubiesen sido preteridos no intencionalmente y el disponente no hubiese realizado cualesquiera atribuciones patrimoniales en favor de los sucesores mediatos, aquéllos podrán reclamar la legítima global instando la reducción de las disposiciones que la lesionen. Como excepción, si los preteridos erróneamente fuesen descendientes, podrán solicitar, siempre que el causante no haya instituido como heredero único al cónyuge, que se declare la ineficacia de todas las disposiciones sucesorias de contenido patrimonial y la subsiguiente apertura de la sucesión legal.

har dezake testamentuaren arabera onuradun gertatu diren guztiek huts egiten badute. Gainera, bidezko desheredatzeak, aurrerago aipatuko den mantenu eskubideaz ere gabetzen du; zehazki, eskubide hori baztertuak izan direnak izan ditzaketen beharrei erantzuteko pentsatua dagoen baliabidea da.

56. OINARRIA. Nahi gabeko preterizioaren ondorioak

Lehentasuna duen nahitaezko oinordekoak, nahi gabe preteritua izan bada, eta xedatzaileak bestelakorik esan ezean, horren aginduen arabera onurarik gutxiena jaso duen senipartedunak haina erreklamatzeko eskubidea izango du, bizidunen arteko esleipenak kontuan hartuta. Puska hori osatzeko, gainerako nahitaezko oinordekoen parteak proportzioan gutxituko dira, preteritua izan denari bere zatia dirutan ordain badiezaiokete ere.

Dena den, lehentasuna duten nahitaezko oinordekoak ondorengoak izan eta oinordetza-tituluan onuradun gertatu arren kausatzailea baino lehen hil den beste ondorengo baten ordezkari gisa ari baldin badira, berentzat erreklama ditzakete ordezkatuaren alde egindako ondare-esleipenak, beti ere nahi gabe ahaztuak izan badira.

Lehentasunezkoak diren nahitaezko oinordeko guztiak edo bakarra nahi gabe preteritua izan bada, eta xedatzaileak ez balu inolako ondare-esleipenik egin oinordeko mediatu diren edonoren alde, haiek erreklama dezakete seniparte globala berau urratzen duten xedapen guztiak murriztea eskatuz. Salbuespen gisa, okerreko moduz preterituak izan direnak ondorengoak balira, orduan eska dezakete, beti ere kausatzaileak heredero bakar bere ezkontidea izendatu duenean bakarrik, edukiz ondarezkoak diren oinordetzako xedapen guztiak efikaziarik gabe deklaratzera eta, horren ondorioz, legezko oinordetza irekitzea.

Concordancias: arts. 54 y 137 LDCF; art. 814 CC; art. 193 LSAr.; art. 451-16 CCCat.; art. 259 LDCG; art. 51 AAVD.

Observaciones: Las soluciones apuntadas concuerdan básicamente con las del Derecho vizcaíno vigente, si bien se propone la expresa regulación de una hipótesis no prevista en él: la preterición errónea de todos los sucesores forzosos preferentes sin que haya otros mediatos favorecidos por el disponente, pues si benefició a estos últimos (siquiera sólo mediante liberalidades entre vivos), la omisión absoluta e inconsciente de aquéllos se resuelve acudiendo a la regla sentada en el primer párrafo.

La apertura de la sucesión legal en caso de preterición inintencional de todos los descendientes condice, acaso, con la presumible voluntad del *de cuius*, salva siempre la institución universal eventualmente realizada en favor del viudo.

La regla expresada en el párrafo segundo de la presente base es reformulación de la contenida en el último inciso del párrafo tercero del artículo 54 LDCF. Su finalidad es sentar un criterio de regulación para los supuestos de preterición inintencional de los descendientes que sean sucesores forzosos preferentes en representación de otro descendiente inmediato premuerto que, sin embargo, hubiese sido favorecido por el disponente. Más concretamente, deberán considerarse erróneamente omitidos siempre que el causante no los hubiese tenido en consideración al distribuir su as hereditario, sin especificar su inclusión mediante disposición específicamente establecida en su favor o, en sentido contrario, su exclusión definitiva de la sucesión. En esta dirección, no parece que pueda eliminarse la naturaleza involuntaria de la omisión si su separación la quiso el *de cuius* habida cuenta de lo dejado a su ascendiente inmediato, precisamente porque éste falló, o si, al otorgar testamento, desconocía su existencia. En cambio, si los designó

Bat datoz: FZZL 54 eta 137 artk.; KZ 814 art.; ArOL 193 art.; KatKZ 451-16 art.; GZZL 259 art.; EZAA 51. art.

Oharrak: Ematen diren irtenbide horiek Bizkaian indarrean den zuzenbideak ematen dituenarekin bat datoz, hor aurreikusten ez den hipotesi bat aipatze bidez arautzea proposatuz gainera: lehentasunezkoak diren nahitaezko oinordeko guztien okerreko preterizioa, xedatzaileak mediatuak direnak onuratu gabe, azken horiei onurarik eman izan balie (bidunen arteko egintzaz besterik ez bada), haiek erabat eta nahigabe ahaztea konponduko baita lehen erroaldean ezarritako erregelaren arabera. Ondorengo guztien nahigabeko preterizioa dagoenean legezko oinordetza irekitzea, akaso, bat dator *de cuius* delakoak ustez izan duen borondatearekin, beti ere alde batera utzita alargunaren alde agin egin izan duen izendapena, izaeraz unibertetsala gainera. Oinarri honetako bigarren erroaldean adierazitako erregelak, FZZL 54 artikuluko hirugarren erroaldeko azken esapidean jasotakoa berridazten du. Helburuz, xedatzaileak izendatu eta hura baino lehenago hil den berehalako ondorengoaren ordezkari gisa geratzen diren nahitaezko oinordeko eta lehentasunezkoak diren ondorengoak nahi gabe preteritu izanaren kasutarako irizpidea ezartzen da. Are zehatzago, kausatzaileak, bere ondarea banatzeko orduan, kontuan hartu ez dituen kasu guztietan joko da okerraren ondorioz ez direla aipatu, hark ez badu zehaztu horien aldeko aipatze bidezko xedapenik edo, alderantzizko zentzuan, ez badu adierazi esanbidez oinordetzatik kanpo uzten dituela behin betiko. ildo honetan, ahaztu izan hori izaeraz nahi gabekoa izan dela ulertu behar da berehalako aurreko-ahaideari *de cuius* delakoak utzitakoa kontuan hartuz baztertu izan bazuen hura, hain zuzen ere horrek kale egin duelako, edo, testamentua egitean, haren berri ez bazuen. Tarteko ondorengoaren ordezk

sustitutos vulgares del descendiente intermedio, o si les dejó cualesquiera bienes o porción de la herencia, no podría hablarse, en puridad, de inintencionada exclusión, con lo que la regla no sería de aplicación. Tampoco habrá preterición no intencional si la sustitución la estableció el causante en favor de extraño y al hacerlo así tenía presente a la stirpe del instituido o legatario, pues habría aquí una implícita voluntad de provocar su apartamiento; por contra, si en este mismo caso no conocía su concurrencia, habrá preterición errónea.

BASE 57.^a Desheredación

Se establecerán unas específicas causas legales de desheredación para cada grupo de sucesores forzosos.

La desheredación, siempre que se funde en una causa legal, cierta y expresada en el pacto o testamento, o en el acto de ejecución de la fiducia, privará al desheredado de la condición de sucesor forzoso y de las atribuciones sucesorias que le correspondan por cualquier título. Además, cuando afecte a todos o al único descendiente del causante, producirá la extinción de la legítima, sin que por este hecho pasen a ser sucesores forzosos los ascendientes. La reconciliación posterior entre el disponente y el desheredado o el perdón de aquél a éste, privarán al disponente del derecho de desheredar y dejarán sin efecto la desheredación ya hecha.

Si, caso de ser contradicha, no se probase la certeza de la causa legal de desheredación invocada por el disponente, el desheredado podrá reclamar una porción de cuantía igual a la del legitimario que haya resultado menos favorecido por aquél, incluidas las atribuciones entre vivos. Esa porción se formará reduciendo proporcionalmente las participaciones de los restantes sucesores forzosos, si bien éstos podrán pagar al preterido su parte en metálico. En cambio, si el desheredado injustamente fuese el único sucesor

arrunt izendatu bazituen, berriz, edo herentziako ondasunen bat edo zatirik utzi izan balie, ez da posible esatea, hitz lauz, bazterketa nahi gabekoa izan denik eta, horregatik, arau hau ez litzateke aplikatuko. Preterizioa ez da nahi gabekoa izango ere kausatzaileak ordezipena arrotz baten alde ezarri badu egiteko garaian izendatuaren edo legatadunaren leinua kontuan izanda, hortik ondoriozta baitaiteke baztertzeko borondatea; kasu horretan haien berririk ez baldin bazuen, aldiz, okerrak sortutako preterizioa dago.

57. OINARRIA. Desheredatzea

Nahitaezko oinordekoen talde bakoitzarentzat, desheredatzeko legezko kausa zehatzak ezarriko dira.

Legezko kausa baten arabera, ziurra eta itunean edo testamentuan, edo fiduzia betetzeko egintzan, adierazitakoa bada desheredatzea, orduan desheredatuari nahitaezko oinordeko izaera kenduko zaio, eta beste ezein tituluz legezkiokoen oinordetza-esleipenak ere bai. Horretaz gain, kausatzailearen ondorengo oro edo bakarra ukitzen badu desheredatzeak, seniparteak iraungiko dira eta aurre-ahaideak ez dira nahitaezko oinordeko bihurtuko. Gerora xedatzailea eta desheredatua berradiskidetzen badira edo hark barkatzen badio, desheredatzeko eskubidea galduko du xedatzaileak eta jadanik egindako desheredatzea eraginik gabe geratuko da.

Desheredatzeko xedatzaileak aipatu duen legezko kausa ziurra dela frogatzen ez bada, kausa hori ezeztatzea eskatu ostean, desheredatuak erreklama dezakeen kopuru-zatia xedatzaileak gutxien onuratu duenari dagokion parekoa izango da, bizidunen artea egindako esleipenak barne hartuz. Zati hori osatu, gainerako nahitaezko oinordekoen zatiak proportzionalki murriztuz osatuko da, baina horiek dirutan ordain diezaiekete bere zatia preterituari. Ostera, bidegabeki desheredatua izan dena lehentasunezkoa den nahitaezko oinordekoa izan eta,

forzoso preferente, y el disponente no hubiese realizado cualesquiera atribuciones patrimoniales en favor de los sucesores mediatos, aquél podrá reclamar la legítima global instando la reducción de las disposiciones que la lesionen. A la desheredación hecha sin expresión de causa se le aplicará el régimen establecido para el apartamiento, y producirá los efectos propios de éste. Idéntica solución se establecerá para la desheredación hecha con base en una causa que no sea alguna de las taxativamente señaladas por la ley.

Concordancias: art. 851 CC; arts. 194 y 196 LSAr.

Observaciones: Como se ha explicado antes, sólo la desheredación priva al legitimario de su condición de tal y de los derechos que eventualmente pudieran corresponderle en la sucesión legal o intestada; no así el apartamiento. Pero una sanción civil tan grave únicamente podría imponerse cumpliendo determinados requisitos y con fundamento en alguna de las causas que el legislador taxativamente previese. De ahí que, si no se satisfacen aquéllos o si se invoca una causa no contemplada en la norma, quepa hablar de desheredación “injusta”: esta base trata de adaptar al sistema legitimario propuesto para el País Vasco el régimen que para estas hipótesis sienta el artículo 851 del Código civil, inspirándose a tal fin en la regulación aragonesa. Con todo, se ha estimado oportuno reservar al prudente criterio del legislador la determinación de las concretas conductas que pueden resultar merecedoras de esta onerosa sanción.

BASE 58.^a Renuncia a la legítima global

La renuncia a la legítima global podrá hacerse tanto antes como después de la apertura de la sucesión. No obstante, la renuncia a la legítima futura únicamente

xedatzaileak, oinordeko mediatuak direnen alde inolako ondare-esleipenik egin izan ez balu, hark seniparte globala erreklama dezake berau urratzen duten xedapenak murriztea eskatuz. Inolako kausarik adierazi gabe desheredatu den kasuetan, baztertzeari buruz ezarritako eraentza aplikatuko da, eta horri berez lotutako eraginak emango dira. Konponbide berbera ezarriko da baldin eta desheredatzea egin izan bada legean adierazitako kausaren bat oinarritzat hartuz, kasu horiek mugatuak eta hertsiki hartu beharrekoak baitira.

Bat datoz: KZ 851 art.; ArOL 194 eta 196 artk.

Oharrak: Lehen azaldu denez, desheredatzeak bakarrik kentzen dio senipartedunari bere kondizioa, batetik, eta legezko edo testamenturik gabeko oinordetzan agian legozkiokeen eskubideak, bestetik; ez hala baztertzeak. Baina, hain larria den santzio zibila ezartzeko, ezinbestekoa da zehaztea eman behar diren betekizunak eta legegileak aurreikusitako kausaren bat oinarritzat hartuz. Horregatik, betekizunak ez badira ematen edo arauak aurreikusi gabeko kausarik aipatzen bada, orduan desheredatzea “bidegabea” da: oinarri honek euskal erkidegoko seniparte-sistemara egokitu nahi du Kode zibileko 851. artikuluan hipotesi horientzat ezarritako eraentza, Aragoiko arauketatik argia hartuz. Dena den, egokiena dela ulertu da legegilearen esku jartzea hain santzio larri jasotzea merezi duten portaera zehatzak zehazteko ardura bidezkoenak jotzen dituen irizpideen aplikazioan.

58. OINARRIA. Seniparte globalari uko egitea

Seniparte globalari uko egin daiteke hala oinordetza ireki aurretik nola berau ireki ostean. Hala eta guztiz ere, etorkizuneko seniparteari modu eraginkorrean uko

será eficaz cuando se realice mediante pacto sucesorio celebrado entre el que la debe y sus sucesores forzosos.

La renuncia a la legítima, sea anterior, sea posterior a la apertura de la sucesión, sólo propiciará su absoluta extinción cuando la efectúen todos los descendientes o, en su caso, todos los ascendientes que integren el respectivo grupo de sucesores forzosos. Los ascendientes no devendrán legitimarios por el hecho de que se haya producido la renuncia de todos los descendientes, ya antes, ya después de la apertura de la sucesión.

En tanto no tenga lugar aquella renuncia total, el valor de las atribuciones patrimoniales por causa de muerte hechas a los legitimarios que, a consecuencia de su repudiación, vayan a parar a manos de extraños en virtud de sustitución vulgar, derecho de acrecer o de cualquier otra forma, se imputarán en la porción de libre disposición y serán susceptibles de reducción como sean inoficiosas.

Concordancias: art. 816 CC; art. 177 LSAr.

Observaciones: Admitir la renuncia a la legítima antes de la apertura de la sucesión comporta, desde luego, un severo debilitamiento de la imperatividad de la figura; e incluso puede considerarse una opción que se halla en flagrante contradicción con esa característica esencial suya. Además, ha de advertirse del peligro añadido que comporta su introducción en un sistema de legítima global, pues es posible que el causante obtenga dicha renuncia de cada uno de sus sucesores forzosos coactivamente y, así, blandiendo en forma amenazadora su libertad distributiva; o sea, puede conseguirla de cada legitimario separadamente intimidándole con el anuncio de que, si no se conforma con lo que en ese instante le ofrece, le apartará definitivamente de la herencia. Sin embargo, la posibilidad de renuncia

egiteko, oinordetza-itun bidez egin behar da, zor duenaren eta nahitaezko oinordekoen artean.

Seniparteari uko egiteak, oinordetza ireki aurrekoa edo ondorengoa izan, hura erabat iraungitzea ekarriko du bakar-bakarrrik nahitaezko oinordekoen taldean txertatzen diren ondorengo guztiek egiten badute edo, bere kasuan, aurrekoen taldeko guztiek. Ondorengo denek beren seniparteari uko egiten badiote, egitate horregatik ez dira aurre-ahaideak senipartedun bihurtuko, uko egite hori oinordetza ireki aurretik gertatu edo ondoren.

Seniparte guztiari uko egiten ez zaion bitartean, senipartedunek uko egin ostean ordezipen arruntaz, gehiagotzeko eskubidez edo beste ezein moduz arrotzen eskuetara doazen ondare-esleipenak, heriotzagatik senipartedunei egindakoak duten balioa egotziko da askatasunez xedatzeko zatiaren barruan eta, berez ez badira ofziosoak, murriztu ahal izango dira ere.

Bat dato: KZ 816 art.; ArOL 177 art.

Oharrak: Oinordetza ireki aurretik seniparteari uko egiteko aukera emateak, zalantzarik gabe, senipartearen derrigorrezkotasuna bera ahultzeko bidea zabaldu eta errazten du; are gehiago, mamian hain sartua duen ezaugarri horrekin kontraesan garbian dagoela ere esan daiteke. Gainera, seniparte globala jasotzen duen sisteman horrelako aukera emateak sor dezakeen arriskua ere azpimarratu behar da, posible baita kausatzaileak uko egite hori banan-banan lortzea nahitaezko oinordekoengandik hertsapenez, esaterako daukan banatzeko askatasuna astinduz; hau da, senipartedun bakoitzarengandik lor dezake banaka beldurra eraginez momentu horretan eskaintzen dionarekin conforme ez bada, orduan, herentziatik behin-betiko baztertuko duela. Hala eta guztiz ere, seniparteari aurrez uko egiteko aukerak,

anticipada a la legítima, abstracción hecha del supuesto patológico, es un instrumento que permite ensanchar la libertad de disposición por causa de muerte y, en ese sentido, debe ser acogida favorablemente. La renuncia, anterior o posterior a la apertura de la sucesión, sólo ha de producir la extinción de la legítima global cuando la efectúen todos los sucesores forzosos, incluidos los no preferentes, lo que se explica por el hecho de que ellos también son legitimarios; es decir, ostentan su propia condición de tales, como lo demuestra el que el disponente pueda favorecerlos de modo absoluto anteponiéndolos a los sucesores forzosos preferentes. En consecuencia, la renuncia ha de perjudicar exclusivamente al renunciante y no, en su caso, a sus estirpes.

Del mismo modo, la renuncia a la institución hereditaria o al legado establecidos en favor de alguno o algunos de los sucesores forzosos no libera al disponente de sus obligaciones legitimarias para con todos, con lo que no queda en las exclusivas manos del o de los beneficiarios el decidir la extinción (o no) de la expectativa colectiva correspondiente a todo el grupo o, en otro caso, en la porción adjudicada. Así, los sucesores forzosos apartados no resultan definitivamente separados de la sucesión testamentaria o contractual y de la expectativa atinente a todo el grupo, ni los beneficiarios, de la parte repudiada por los que, siéndolo, no la quieren. Por consiguiente, el hijo único del causante, incluso habiendo sido apartado por éste, podrá reclamar contra el extraño que haya visto acrecentada su cuota sucesoria (art. 982 CC) en detrimento de la legítima global gracias a la repudiación del nieto (descendiente del dicho hijo) instituido solidariamente por el *de cuius* en la mitad del caudal junto con aquél; lo mismo acontecerá en la hipótesis inversa. Vuelve a repetirse que la expectativa colectiva ha de subsistir en tanto existan sujetos pertenecientes al grupo que sean aptos

kasu patologiko eta maltzur hori alde batera utzita, heriotzagatik egin nahi diren xedapenak askatasun gehiagoz emateko bidea zabaltzeko balio du eta, ildo horretan, mesedegarriztat hartu behar da. Uko egiteak, oinordetza ireki aurretikoa edo ondorengo izan, seniparte globala iraungiaraziko du, bakar-bakarrik, nahitaezko ondorengo guztiek egiten badute, lehentasunezkoak ez direnak ere sartuz, azken batean horiek ere senipartedunak baitira; hau da, beren senipartedun kondizioari eusten diote, izan ere, xedatzaileak, lehentasunezkoak diren nahitaezko oinordekoen aurretik jarri eta oso-osorik onuratu baititzake haiek. Ondorioz, seniparteari uko egiteak soil-soilik egileari egin behar dio kalte eta ez, bere kasuan, leinuko gainerako ahaideei.

Era berean, nahitaezko oinordeko baten edo batzuen alde heredero edo legatadun izendatua izateari uko egiteak ez du xedatzailea libratzen dituen gainerako obligazioetatik, gainerako senipartek ere estali behar baititu eta, beraz, ez da onuradunaren edo onuradunen esku geratzen talde osoari dagokion itxaropen kolektiboa iraungiaraztea (edo ez) erabakitzea, edo, beste kasuan, esleitutako zatia besterik gabe. Horrela, baztertuak izan diren nahitaezko oinordekoak ez dira, behin betiko, baztertuak geratuko testamentuzko edo kontratuzko oinordetzatik eta taldeari dagokion itxaropenetik; berdin gertatzen da beren zatia zapuztu ez duten onuradunekin. Azken batean, kausatzailearen ume bakarrak, hark baztertu izan badu ere, oinordetza zatia gehiagotua (KZ 982 art.) suertatu zaion arrotzari erreklama diezaioke oraindik, harekin batera ondarearen erdira solidarioki deitu izan balu *de cuius* delakoak bere biloba (ume haren ondorengo) eta horrek herentzia-eskubidea zapuzten badu; berdin gertatuko da alderantzizko hipotesian. Berriz azpimarratu behar da ezen itxaropen kolektiboak irauten duela taldean oinordekoak izateko gai diren subjektuak

para suceder, ya que todos son legitimarios. Además, la libertad de elección se atribuye al *de cuius* en orden a una mejor administración de su patrimonio y de sus intereses, pero no para convertir en extraños a los hijos excluidos. El apartamiento, por ello, no implica privación de la condición de sucesor forzoso para el separado.

BASE 59.^a Imputación

Se imputarán en la legítima global todas las atribuciones patrimoniales, inter vivos o mortis causa, recibidas a título gratuito del causante por sus sucesores forzosos, sean preferentes o no.

También se imputarán en la legítima las liberalidades entre vivos hechas en favor del renunciante antes de la abdicación, las realizadas en favor de los premuertos y las efectuadas en beneficio de los que hayan sido desheredados con causa legal o declarados indignos de suceder, así como lo percibido por el legitimario a cambio de la renuncia cuando ésta se hubiese celebrado mediante pacto sucesorio.

Las donaciones y demás atribuciones imputables a la legítima se valorarán de acuerdo con las reglas establecidas para su cálculo.

El disponente podrá ordenar expresamente la imputación en la parte libre de una liberalidad hecha en favor de un sucesor forzoso, de forma que, de ser inoficiosa, los restantes podrán solicitar su reducción. No obstante, tratándose de atribuciones entre vivos, aquella orden no será válida como no se emita en el mismo acto de otorgamiento de la liberalidad.

Concordancias: arts. 175 y 176 LSAr.; art. 451-8 CCCat.

Observaciones: Aunque acaso no merezcan la condición de sucesores forzosos, las liberalidades entre vivos hechas en favor del renunciante, del desheredado y del indigno deben

badauden bitartean, guztiak baitira senipartedun. Gainera, aukeratzeko askatasuna *de cuius* delakoari ematen zaio bere ondarea eta bere interesak ahalik eta egokien administratzeko asmoz, baina ez baztertutako umeak arrotz bihurtzeko. Horregatik, baztertzeak ez dio kentzen baztertuari bere nahitaezko oinorde kondizioa.

59. OINARRIA. Egoztea

Seniparte globalari egotziko zaio ondare-esleipen oro, kausatzailearengandik bere nahitaezko oinordekoak, lehentasunezkoa izan edo ez, doako tituluz inter vivos edo mortis causa jaso bada.

Seniparteari egotziko zaio ere bizidunen artean eskuzabaltasunez egindako esleipenak nahiz gero onuradunak uko egin, aurrez hil direnen alde egindakoak eta legezko kausaz desheredatu izan direnen edo oinorde izateko ezduin deklaratuaren alde egindakoak; halaber, senipartedunak, uko egitearen truk, jasotakoa, baldin eta uko egite hori oinordetzako itun bidez hitzartu izan bada.

Seniparteari egotzi beharreko dohaintzak eta gainerako esleipenak, hura kalkulatzeko ezarritako arauen arabera zenbatetsiko dira.

Xedatzaileak ordena dezake, aipatze bidez, askatasunez xedatzeko zatiari egoztea nahitaezko oinordekoaren alde eskuzabaltasunez egindako esleipena, baina ezofiziosoa balitz, besteek eska dezakete hura murriztea. Esleipena bizidunen artekoa bada, egozketa hura ez da baliozkoa izango eskuzabaltasunezko egintzan bertan ez bada egiten.

Bat datoz: ArOL 175 eta 176 artk.; KatKZ 451-8 art.

Oharrak: Akaso nahitaezko oinordeko izatea merezi ez badute ere, bizidunen artean eskuzabaltasunez uko egiten duenaren, desheredatuaren eta ezduinaren alde egindako esleipenak seniparteari

imputarse en la legítima para no menguar el margen de libertad dispositiva del causante en favor de extraños. Obsérvese, además, que ni la desheredación ni la indignidad se establecen en beneficio de los restantes sucesores forzosos o, lo que es igual, en perjuicio de los partícipes en la porción libre, sino como sanción al desheredado o indigno; y tampoco existe razón aparente por la que los extraños hayan de soportar las consecuencias de la repudiación. Mayores dudas se plantean respecto de las donaciones recibidas por el premuerto, ya que éste no tiene siquiera existencia al abrirse la sucesión; mas sobre el argumento dogmático ha de prevalecer el que se apoya en la equidad, y éste no es otro que el recién señalado para los anteriores supuestos: ha de evitarse el imprevisto perjuicio que su imputación a la cuota libre supondría para los extraños favorecidos con cargo a ella. No es necesario decir (pero, con todo, se advierte expresamente) que en la cuota de legítima se imputan no sólo las asignaciones gratuitas realizadas en favor de los sucesores forzosos inmediatos, sino también todas las percibidas por los mediatos, dada la libertad distributiva de que goza el causante sobre los bienes que integran la sucesión forzosa. E, igualmente, parece superfluo indicar que las liberalidades *inter vivos* o *mortis causa* hechas en beneficio de quienes no sean descendientes o, en su caso, ascendientes, han de llevarse a la parte de libérrima disposición.

El causante puede ordenar la reconducción del valor de las liberalidades hechas en beneficio de los descendientes o ascendientes hacia la cuota libre. Bajo esa orden subyacerá normalmente la intención de que ésta sirva como medida de la asignación gratuita, con lo que, de no entrar en la parte a la que va destinada (por superarla por sí sola o en compañía de otras liberalidades recibidas por extraños) podría ser resuelta o reducida a solicitud de los restantes sucesores forzosos. En cualquier caso, para que

egotzi behar zaizkio, zergatik eta kausatzaileak arrotzen alde duen askatasun margena ez gutxitzeko. Konturatu, bestalde, desheredatzea eta ezduin deklaratzeko ez direla gainerako nahitaezko oinordekoen alde ezartzen, alegia, zati askean parte hartzen dutenen kaltetan, desheredatua edo ezduina santzionatzeko baino; eta uko egitearen ondorioak arrotzen lepora jartzeko arrazoirik ere ez da sumatzen. Zalantza gehiago sortzen da kausatzailea baino lehen hildakoak jaso dituen dohaintzaren inguruan, haren oinordetza irekitzean izatez ez baita inor; baina, argudio dogmatikoan gaineratik, ekitatean oinarritzen den irtenbideak nagusitu behar du, hain zuzen ere aurreko kasuentzat aipatu berri den berdina: zati askearen kontura esleipenak jaso dituzten arrotzentzat zati horri egozteak sortuko lukeen kaltea ekidin behar da. Ez dago esan beharrik ere (baina, dena den, ohartarazten da), senipartearen kuotari egozten zaizkiola, berehalakoak diren nahitaezko oinordekoen alde doan egindako esleipenak eta, horiekin batera, mediatuak direnek jasotako guztiak ere bai, nahitaezko oinordetza osatzen duten ondasunak askatasunez banatzeko ahalmena baitu kausatzaileak. Eta, era berean, esan beharrik ere ez dago *inter vivos* edo *mortis causa* eskuzabaltasunez egindako esleipenak, ondorengo edo, bere kasuan, aurre-ahaide ez direnen aldekoak, askatasun osoz xedatzeko zatiari egotzi behar direla.

Kausatzaileak agindu dezake, ondorengoan edo aurre-ahaideen alde egindako eskuzabaltasunen balioa, askatasunezko kuotara birbideratzea. Agindu horren azpian dagoen asmoa da, gehienetan, doan esleitutakoaren neurri gisa erabilia izan dadin eta, modu horretara, helburutzat duen zatian sartzen ez bada (berez edo arrotzek eskuzabaltasunez jasotako esleipenekin batera gaintzen duelako), suntsiarazia edo murriztua izan daiteke gainerako nahitaezko oinordekoek hala eskatuta.

pueda reputarse operante, el causante ha de cumplir como mínimo dos requisitos al dictar esta orden: el primero, hacerlo de forma expresa, explícita e inequívoca, por ser desfavorable para el legitimario; y el segundo, emitirla, tratándose de atribuciones *inter vivos*, al momento de otorgarlas, pues, de otro modo, el causante podría utilizar este mecanismo para obtener un resultado no deseado por el ordenamiento: provocar la resolución de una donación firme fuera de los cauces legalmente previstos en los artículos 644 y siguientes CC; sin embargo, nada impide que pueda revocar posteriormente la orden ya dada (no la donación misma), verbigracia, en testamento.

BASE 60.^a Intangibilidad cuantitativa

Si los beneficios percibidos por el conjunto de sucesores forzosos no alcanzan a cubrir la legítima global, aquellos que hayan sido favorecidos, sea inter vivos, sea mortis causa, por el disponente o que hayan sido preteridos no intencionalmente o desheredados con base en una causa legal incierta podrán pedir, a prorrata de sus respectivas participaciones, la reducción, en cuanto les perjudiquen, de las liberalidades hechas en favor de extraños. En otro caso, estarán legitimados para solicitar dicha reducción los sucesores forzosos preferentes.

Las liberalidades inoficiosas se reducirán por el siguiente orden: en primer lugar, las atribuciones por causa de muerte a prorrata, con independencia del título por el que se hayan asignado; en segundo lugar, las atribuciones entre vivos por orden inverso al de su antigüedad, reduciéndose las de la misma fecha proporcionalmente. No obstante, si el disponente hubiese ordenado que se pague cierto legado con preferencia a otros o que se respete en lo posible cierta institución hereditaria, no sufrirán aquél

*Edonola ere, berez eraginkorra gerta dadin, kausatzaileak, agindu hori emateko orduan, bi betekizun izan behar ditu kontuan: lehena, aipatze bidez, argi eta zalantzarik gabe egitea, senipartedunarentzat kaltegarria baita; eta bigarrena, *inter vivos* egindako esleipena denez, egiteko momentuan adieraztea eta ematea, izan ere, bestela, kausatzaileak erabil baitezake tresna juridiko hau ordenamenduak nahi ez duen emaitza lortzeko: jadanik irmoa den dohaintza bat suntsiaraztea, Kodeko 644 eta hurrengo artikuluetan legez aurreikusitako bidetik kanpo; hala eta guztiz ere, eman duen agindu hori (dohaintza ez ordea) gero atzera bota dezake, esate baterako testamentuan.*

60. OINARRIA. Ukiezintasun kuantitatiboa

Nahitaezko oinordekoen taldeak, guztiak batera, jasotako onurek ez badute seniparte globala estaltzen, xedatzailearen aldetik onuradun gertatu direnek, inter vivos edo mortis causa izan, edo nahi gabe preterituak izan direnek, edo ziurra ez den legezko kausa baten arabera desheredatuak izan direnek, eskatu ahal izango dute, bakoitzari dagokion parte hartzearen proportzioan, arrotzen alde eskuzabaltasunez egindako esleipenak murriztea, kaltegarri zaizkien heinean. Bestela, murrizketa eskatzeko legitimazioa dute lehentasunezkoak diren nahitaezko oinordekoak.

Ezofiziosoak diren eskuzabaltasunak ordena honetan murriztuko dira: lehenik, heriotzagatik egindako esleipenak proportzioan, esleitzeko titulua zein izan den kontuan hartu gabe; bigarrenik, bizidunen arteko esleipenak, antzinatasuna alderantziz hartuz, eta data bereko esleipenak proportzionalki murriztuz. Hala eta guztiz ere, xedatzaileak agindu izan balu legatu jakin bat beste batzuk baino lehen ordaintzeko edo ahal den heinean herentziako izendapen bat errespetatzeko, hark ez du

ni ésta reducción sino después de haberse aplicado por entero al pago de la legítima las restantes atribuciones por causa de muerte. En cambio, el disponente no podrá alterar el orden de prelación previsto para las atribuciones entre vivos ni disponer que sean reducidas antes que las hechas mortis causa.

La reducción se efectuará in natura con las siguientes salvedades:

1.ª Si la reclamación se dirige contra el cónyuge viudo, éste podrá pagar el exceso inoficioso en metálico.

2.ª Si quien sufre la reducción ha recibido del causante varios bienes, podrá determinar cuál de ellos se entrega al reclamante.

3.ª Si la atribución sujeta a reducción tiene por objeto una cosa que no admita cómoda división, quedará ésta para el beneficiario si la reducción no absorbe la mitad de su valor; y en caso contrario para los sucesores forzosos; pero aquél y éstos deberán abonarse su respectivo haber en dinero.

Concordancias: arts. 656, 820 y 821 CC; arts. 179 a 181 LSAr.

Observaciones: Habida cuenta de la naturaleza global que compete a la expectativa de los sucesores forzosos, parecería lógico concluir que la legitimación para ejercitar la acción de reducción de disposiciones inoficiosas debe corresponder a cualquiera de ellos, o, mejor, a quienes ostenten un inmediato derecho sobre la legítima. Sin embargo, este planteamiento provocaría en numerosas ocasiones una excesiva fragmentación del patrimonio impropia de un sistema que, en sentido inverso, permite y tiende naturalmente hacia su concentración en pocas (o incluso únicas) manos. Por eso se ha juzgado más apropiado que el valor obtenido mediante el ejercicio de esta acción se reparta en proporción a lo recibido por cada uno de los sucesores forzosos sobre el *quantum* reservado, de suerte que los absolutamente

noztuko, ez hori murriztuko heriotzagatik egindako gainerako esleipen guztiak oso-osorik senipartea ordaintzera bideratu arte. Aldiz, xedatzaileak ezingo du aldatu bizidunen arteko esleipenentzat aurreikusitako lehentasun-ordena, ez eta xedatu mortis causa egindakoak baino lehenago murriztu beharra.

Murrizketa in natura egingo da, salbuespen hauek izan ezik:

1. Erreklamazioa ezkontide alargunaren aurkakoa bada, beronek gehiegizko ezofiziosoa dirutan ordain dezake.

2. Murrizketa jasaten duenak kausatzailearengandik hainbat ondasun jaso balitu, zehaztu ahalko du zein entregatu erreklamatzaileri.

3. Murriztu beharreko esleipenak nekez zatitu daitekeen gauza baldin badu objektutzat, berau onuradunarentzat geratuko da murrizketak haren balioaren erdia ez badu hartzen, bestela nahitaezko oinordekoentzat geratuko baita; baina hark eta horiek dirutan ordainduko dute dagokien ondarea.

Bat dato: KZ 656, 820 eta 821 artk.; ArOL 179-181 artk.

Oharrak: Nahitaezko oinordekoei dagokien itzaropena izaeraz globala dela kontuan izanik, logikoa da ondorioztatzea ezen ezofiziosoa gertatzen den ezein xedapen murrizteko akzioa baliatzeko legitimazioa, haietako edonori badagokiola, edo hobeto esanda, senipartearen gain berehalako eskubiderik baduen edonori dagokiola. Hala ere, horrelako antolabide batek, seguraski askotan, ondarea gehiegi zatitzea eragingo luke eta, hain zuzen ere, sistema alderantzizko bidean doa, hau da, ahalbidetzen du eta berezko joera du ondarea esku gutxitan (edo bakarrean) irauaraztea. Horregatik ulertu da, egokiagoa dela, akzio hori baliatuz lortutako balioa, nahitaezko oinordeko bakoitzak seniparteari erreserbatutako *quantum* delakotik jasotakoaren proportzioan banatzea, nola eta *de cuius*

separados de él por el *de cuius* queden por completo excluidos. Ahora bien, si se conviene en que ésta es la solución más congruente con el esquema legitimario propuesto, igualmente ha de reconocerse que los sucesores forzosos privados de toda participación carecen de legitimación para intentar la reducción, pues si, aun mediante ella, no pueden percibir nada, evidentemente decae la posibilidad de apreciar respecto de los mismos la concurrencia de interés alguno en orden al ejercicio de las acciones de minoración de las liberalidades lesivas. Por tanto, sólo los sucesores forzosos que sean, a un tiempo, donatarios (aun habiendo sido apartados, pues aquí no ha de tomarse en consideración la voluntad del causante), legatarios o herederos gozarán de legitimación para reclamar la reducción, repartiéndose el producto a rescindir (esto es, la diferencia entre lo que les fue atribuido y la mitad –o el tercio- del caudal computable) a prorrata de lo legal o voluntariamente percibido del causante, y esto con independencia de su carácter “mediato” o “inmediato”; todavía, entre ellos, cabe incluir al erróneamente preterido y al desheredado con base en una causa legal que se haya demostrado incierta. En cambio, si hubiesen sido excluidos todos (mediante global –e injusta- desheredación u omisión –ya intencional, ya errónea- y sin atribución de cualesquiera liberalidades entre vivos), la posibilidad de impugnar las disposiciones inoficiosas se concentra en los de primer grado, en atención, precisamente, a su inmediato derecho sobre la legítima.

En cuanto al orden en que ha de practicarse la reducción, se establece, de forma consecuente con el natural carácter irrevocable de las liberalidades *inter vivos*, que, antes que las donaciones o las atribuciones hechas en pacto sucesorio con transmisión de presente, han de reducirse, al objeto de sanar la lesión sufrida por el *quantum* reservado, las disposiciones de última voluntad

delakoak guztiz baztertu dituenak gera daitezen erabat kanpoan. Baina, proposatutako seniparteari buruzko eskemarekin hobekien datorren irtenbidea dela jotzen bada, ezein parte hartzetik kanporatuak izan diren nahitaezko oinordekoek murrizketa eskatzeko legitimaziorik ez dutela ere aitortu behar da, izan ere, baliatuko balute ere, ez lukete ezer jasoko eta, noski, eskuzabaltasun urratzaileak gutxitzeko akzioak baliatzeko horiek inolako interes zuzenik ez dutela argi dago. Horregatik, nahitaezko oinordekoa izan eta, aldi berean, baldin bada dohaintza-hartzailea (baztertuak izan arren, hemen ez baita kontuan hartzen kausatzailearen borondatea), legatiduna edo herederoa, orduan bai baitauka murrizketa eskatzeko legitimazioa, banatuz erreszinditu beharreko emaria (hau da, esleitu zitzaien eta zenbatu beharreko ondarearen erdiaren –edo herenaren- arteko aldea)

kausatzailearengandik legez edo borondatez jasotakoaren proportzioan, eta hori kontuan zian gabe izaeraz “mediatua” edo “inmediatua” den; oraindik ere, beraien artera, ekar liteke okerrezt preteritua izan dena eta ziurra ez dela frogatu den legezko kausaz desheredatu dena. Aldiz, guztiak baztertu izan balira (desheredatze globala -eta bidegabea- eginez, edo ahaztu izanagatik -apropos izan, okerrezt izan-, eta bizidunen arteko eskuzabaltasunezko esleipenik gabe), ezofiziosoak diren xedapenak inpugnatzeko aukera lehen mailakoan lepora jartzen da, kontuan hartuta, hain zuzen ere, senipartearen gain duten berehalako eskubidea.

Murrizketa egin behar den ordenari buruz, berriz, bizidunen arteko eskuzabaltasun egintzak izaeraz erreboka ezinak izatearekin bat etortzeko, ezartzen da, hain zuzen, dohaintzen edo presenteko eskualdatzea ezartzen duen oinordetza-itunean egindako esleipenen aurretik, murriztu behar direla, erreserbatutako *quantum* delakoak jasandako lesioa osatzeko, arrotzen alde egindako azken

otorgadas en favor de extraños. En fin, el que la legítima global, como se indicará más abajo, deba pagarse en bienes de la herencia supone que la reducción de las disposiciones inoficiosas, incluidas las *inter vivos*, ha de efectuarse *in natura*. Por tanto, si los reclamantes fuesen parientes en línea recta, la reducción conllevará la resolución de la titularidad del objeto en beneficio de los sucesores forzosos, efecto, este último, que podría propiciar una incómoda situación de comunidad si la minoración tuviese un alcance meramente parcial y la cosa no fuese divisible o desmereciese mucho con su división. Precisamente, a fin de soslayar este inconveniente se establece una salvedad a la regla general, salvedad que se acompaña de otras dos que, acogidas por el legislador aragonés, han parecido igualmente acertadas.

BASE 61.^a Intangibilidad cualitativa

Si aún no se hallase satisfecha al instante de la apertura de la sucesión, la legítima global, o la porción de ella que reste por atribuir, deberá pagarse en bienes relictos.

El disponente no podrá imponer sobre la legítima global gravamen de ninguna especie. A estos efectos, se entenderá por gravamen toda carga, sustitución, condición, término, modo, prohibición o limitación que disminuya el valor de los bienes adjudicados o restrinja o merme el pleno disfrute o disponibilidad de lo asignado.

Quedarán exceptuados de aquella prohibición:

- 1.º Los gravámenes dispuestos en favor de otros sucesores forzosos*
- 2.º Los gravámenes establecidos mediante cautela por la que el disponente conceda al sucesor forzoso la facultad de optar, bien por su derecho legitimario exento de toda carga, bien por una cuota más amplia que sólo percibirá en caso de que consienta aquéllos. Si la cautela se*

borondateko xedapenak.

Hitz batez, seniparte globala, geroago adieraziko denez, herentziako ondasunekin ordaindu behar da eta, beraz, ezofiziosoak diren xedapenak *in natura* murriztu beharko dira, *inter vivos* egindakoak ere bai. Alegia, erreklamatzailleak lerro zuzeneko ahaideak balira, murrizketaren ondorioz objektuaren titulartasuna suntsiaraziko da nahitaezko oinordekoen alde, baina, horrela, erkidegotza egoera deserosoa sor daiteke murrizketaren irismena soilik partziala izan eta gauza ezin bada zatitu edo, zatituz gero, bere balioa larriki galduko balu. Zehazki, eragozpen hori saihesteko, arau orokorrari salbuespen bat ezartzen zaio; gainera, beste bi salbuespen ere jaso dira, Aragoiko legegileak aurreikusi zituenak eta era berean ustez zuzenak direlako.

61. OINARRIA. Ukiezintasun kualitatiboa

Oinordetza irekitzeko momentuan oraindik ordaintzeke balego, seniparte global, edo esleitzeko geratzen den zatia, utzitako ondasunekin ordaindu beharko da.

Xedatzaileak inolako motako kargarik ezingo du ezarri seniparte globalaren gain. Eragin horietarako, karga dela ulertuko da ezein zama, ordezen, baldintza, epe, modu, debeku edo mugapen, esleitutako ondasunen balioa gutxitzen badu edo esleitutakoa osorik gozatzeko edo nolabait erabiltzeko aukera murrizten edo lermatzen badu.

Debeku hartatik salbu geratuko dira honako gauek:

- 1. Nahitaezko beste oinordekoen alde xedatutako kargak.*
- 2. Kautela honen ondorioz sortutako kargak: xedatzaileak, nahitaezko oinordekoari, ahalmena ematen dio aukera dezan, edo zamarik gabeko seniparte-eskubidea jaso, edo kuota zabalagoa jaso baina karga haiek onartuz gero bakarrik. Kautela hori hainbat*

dirigiera simultáneamente a varios sucesores forzosos, la opción no podrá comportar, para el caso de que cualquiera de ellos rechace el gravamen, la pérdida de los bienes relictos atribuidos con cargo a la legítima global y sí sólo de los asignados con cargo a la parte libre.

3.º *El legado de usufructo universal del caudal dispuesto en favor del cónyuge viudo.*

4.º *Los gravámenes previstos por la Ley.*

Concordancias: arts. 60 y 61 LDCF; art. 813 CC; arts. 182, 183 y 186 LSAr.; arts. 56 y 57 AAVD.

Observaciones: De acuerdo con los sistemas legitimarios hoy vigentes en el País Vasco (así, Código civil y Fuero de Bizkaia), se confiere a la expectativa forzosa aquí propuesta la naturaleza de una *pars bonorum*, lo que condice, de otra parte, con su carácter global y sus dimensiones relativamente amplias. Piénsese, en efecto, que la articulación de la legítima al modo de un simple derecho de crédito (o *pars valoris*) liquidable en metálico sólo adquiere pleno sentido cuando se asigna a cada sucesor forzoso una porción individual intangible no muy grande, pues, en tales casos, su conversión en numerario permite que aquélla no se convierta en un obstáculo insalvable en orden a la transmisión indivisa del patrimonio familiar (singularmente, de la empresa) sin gravar, a la vez y en exceso, al sujeto designado como sucesor a título universal.

En cuanto a la regla de interdicción de gravámenes, obviamente tiene por objeto evitar que la legítima global resulte indirectamente frustrada, como ocurriría si se permitiera al disponente establecer sobre los bienes relictos adjudicados a los sucesores forzosos cualesquiera cargas (por ejemplo, un usufructo) en favor de extraños. Esta norma general, sin embargo, enseguida se matiza en atención a la libertad distributiva de que goza el *de*

nahitaezko oinordekoei aldi berean zuzentzen bazaie eta horietako norbaitek karga errefusatzen badu aukeratzeko ahalmena baliatzean, horrek ez du ekarriko seniparte globalaren kontura esleitutako ondasunak galtzea, baina zati askearen kontura esleitutakoak behintzat bai.

3. *Ezkontide alargunaren alde, ondarearen gaineko usufruktu unibertsala xedatzea.*

4. *Legez aurreikusitako kargak.*

Bat dato: FZZL 60 eta 61 artk.; KZ 813 art.; ArOL 182,183 eta 186 artk.; EZAA 56 eta 57 artk.

Oharrak: Egun euskal erkidegoan indarrean diren seniparte-sistemekin bat (hala Kode Zibila, nola Bizkaiko Forua), hemen proposatzen den nahitaezko itxaropena izaeraz *pars bonorum* gisa egituratzen da, bat baitator, bestalde, izaeraz globala izatearekin eta hedadura nahiko zabala izatearekin. Pentsa, hain zuzen ere, senipartea kredituzko eskubide soil (edo *pars valoris*) gisa antolatu eta, beraz, dirutan kitatzeko moduan ezartzen bada, bere zentzu osoa hartzen du baldin eta, nahitaezko oinordeko bakoitzari, zati indibidual ukiezin ez oso handia ematen bazaio. Izan ere, orduan, diru bihurtzeko erraztasunak ahalbidetzen baitu oztopo gaindiezin ez bilakatzea familiako ondarea zatitu gabe transmititu nahi denean (bereziki, familia-enpresen kasuan), hartara titulu unibertsalez oinordeko izendatu denari ez baitzaio karga larririk ezartzen.

Kargak debekatzeari buruzko erregelari dagokienez, horiek objektutzat dute, noski, seniparte globala zeharkako bidetik zapuzteko aukera ekiditea, hori gertatuko bailitzateke hau onartuz gero: xedatzaileak aukera izatea nahitaezko oinordekoei esleitutako ondasunen gain ezein karga ezartzeko (esaterako, usufruktua) arrotzen alde. Arau orokor hori, hala eta guztiz ere, berehala ñabartzen da *de cuius* delakoak seniparte globala askatasunez banatzeko

cuius sobre la legítima global, ya que, si puede repartir ésta a su prudente arbitrio, ha de considerarse perfectamente admisible que la adjudicación la realice bajo gravamen o sustitución establecido en beneficio de los no agraciados directamente, sean mediatos o inmediatos. Pero, además, son también válidos, como no podía ser de otro modo, los gravámenes contemplados por la Ley y los que comportan las denominadas “cauteladas socinianas” o “cauteladas de opción compensatoria”, por las que el causante concede a los sucesores forzosos la posibilidad de optar entre su derecho necesario exento de toda carga o un mayor *quantum* o más bienes de los que legalmente les corresponderían a cambio de consentir un gravamen sobre la cuota de legítima, ya que, cumplidos por el *de cuius* sus deberes sucesorios por mor de aquel primer término de la alternativa, ningún reproche jurídico cabe dirigir a su disposición. Ahora bien, ésta sólo puede reputarse por completo válida si hace entrar en juego únicamente la porción libre, pues, de otro modo, la opción supondría una clara coacción a los sucesores forzosos, en torticero ejercicio de la facultad distributiva concedida, como si, verbigracia, habiéndose instituido a los hijos en el entero caudal, la no asunción del gravamen dispuesto sobre todo él supusiese no sólo la pérdida de lo dejado con cargo a la parte libre, sino de la porción legitimaria que se había atribuido al reclamante, quedando éste “apartado” y sólo los demás efectivamente favorecidos por el total. En estas hipótesis, la libertad de distribución se estaría utilizando de forma desviada, al objeto de conseguir que todos los sucesores forzosos consientan un desplazamiento de la legítima hacia una persona extraña, desplazamiento que, individualmente, ninguno está en situación de evitar, porque se hace a costa de una expectativa desplazable, a la que no tiene derecho individual y sí únicamente colectivo. En fin, también se establece como

duen aukeraren arabera, izan ere, seniparte globala nahi bezala bana badezake, erabat onargarria da ere zamapean edo ordezenekin esleitzeko aukera izan dezan xedatzaileak, zuzenean saridun suertatu ez direnen aldeko xedapenak egiteko garaian, horiek mediatuak edo inmediatuak izan. Baina, gainera, baliozkoak dira ere, hala izan behar duenez, legez aurreikusitako kargak eta izenez “sociniar kautela” edo “konpentsazio-aukerazko kautela” moduan ezagutzen denetik sortutako kargak; azken kautela horren arabera, kausatzaileak, nahitaezko oinordekoei, aukeratzeko parada ematen die, edo dagokien eskubidea zamarik gabe jaso, edo legez dagokiona baino *quantum* handiagoa edo ondasun gehiago jaso baldin eta bere seniparte-kuotaren gain zamarik onartzen badu; azken batean, *de cuius* delakoak alternatibako lehen aukeraz oinordetza-betebeharrak estaltzen dituzenez, xedapen horri ez zaio inolako gaitzespenik egin. Baina, aukerari hori dudarik gabe baliozkoa dela jotzeko, beharrezko da zati askea kontuan hartzea, bestela, hura ezartzeak nahitaezko oinordekoak derrigortze-egoeran jartzen baititu, ematen den ondarea banatzeko ahalmena modu bihurrian baliatuz; hala gertatzen da, esate baterako, ondare osoan parte hartzeko ume guztiak izendatu eta, guztiaren gainean ezarritako karga ez onartzeak ekarriko balu, ez bakarrik zati askearen kontura utzitakoa galtzea, baizik eta baita erreklamatzailari esleitutako seniparte-zatia, horrela azken hori “bartzertua” geratuz eta gainerakoak ondare osoaz onuratuak geratuz. Hipotesi horietan, banatzeko askatasuna modu okerrean erabiliko litzateke, zertarako eta, nahitaezko oinordeko guztiek, arrotza den norbaitengana senipartea joan dadin ameto eman dezaten, kontuan izan behar baita eskualdatze hori ezin duela bakoitzak bere aldetik ekidin, izan ere mugitu eta aldatu daitekeen itxaropena besterik ez baitaukate haiek, seniparte-eskubidea izaeraz kolektiboa delako, ez indibiduala. Azkenik, senipartearen ukiezintasun

excepción a la regla de intangibilidad cualitativa de la legítima el legado de usufructo universal estipulado en favor del viudo, atribución muy frecuente en los actos de última voluntad otorgados por personas casadas y que, sin embargo, ha tenido que sortear siempre (a salvo el caso de Bizkaia) el obstáculo que representa aquel principio general mediante el recurso a las cautelas de opción compensatoria.

BASE 62.ª Alimentos

Los descendientes y ascendientes que ostenten la condición de legitimarios preferentes y que, como consecuencia de la distribución del caudal relicto, queden en situación legal de pedir alimentos, podrán reclamárselos, a falta de persona obligada a prestarlos conforme a la legislación civil general, a los sucesores del causante en proporción a cuanto hayan recibido de él.

El cumplimiento de esta obligación será exigible incluso a quienes hayan recibido donaciones o cualesquiera otras atribuciones gratuitas entre vivos, si al fallecimiento del atribuyente se constatase aquella situación de necesidad.

Si, por haberse legado a un tercero el usufructo universal o parcial de la herencia, los sucesores ostentasen únicamente la nuda propiedad del caudal, la demanda de alimentos deberá dirigirse contra el usufructuario, que será alimentante en las mismas condiciones dispuestas para aquéllos.

El causante podrá privar de este derecho de alimentos al sucesor forzoso que incurra en causa legal de desheredación. Aquellos descendientes o ascendientes que ostenten la condición de sucesores forzosos preferentes y que, siendo personas con discapacidad, no hayan recibido del disponente bienes suficientes para cubrir sus necesidades especiales podrán reclamar a los sujetos señalados en los apartados precedentes una pensión alimenticia de extensión bastante para

kualitatiboaren salbuespen gisa beste hau ere jasotzen da: alargunaren alde ezarritako usufruktu unibertsalaren legatua; esleipen hori oso maiz agertzen da ezkonduetako pertsonen beren azken borondatea ematen dutenean eta, hala ere, printzipio orokorrak eragiten duen oztopoa gainditu izan behar du beti (Bizkaian izan ezik), nola eta aipatutako konpentsazio-aukerazko kautela hura erabiliz.

62. OINARRIA. Mantenua

Ondorengoek eta aurre-ahaideek, izaeraz lehentasunezko senipartedun izan eta, utzitako ondarea banatzearen ondorioz, legezko mantenua eskatu beharrean suertatzen badira, legeria zibil orokorraren arabera horiek prestatzeko obligazio duen pertsonarik egon ezean, mantenua erreklama diezaiekete kausatzailearen oinordekoei harengandik jasotakoaren proportzioan.

Obligazio hori betetzea galda diezaiekete ere dohaintzak edo bizidunen artean egindako doako esleipenak jaso dituztenei, behar-egoera hura esleipen-emailea hiltzen den momentuan badagoela egiaztatzen baldin bada beti ere.

Herentziaren usufruktu unibertsala edo partziala hirugarren bati legatuz eman eta oinordekoak ondarearen gain jabetza soila besterik ez badute, mantenua eskatzeko demanda usufruktudunaren aurka jarri behar da, eta mantenu-emailea izango da haien zat ezarritako baldintza berdinekin.

Kausatzaileak ken diezaioke mantenu-eskubidea nahitaezko oinordekoari desheredatzeko legezko kausan erori bada. Ondorengoak edo aurre-ahaideak izaeraz lehentasunezko nahitaezko oinordeko eta urritasuna duten pertsonak izan, eta beren behar bereziei aurre egiteko xedatzailearengandik nahiko ondasunik jaso ez balute, orduan aurreko lerroaldeetan aipatutako subjektuei erreklama diezaiekete mantenu-pentsio

satisfacerlas.

Concordancias: arts. 66 y 158 LDCF; art. 200 LSAr.

Observaciones: Esta base, como es habitual en los sistemas de legítima libremente distribuible por el causante (así, Bizkaia y Aragón), contempla un derecho de alimentos de naturaleza necesaria en favor de aquellos sucesores forzosos inmediatos que queden en situación legal de pedirlos como consecuencia del reparto de la herencia. Lo que viene a significar que es obligación previa del *de cuius* (si bien que subsidiaria respecto de la correspondiente al grupo parental delimitado en el artículo 143 CC) la de subvenir a las necesidades de sus legitimarios, de modo que la materialización de su potestad distributiva y de su libertad de disposición en favor de extraños no podría conllevar, por ejemplo, el desamparo de cualesquiera de sus hijos. Es, así, un derecho eventual, pero, como se ha dicho, de carácter necesario: no podrá ser denegado por el causante, salvo en caso de que concurriese una justa causa de desheredación. La cuantía de los alimentos se determinará en proporción a todo lo que los sucesores hayan obtenido del disponente, siendo exigible el cumplimiento de tal obligación a propios y a extraños e incluso a quienes hubiesen recibido donaciones u otras liberalidades entre vivos si al fallecimiento del donante se constatare la situación de necesidad. Mas resultaría de todo punto injusto imponérsela a quien sea mero nudo propietario por hallarse el caudal gravado con un usufructo: corresponde, en tal caso, desplazar la carga del cumplimiento de esta obligación hacia quien hace suyos los frutos de la herencia. Además, la base contempla un eventual derecho de alimentos singularmente reforzado para los descendientes o ascendientes que sean personas con discapacidad, derecho cuya existencia no depende de la concurrencia de una

bat, behar berezi horiek estaltzeko hainekoa.

Bat datoz: FZZL 66 eta 158 artk.; ArOL 200 art.

Oharrak: Oinarri honek, kausatzaileak senipartea askatasunez bana dezakeen sistemetan gertatzen ohi denez (hala, Bizkaian eta Aragoian), izaeraz derrigorrezkoa den mantenu-eskubide bat aurreikusten du, herentzia banatzearen ondorioz, mantenua eskatzeko legezko egoeran geratzen diren berehalako nahitaezko oinordekoen alde. Azken batean, xedapen honek hau nahi du *de cuius* delakoak aurrez baduela obligazio bat (KZ 143 artikuluan zehaztutako ahaide-taldeari dagokion obligazioarekiko subsidiarioa bada ere), bere senipartedunen beharrak estaltzen laguntzea eta, horregatik, banatzeko ahalmena eta xedatzeko askatasuna arrotzen alde baliatzen baditu ere, ezin du eragin esaterako bere umeak babesik gabe geratzea. Beraz, eskubidea izaeraz balizkoa da, baina beharrezkoa ere: kausatzaileak ezingo du ukatu, desheredatzeko bidezko kausarik ez badago behintzat. Mantenuaren zenbatekoa, xedatzailearengandik guztiek jaso dutenaren proportzioan zehaztuko da, obligazio hori betetzea galdagarri izango baitzaie hurbilenekoei eta arrotzei, baita dohaintzak edo bizidunen artean eskuzabaltasunezko esleipenak jaso dituztenei ere emailea hil zenean behar-egoera bazegoela egiaztatzen bada. Baina ez litzateke inolaz ere zuzena izango jabe soila besterik ez den norbaiti ezartzea ondarea usufruktuarekin zamatua dagoenean: kasu horretan, obligazio hori betetzeko zama herentziaren fruituak bereganatzen dituenaren lepora jarri behar dira. Gainera, oinarriak bereziki sendotutako balizko mantenu-eskubide bat aurreikusten du urritasunik baduten pertsonak badira ondorengoak edo aurre-ahaideak; kasu horretan, eskubidea izatea

efectiva situación de inopia en estos sujetos, sino del simple hecho de no haber percibido bienes por un importe bastante como para colmar las necesidades que sus singulares circunstancias pudieran requerir. La referencia a las personas con discapacidad debe entenderse hecha al concepto definido en la Ley 41/2003, de 18 de noviembre, de protección patrimonial de las personas con discapacidad y de modificación del Código Civil, de la Ley de Enjuiciamiento Civil y de la Normativa Tributaria con esta finalidad.

BASE 63.^a Legítima viudal

Las atribuciones gratuitas, inter vivos o mortis causa, que el causante haya realizado voluntariamente en favor del cónyuge viudo se entenderán hechas, cualquiera que sea su objeto, en pago de su cuota legal usufructuaria y se imputarán a ella.

Salvo que el causante establezca otra cosa, el usufructo viudal se detraerá en último lugar de aquella porción del caudal o de aquellos concretos bienes relictos que hayan sido objeto de disposiciones imputables a la parte de libre disposición.

Los sujetos gravados, siempre que obren de consuno, podrán satisfacer al cónyuge su parte en usufructo asignándole un capital en dinero o un lote de bienes hereditarios. Sin embargo, no procederá el ejercicio de esta facultad de conmutación cuando el causante haya legado al supérstite el usufructo universal del caudal.

Concordancias: art. 58 LDCF; arts. 834 a 840 CC; art. 53 AAVD.

Observaciones: El hecho de que la legítima viudal, consistente en un usufructo de extensión determinada y variable, ostente, desde esta perspectiva,

ez da subjektu horiek txirotasunean egoeraren arabera uzten, baizik eta kontuan hartzen den egitate bakarra izango da ea jaso duten ondasun nahikorik bizi duten inguruabar bereziak eskatzen dituen behar ekidinezinak estaltzeko. Urritasun-egoeran dauden pertsonak nor diren jakiteko lege honek jasotako kontzeptura joko da: 41/2003 Legea, azaroaren 18koa, urritasunak dituzten pertsonen ondarea babesteari buruzkoa eta, helburu horrekin, Kode Zibila, Judiziamendu Zibilari buruzko Legea eta Tributuei buruzko Araudia aldatzeari buruzkoa.

63. OINARRIA. Alargunaren senipartea

Doako esleipenak, inter vivos edo mortis causa izan, borondatez egin dituenak kausatzaileak bere ezkontide alargunaren alde, bere objektu ezein delarik ere, haren legezko usufruktu-kuota ordaintzeko direla ulertuko da eta kuota horri egotziko zaizkio.

Kausatzaileak besterik ezartzen ez badu behintzat, alarguntzako usufruktua azken lekuan kenduko da nondik eta askatasunez xedatzeko zatiari egotzi zaizkion esleipenen objektu izan diren ondarearen zatitik edo utzitako ondasun jakinetatik. Zama jasaten duten subjektuek, beti ere batera arituz, ordain diezaiekete ezkontideari bere usufruktuzko zatia diru-kapital bat edo herentziako ondasun-multzo bat esleituz. Hala ere, kommutatzeko ahalmen hori ezin izango da baliatu baldin eta kausatzaileak ondarearen usufruktu unibertsala legatu badio ezkontide alargunari.

Bat datoz: FZZL 58 art.; KZ 834-840 artk.; EZAA 53 art.

Oharrak: Alargunaren senipartea hedadura jakina izan baina aldakorra den usufruktuak osatzen du eta, ikuspegi horretatik, bere izaerak ez du zerikusirik

una naturaleza diversa al *quantum* reservado en favor de los parientes en línea recta, no impide entender que, como éste, no es sino un sencillo metro de las percepciones que, mínimamente, ha de recibir el cónyuge superviviente del patrimonio de su difunto consorte. Por tal razón, debe concluirse que también respecto de su cuota usufructuaria procede realizar la operación denominada “imputación”, es decir, que todas las liberalidades gratuitas obtenidas del *de cuius*, *inter vivos* o *mortis causa*, han de reconducirse contablemente a dicha cuota (una vez capitalizada) para comprobar si se halla o no satisfecho en sus derechos legitimarios mínimos.

El orden de detracción previsto en el segundo párrafo de la base no tiene otro fin que el de respetar de modo absoluto la libertad del *de cuius* para disponer a su arbitrio de aquella porción del caudal que no sea legítima de los descendientes o ascendientes. Es decir, persigue dejar intacta la parte libre, de modo que pueda ser destinada en plena propiedad por el causante.

Por último, mediante la conmutación del usufructo vital se evitan los inconvenientes que éste plantea a la hora de la partición hereditaria, los peligros que entraña el gravamen del bien cuando la explotación es abusiva, las desventajas de la desmembración del dominio, etc.

BASE 64.^a Prescripción de acciones

Las acciones contempladas en las bases anteriores caducarán en un plazo de cinco años contados desde el fallecimiento del causante o desde el instante en que se produzca la extinción o el agotamiento de la fiducia y tendrán un alcance puramente rescisorio.

Concordancias: art. 178 LSAr.; arts. 451-16, 451-20 y 451-24 CCCat.

Observaciones: Un elemental prurito de seguridad jurídica exige el explícito

lerro zuzeneko ahaideen alde erreserbatzen den *quantum* delakoarekin; baina ezaugarri horrek ez du kentzen, azken horien kasuan bezala, hildako ezkontidearen ondaretik bizirik irauten duen alargunak jaso behar duen gutxienekoa neurtzeko tresna izatea. Horregatik ondorioztatu behar da ezen, usufruktuzko kuotari dagokionean ere, “egozketa” deitzen den eragiketa egin behar dela, hau da, *de cuius* delakoak emandako doako eskuzabaltasun guztiak, *inter vivos* edo *mortis causa* izan, kontuak egiteko kuota horretara bideratu behar dira (behin kapitalizatu ostean), hartara egiaztatzeko ea seniparte-eskubide gutxiengoa asetu den edo ez.

Oinarriko bigarren lerroaldean aurreikusitako kenketa ordenak duen helburua da, besterik gabe, ondorengoen edo aurre-ahaideen seniparte ez den ondarearen zatia nahi bezala banatzeko *de cuius* delakoak duen askatasuna erabat errespetatzea. Hau da, zati askea ukitu gabe uztea du helburu, kausatzaileak bere gaineko jabetza osorik erabakitzeko moduan utziz.

Azkenik, alargunaren usufruktua konmutatzearen bidez hainbat eragozpen ekiditen dira: herentzia banatzeko garaian azaltzen direnak, ondasunaren kargak sortitzakeenak egiten den ustiaketa abusuz balitz, jabetza-eskubidearen ahalmenak zatitzeak sortutako eragozpenak, eta abar.

64. OINARRIA. Akzioak preskribitzea

Aurreko oinarrietan aurreikusitako akzioak bost urteko epean kadukatuko dira, kausatzailea hil zen unetik edo fiduzia iraungi edo agortzen den momentutik kontatzen hasita eta eraginez irismen erreszinditzailea besterik ez dute izango.

Bat datoz: ArOL 178 art.; KatKZ 451-16, 451-20 eta 451-24 artk.

Oharrak: Segurtasunaren aldeko grina juridikoak galdatzen duenez, senipartearen

establecimiento de un plazo para el ejercicio de las acciones de protección de la legítima, esto es, tanto de las de reducción de disposiciones inoficiosas, como de las derivadas de preterición no intencional o de desheredación hecha con base en causa legal incierta. Esa misma idea sugiere también la inclusión de una referencia expresa a su naturaleza y alcance, sobre todo en la medida en que la consistencia de la legítima propuesta (*pars bonorum*) podría suscitar algunas dudas en este respecto. Se ha optado, así, por asignarles un alcance meramente rescisorio, de suerte que, si bien los sucesores forzosos gozan de un derecho sobre el mismo caudal, no será posible sostener la existencia de una especial afección de los bienes hereditarios al pago del *quantum* reservado como término complementario de aquél. Estas acciones contarán, por tanto, con una reipersecutoriedad muy limitada, y no podrán incluirse en ellas a sujetos distintos de los favorecidos con los bienes relictos o donados cuando los mismos “*se hallaren legalmente en poder de terceras personas que no hubiesen procedido de mala fe*” (art. 1.295.2.º CC), salvo, acaso, si las recibieron por título gratuito. Cabría apreciar mala fe en el tercero cuando conociera la reclamación de los sucesores forzosos (o la efectividad de la lesión) o supiera que la enajenación se realizó para burlar sus derechos, mas no por el simple hecho de que fuese consciente de su posible, eventual o hipotético ejercicio.

Capítulo II – De la sucesión forzosa en la Tierra Llana de Bizkaia, Llodio y Aramaio

BASE 65.ª Subsistencia del régimen contenido en la Ley 3/1992, de 1 de julio, del Derecho Civil Foral del País Vasco

Tanto el régimen de sucesión forzosa establecido en el Capítulo II, Título III del

babesean akzioak baliatzeko epea aipatze bidez ezarri behar da, babes-akzio horietan barnebilduz bai ezofiziosoak diren xedapenak murriztekoa, bai nahi gabe egindako preteriziotik edo ziurra ez den legezko kausaren arabera egindako desheredatzetik datorrena. Ideia horrek berak aditzera ematen du ere komeni dela aipatze bidez zehaztea bere izaera eta irismena, batik bat proposatzen den senipartearen mamiak (*pars bonorum*) zalantzarik sor dezakeelako ezaugarri horiei buruz. Horrela, irismen erreszinditzaile hutsa emateko aukera egin da, nola eta, nahitaezko oinordekoek ondare beraren gain eskubiderik badute ere, herentziako ondasunak erreserbatutako *quantum* delakoa ordaintzera lotuta daudela ulertzeko aukerari zirrikiturik ez uzteko, senipartearen osagai gisa denean. Akzio horiek, beraz, ondasunen atzetik joateko aukera oso mugatua emango dute, eta ezin da beraien mende jarri utzitako edo dohaintzan emandako ondasunen onuradun izan ez den oro baldin eta “*fede gaiztoz aritu ez diren hirugarren pertsonen esku badaude ondasunak legez*” (KZ 1295.2 art.), kanpoan utzita, akaso, doako tituluz jaso izan diren kasuak. Bere kasuan, hirugarrena fede gaiztokoa dela jo daiteke nahitaezko oinordekoen erreklamazioaren (edo lesioaren) berri izan balu, edo eskubideak ez errespetatzeko besterendu zela jakin izan balu, baina ez balizko baliatzea posiblearen jakitun izateagatik.

II. Kapitulua – Nahitaezko oinordetza Bizkaiko Lur Lauan, Laudion eta Aramaion

65. OINARRIA. 3/1992 Legean, uztailearen 1ekoan, euskal foru zuzenbide zibilari buruzkoan jasotako eraentzak irautea

Batetik 3/1992 Legeak, uztailearen 1ekoak, euskal foru zuzenbide zibilari buruzkoak I.

Libro I de la Ley 3/1992, de 1 de julio, del Derecho Civil Foral del País Vasco, como las normas que, sobre el principio de troncalidad, se contienen en el Título II de aquel mismo Libro, conservarán su vigencia dentro del ámbito territorial delimitado por los artículos 5 a 7 del Título I, Libro I, y el artículo 146.1 del Título II, Libro II, a salvo las siguientes modificaciones:

1.ª Se derogarán expresamente los artículos 25, 64 y 65, así como las disposiciones contenidas en el párrafo quinto del artículo 58 y las recogidas en el párrafo tercero del primer apartado del artículo 62. Se suprimirá igualmente la remisión contemplada en el artículo 61.

2.ª A efectos de la troncalidad, tendrá la consideración de bien raíz únicamente la propiedad que recaiga sobre un caserío sito en el Infanzonado vizcaíno o en los municipios alaveses de Llodio y Aramaio. En consecuencia, se dará al artículo 19 la siguiente redacción: “1. A efectos de la troncalidad, tiene la consideración de bien raíz únicamente la propiedad que recaiga sobre el caserío. Se entiende por caserío el conjunto formado por la casa destinada a vivienda y cualesquiera otras edificaciones, dependencias y terrenos anejos a aquélla, así como el mobiliario, semovientes y máquinas afectos a su explotación si fuere objeto de ésta. 2. No están sujetos al principio de troncalidad los inmuebles anejos al caserío ni los muebles destinados o unidos a él cuando se transmitan con independencia.”

3.ª La cuota de legítima establecida en favor de los hijos y demás descendientes y, a falta de éstos, de los padres y demás ascendientes, se adecuará a la prevista con carácter general para la Comunidad Autónoma Vasca. Por tanto, se modificarán los artículos 55 y 56, que pasarán a tener, respectivamente, el siguiente texto:

◆ *Artículo 55: “La legítima de los descendientes se halla constituida por la mitad de todos los bienes del testador, salvo cuando exista uno solo, en cuyo*

Liburuko III. Tituluko II. Kapituluaren nahitaezko oinordetzari buruz ezarritako eraentza, eta bestetik Liburu bereko II. Tituluan oinetxekotasun-printzipioari buruz jasotako arauak, indarrean segiko dute, non eta I. Liburuko I. Tituluaren 5-7 artikuluetan, eta II. Liburuko II. Tituluaren 146.1 artikuluan zehaztutako lurralde-eremuan, aldaketa hauek kontuan hartuta:

1. Berariaz derogatuko dira 25, 64 eta 65. artikulua, 58. artikulua bostgarren leerroaldean jasotako xedapenak eta 62. artikulua lehen ataleko hirugarren leerroaldean jasotakoak ere bai. Era berean, kenduko da ere 61. artikuluan aurreikusitako igorpena.

2. Oinetxekotasunari dagokionez, ondasun onibartzat joko da bakarrik Bizkaiko Lur Lauan edo Laudioko zein Aramaioko udalerrietan kokatutako baserriaren gain erortzen den jabetza. Ondorioz, 19. artikuluari idazkera hau emango zaio: “1. Oinetxekotasunaren eraginetarako, baserriaren gain erortzen den jabetza bakarrik hartuko da onibar gisa. Baserria etxebizitzak berak eta hari lotutako gainerako eraikin, areto eta lursailek osatzen dute, bai eta, baserriaren ustiaketari, ustiatzen bada, atxikitako ondasun higigarriek, aziendek eta makinek ere. 2. Oinetxekotasun-printzipiotik kanpo geratuko dira baserriari erantsitako higiezinak, eta haren zerbitzura edo hari lotutako higigarriak baldin eta aparte eskualdatzen badira.”

3. Umeen eta gainerako ondorengoen, eta horiek egon ezean gurasoen eta gainerako aurre-ahaideen alde ezarritako seniparte-kota, euskal autonomia-erkidegorako oro har aurreikusi den eraentzara egokituko da. Beraz, 55 eta 56. artikulua aldatuko dira, zeinek, hurrenez hurren, idazkera hau izango duten:

◆ *55. artikulua: “Ondorengoen seniparte, testamentugilearen ondasun guztien erdia izango da, beti ere ondorengoa bakarra ez bada, orduan laurden batekoa izango baita.*

caso será de una cuarta parte. La porción restante es de libre disposición, si hay bienes no troncales suficientes para cubrirla.”

◆ *Artículo 56: “La legítima de los ascendientes se halla constituida por la tercera parte de todos los bienes del testador, salvo cuando exista uno solo, en cuyo caso será de una cuarta parte. Los demás bienes serán de libre disposición, siempre que no sean troncales.”*

Concordancias: arts. 61 a 87 AAVD.

Observaciones: El vigente Fuero Civil de Bizkaia impone dos tipos de restricciones a la libertad de disposición *mortis causa* del *de cuius*: una primera de tipo legitimario, por la que aquél está obligado a asignar una amplia porción de su patrimonio a sus descendientes y, en defecto de ellos, a sus ascendientes; y una segunda de naturaleza troncal, en virtud de la cual el causante infanzón ha de dejar necesariamente los bienes de esa índole a sus parientes tronqueros (art. 24 LDCF), que pueden serlo, incluso, los colaterales hasta el cuarto grado de consanguinidad. La presente base postula la preservación de los elementos fundamentales de este sistema en consideración a su carácter secular, sistema cuyas líneas esenciales, definidas ya en el Fuero Viejo de 1452 y en el Fuero Nuevo de 1526, han persistido hasta la actualidad. Sin embargo, trata a un tiempo de redimensionarlo y reconducirlo al ámbito en el que nació: el caserío vizcaíno.

Conviene advertir, en efecto, que la amplia legítima dispuesta en favor de los descendientes y ascendientes y, sobre todo, la regla de vinculación de los inmuebles troncales en favor de la familia de su titular surgieron en este Territorio Histórico en atención a unos parámetros económicos y sociales muy singulares. Más concretamente, nacieron en un período en el que su economía se resumía en el desarrollo de una actividad agrícola y ganadera (a través del aprovechamiento

Gainerako zatia askatasunez xedatzekoa da, baldin eta oinetxeoak ez diren nahiko ondasunik balego.

◆ *56. artikulua: “Aurre-ahaideen senipartea, testamentugilearen ondasun guztien herena izango da, beti ere aurre-ahaide bakarra ez bada, orduan laurden batekoa izango baita. Gainerako ondasunak askatasunez xeda daitezke, beti ere oinetxeoak ez badira.”*

Bat datoz: EZAA 61-87 artk.

Oharrak: Bizkaian indarrean den Foru Zibilak, *de cuius* delakoaren *mortis causa* xedatzeko askatasuna, bi modutara mugatzen du: lehenik senipartearen eremuan, ondarearen zati nagusia ondorengoei edo, horiek egon ezean, aurre-ahaideei bideratzeko obligazioa ezartzen baitu; eta, bigarrena, oinetxekotasunaren eremuan, izan ere hor, kausatzailea infantzoia bada, mota horretako ondasunak beti oinetxeo ahaideei utzi behar baitizkie (FZZL 24. art.), laugarren graduan odolokide diren ahaideak bertan sartuz. Oinarri honen helburua da, hain zuzen ere, sistema horren funtsezko elementuak iraunaraztea, kontuan izanda, mendetako erakundeak izanik, sistemaren lerro nagusiak jada 1452ko Foru Zaharrean eta 1526ko Foru Berrian biltzen zirela eta gaurdaino iraun dutela. Hala eta guztiz ere, aldi berean neurri berrietan sartzen saiatu eta sortu zen eremura birbideratzen da; baserri bizkaitarra.

Ohartarazi behar da, hain zuzen, ondorengoen eta aurre-ahaideen alde xedatutako seniparte zabala eta, batik bat, oinetxeo higiezinak bere titularraren familiaren aldeko loturaz eusteko erregela sortu zirela, bata zein bestea, Lurralde Historiko horretan inguruabar ekonomiko eta sozial oso bitxiari erantzuteko. Are zehatzago, nekazaritzako eta abelgintzako jarduerak (mendiak eta basoak ere ustiatzea ezinbestekoa izanik) ekonomiaren oinarri nagusi eta ia bakar

de montes y bosques) y, en menor medida, artesanal. Se trataba, por tanto, de una economía de simple autoabastecimiento que conllevaba una robusta estructura familiar, ya que era el círculo parental el que se constituía en empresa. Tal identificación práctica entre empresa y familia favoreció, a su vez, la identidad jurídica entre bienes y familia de sangre: quien adquiría, a título gratuito u oneroso, inmuebles provenientes de ciertos parientes adquiriría, con ellos, un valor obtenido y, quizás, incrementado a través de esfuerzos comunes. El tránsito de dichos bienes a manos extrañas al grupo parental implicaba, pues, el traslado de una riqueza y unas plusvalías forjadas por los miembros del linaje al que pertenecía su dueño. Los efectos reflejos que, para la familia, tenía cualquier cambio de titularidad de la tierra y la necesidad de mantener y preservar los recursos vitales dentro de ella exigían la articulación de los oportunos instrumentos jurídicos, los cuales obedecían, básicamente, a la siguiente premisa: se otorgaba a los parientes del titular de los inmuebles una posición privilegiada y preferente ante cualquier traslación dominical de tales bienes, al tiempo que se modulaba el alcance y extensión del poder del dueño. Así surgió la troncalidad y, como complemento de ella, una legítima extraordinariamente amplia (cuatro quintos del caudal).

No hará falta decir que un modelo económico como el descrito no existe en la actualidad. Hace ya mucho tiempo que la subsistencia del grupo doméstico no depende de la tierra, con lo que la propiedad de ésta no condiciona la forma de articulación de aquél. Sin embargo, la Ley de 1992 no sólo conservó en toda su extensión el espectro subjetivo de parientes beneficiados por el principio de troncalidad tal y como venía delimitado en los antiguos Fueros, sino que ni siquiera procedió a una discriminación de los inmuebles en función de su destino o naturaleza a la hora de someterlos a sus

ziren garaian ezarri ziren, eta artisautza puntu-bateraino bakarrik. Ekonomia, beraz, autohornikuntzan oinarritzen zenez, familia-egitura sendotu beharra etortzen da, enpresa moduan ahaideen taldea antolatzen baita. Modu horretara, familiak eta enpresak bat egiten dute praktikan eta, ondorioz, ondasunen eta odoleko familiaren identitate juridikoa errazten da: norbaitek, doako edo kostuzko tituluz, ahaide jakin batzuegandik higiezinak eskuratzen dituzenean, horiekin batera eginahal komunaren bidez areagotutako balioa ere eskuratzen du. Ondasun horiek ahaide-taldetik atera eta arrotzen eskura joateak, beraz, haien jabearen leinuko kideek urte luzetan egindako lanaren aberastasuna eta gainbalioa ere ematea ekartzen baitu. Familiarentzat lurraren titulartasuna aldatzeak sortzen duen eragin adierazgarria eta bizitzeko baliabideak haren barruan eustarazteko beharra kontuan izanda, haren babeserako instrumentu juridiko egokiak egituratzen dira, nagusiki honako premisa hau ardatz hartuta: higiezinaren titularraren ahaideak maila pribilegiatu eta lehentasunezko batean jartzen dira ondasun haien jabetza-eskubidea eskuz aldatu nahi badu beren titularrak, eta aldi berean jabearen dagokion boterearen irismena ere ñabartzen da. Horrela sortu zen oinetxekotasuna eta, bere osagarri moduan, seniparte zabala baino oso zabala (ondarearen bostetik laukoa).

Esan beharrik ere ez da, gaur egun, halako eredu ekonomikoa gainditu eta desagertu dela. Aspalditik jada, etxeko taldearen bizi iraupena ez dago lurraren eta bere fruituen menpe eta lur horren gaineko jabetza-eskubideak ez du baldintzatzen familia egituratzeko modua. Hala eta guztiz ere, 1992ko legeak, batetik, oinetxekotasun printzipioaren arabera onuradun diren ahaideen eremu subjektiboa Foru zaharrek zehaztutako modu zabal hartan jasotzen du oraindik, eta, bestetik, higiezinaren artean ere ez du inolako bereizketarik egiten berez duten helburu edo izaeraren arabera gero mugapenera menarazteko

restricciones. Sucede así que inmuebles por completo ajenos al fin último que condicionó el nacimiento y formación del principio de troncalidad –como, por ejemplo, los de índole industrial o urbana– se encuentran hoy paradójicamente sometidos a él. Esto es, el régimen estrenado en 1992 se desentendió del esencial significado histórico de la troncalidad y de las –con éste– coherentes voces que, ante la perspectiva de una actualización del Derecho vizcaíno, solicitaban, ya por entonces y con idénticos argumentos, una reconducción de la troncalidad al caserío. Que este diagnóstico sea acertado lo demuestra, por lo demás, la propia Ley vigente cuando excluye expresamente del ámbito de aplicación del derecho familiar de preferente adquisición previsto en favor de los parientes tronqueros (una de las cruciales manifestaciones de la troncalidad) a *las fincas radicantes en suelo urbano* (art. 114), pues, de este modo, viene a reconocer lo impropio de mantener la vigencia del instituto de la saca foral respecto de ellas. Pero, entonces, ¿por qué no excluirlas también del resto de sujeciones que la troncalidad conlleva? O, lo que es igual, ¿por qué no circunscribir esta última, con todas sus variantes, a las fincas ubicadas en suelo rústico y, dentro de ellas, exclusivamente al caserío?

Esta base pretende propiciar un redireccionamiento y un redimensionamiento del sistema vizcaíno de sucesión forzosa y, en particular, de la troncalidad, acorde con el anterior análisis. De ahí que altere el ámbito objetivo del principio troncal a fin de limitarlo a los caseríos. Sin embargo, es obligado reconocer que, de esta forma, sólo se da un tardío inicio a una tarea que, en realidad, debió haberse acometido mucho tiempo atrás, a saber, la de definir qué misión, qué necesidades específicas, podría satisfacer en los tiempos actuales el secular principio vizcaíno de la troncalidad. Pero, hasta tanto no se

ezaugarri berezien arabera. Horren ondorioz, oinetxekotasun printzipioa sorrarazi eta osarazi zuen helburuarekin zerikusirik ez duten higiezinak ere -esate baterako, hiriko edo industriako higiezinak- gaur egun haren menpe daude, harritzekoa bada ere. Azken batean, 1992an marraztutako eraentzak ez zituen batere kontuan izan oinetxekotasunak jatorrian zuen esanahia eta horren kariaz, Bizkaiko zuzenbidea benetan eguneratzeko asmotik, zenbait adituen iritzia, jadanik orduan eta azaldutako argudioak erabiliz oinetxekotasuna baserrira mugatzea eskatu baitzen. Diagnostiko hau zuzena dela egiaztatzeko, indarrean den legea bera begiratu beharrik ez dago, aipatze bidez baztertzen baitu, oinetxeko ahaideen alde ezarritako lehentasunez eskuratzeko familia- eskubidearen eremutik (oinetxekotasuna agerian jartzen duen erakunde nagusitik), *hiri-lurrean kokatutako finkak* (114. art.); hain zuzen ere, kanporatze horretatik ondoriozta daitekeenez, ez baita batere egokia finka horien gain foru-sakaren erakunde aplikatzea. Ostera, orduan, finka horiek zergatik ez askatu oinetxekotasunaren gainerako loturetatik ere? Edo, beste modu batera esanda, zergatik ez oinetxekotasuna mugatu, dituen aldaera guztiekin, nekazal lurrean kokatutako finketara eta, horien barruan, baserriari bakarrik?

